

# Goienkaria

2008ko martxoaren 28a > Egubakoitza > VIII. urtea > 325. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Ez diot inori opa gerra bat bizi izatea, eta are gutxiago neska-mutiko bati"

**Jesus Moreno**  
Espainiako gerratik bizirik irtendakoa > 09



**G2a**

Film emanaldiak eta aretoak bailaran > 43-44

**BERGARA**

Herriko 65 bat elkarte eta Euskara Zerbitzua euskara bultzatzen > 25

**OÑATI**

Herriko bertso txapelketako finala jokatu dute bihar, Arranon > 33

**KIROLA**

Gorlako 34. Txirrindulari Igoera jokatu da domekan > 41

**ASTE SANTUA** > TURISMOA

## Eguraldiak atzera bota ditu hainbat bisitari Aste Santuan

**OÑATI** Bisitari gehien jaso duen herria da eta iazko kopurua mantentzea lortu dute, turismo arduradunen esanetan

**OSTALARIAK** Hoteletan erreserbak bertan behera laga dira; landetxetako nagusiak, aldiz, pozik azaldu dira

**PROFILA** Ohi bezala, Madrildik eta Kataluniatik etorri dira bisitari gehien: bikote gazteak eta familiak, batik bat > 02-03

**ARETXABALETA** > LANAK

## Herriko Plaza berritu egingo dute

Martitzenean hasi zituzten lanak eta itxura erabat berria emango diote, zazpi hilabetez > 31

## Bi bergarar KOra erabakitzen den Espainiako Karate Txapelketan

Espainiako Shinkyokushinkai Karate Txapelketa egingo dute bihar Gasteizen, Mendizorrotza kiroldegian. Eta Gipuzkoak bi ordezkari izango ditu han, biak ere bergararrak.

David Tabaresek lehenengo aldiz hartuko du esku karateak duen modalitate gogorren txapelketan eta Aitor Borobiarendako bigarren txapelketa izango da: "Hiru minutuko borrokak dira, eta denbora tarte horretan kolpe mordoa eman eta jasotzen dugu. Hilabete inguru behar izaten dugu errekuiperatzeko". > 40



**LAU KARATEKA** Ezkerretik eskumara Carlos Albusia senseia, Aitor Borobia eta David Tabares karatekak eta Aitor Albusia senseia.

IÑAKI LAZPIUR

### AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08  
Elkarrizketa > 09  
Iritzia > 10-11  
Gutunak > 12  
Herriak > 15-39  
Kirola > 40-42  
Kultura > 45  
Saillatuak > 46  
Eskelak > 47  
Denbora-pasa > 48  
Gazteak > 50  
Komunikazioa > 51  
Telebista-Irratia > 52  
Non-zer > 54-55

**UGARTE**

**AROTEGIA-ALTZARIAK**

arotz lanak orokorrean • horma-armairuak • altzariak • leihoak • atek



altzari denda  
ikerleku zeharbidea • bergara  
tel.: 943 03 46 30

erakusketa eta tailerra  
san juan 1A • bergara  
tel.: 943 76 54 91 faxa: 943 76 08 04

Ikuspegi paregabeaz goza ezazu  
**SEAT ALTEA**



**Udalaitz**

Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE • 943 71 18 70





ASTE SANTUKO OPORRAK &gt; TURISTAK DEBAGOIENEAN

# "Debagoienari Belgikaren antza hartu diot paisaietan eta eguraldian"

**KANPOTIK** Christophe Coechelbeugh belgikarra Madrilen bizi da; Aste Santuko oporretan Bergarako landetxe batean hartu du ostatu

**DENETARIK** Debagoieneko turismo bulegoetan pozik daude bisitari kopuruarekin; ostatuetakoa arduradunen artean, berriz, denetarik dago

**EGURALDI KAXKARRA** Aste bukaeran izandako eguraldi txarrak eragina izan du toki gehienetan; euriak eta elurrak turistak beharakada ekarri dute

MIRIAN BITERI &gt; BERGARA

Christophe Coechelbeugh belgikarra hiru egun baino ez ditu eman Debagoiengan. Baina denbora izan du toki ezagunenak ezagutzeko eta, bide batez, ibarrean ohikoa den eguraldia jasateko. Azken horrekin ez da batere harritu: "Madrilen bizi banaiz ere, belgikarra naiz. Debagoienari jaioterriaren antza hartu diot eguraldian eta paisaietan", esan du. Ikusitakoa gustukoa izan duela ere gaineratu du.

Aste Santuan kanpotar asko izan da gurean. Etxekoak kanpora irten eta ibarra inguruko nahiz Kataluniako, Madrilgo eta Andaluziako bisitariz bete dira. Orokorrean, pozik daude turismo bulegoak; ostatuaren arduradunak, berriz, ez horrenbeste. Gune turistikotik kanpo geratzen diren

herrietan ostatu hartu dutenen kopurua murriztagoa izan dela aipatu dute. Horrez gainera, aste bukaerako eguraldi kaxkarrak eragina izan duela onartu dute batzuek; gehienbat hoteletako arduradunek.

**OÑATIN, OSO POZIK**

Oñatin ez dira kexatzen. Turismo Zerbitzuko arduradun Iñaki Igartuak esan du 733 turista izan direla eta horietatik, 365 pertsonak unibertsitatean eta elizan eskainitako bisita gidatuetan parte hartu dutela: "Iaz lortutako emaitzak mantendu ditugu, eta hori ospatzekoa da, denboraren aldaketak kontuan hartuta", aipatu du.

Oñatin ez dute beherakadarik igarri; erreserbak eginda zituztenak eta, beraz, plana aurretik

**Oñatin erreserbak aurretik eginda zituztenek ez dituzte eguraldiagatik bertan behera utzi; Arantzazun eta Arrikrutzen arazo gehiago egon dira, bidea elurtuta zegoelako**

eginda zituztenak berdin hurbildu dira herrira, euria edo elur bustia botatzen bazuen ere.

Arrikrutzen, hala ere, domekan bisitarien kopuruak behera egin zuen. Hango langile Jon Betanzosek dioenez, batzuek nahiago izan zuten egun hartan erreserba bertan behera uztea. Hala eta guztiz ere, 900 lagun inguru izan dira egunotan bisita gidatuetan. Horien artean, Oñatiko Leire Fernandez dago; Arrikruz ikusi duen 20.000 bisitaria.

**ARANTZAZUN ARAZOAK**

Arantzazun elurra mara-mara egin zuen aste bukaeran. Zapatuan, egunean bertan Barakaldotik iritsitako bikote bat etxera bueltatu zen, eguraldi hobe egin duenean santutegira itzuliko



BELGIKARRA BERGARAN Christophe Coechelbeugh

direla azpimarratuta. Domekan, bestalde, ezustekoa izan zen errepidean. Autobus bat gurutzatu zen elurragatik, eta, ondorioz, bidea itxita egon zen goizean. Turismo bulegoa ere itxita egon zen eguerdira arte.

Jendea, hala ere, ez da belduritu eta ostatu hartu du han. Nerea Lopetegi donostiarra zapatuan heldu zen Goiko-Bentara, bidea

## BISITARIAK GUREAN

Andreu familia eta ibarreko lagunak  
Alacant

**"Dorletako santutegia eta gatz museoa ikusi ditugu, besteak beste"**

Alacanteko Andreutarrek familia dute ibarrean eta Aste Santuko oporretan bisitan etortzea erabaki dute: "Hirutan izan gara dagoeneko", dio Luis Andreuk. Leintz Gatzagako Dorletako santutegia eta gatz museoa ikusi dituzte, besteak beste.

Miren Arizmendarreta  
Arrasate

**"Arrikruz umeez ikusteko moduko kobazuloa dela iruditzen zait"**

Miren Arizmendarreta arrasatearra bitan egon da azkenaldian Arrikruz ikusten: "Orain dela hiru aste egon nintzen, eta umeez ikusteko modukoa iruditu zitzaidan; asko gustatu zaie". Inguruneak ikustea gustuko du arrasatearrak.

Nerea Lopetegi eta bikotekidea  
Donostia

**"Txikitan Arantzazun askotan egondakoa naiz eta oroitzen onak ditut"**

Arantzazun hartu du ostatu Nerea Lopetegi donostiarra, bikotekidearekin. Zapatuan heldu zen Oñatira: "Deskantsatzera etorri gara Arantzazutik paseatzera eta Oñati ikustera". Txikitan Arantzazun egondakoa da Lopetegi: "Oroitzen onak ditut".

Jose Carrillo eta emaztea  
Katalunia

**"Santutegien ibilbidea egin dugu: lehenengo Loiolara eta gero Arantzazura"**

Manresakoa da Jose Carrillo. Oporrak Euskal Herrian pasa ditu aurtien, emaztearekin batera: "Donostian hartu dugu ostatu". Zapatuan goiz jaiki ziren, Loiola eta Arantzazu ikusteko. Ez zuten bisita gidaturik egin: "Gure kabuz etorri gara".





Belgikarra Bergarako landetxe batean hartu du ostatu Aste Santuan, lagun talde batekin.

M.B.

elurtuta bazegoen ere. Eguazteen iristeko asmoa zuen, baina tokirik ez zegoela eta zapatura arte atzeratu behar izan zituen oporrak.

Leintz Gatzagan ere eguraldiak oporrak baldintzatu ditu. Aste bukaeran, esaterako, ez dute deirik izan Labidea turismo bulegoan. Herrira eta gatz museora iristeko bideak "nahiko txarto" izan direla esan du hango arduradun Aitziber Gorosabelek.

Bergarako bisita gidatuetan parte hartu dutenak pozik joan dira. Inpresio onarekin bueltatu dira etxera. Turismo bulegotik 192 lagun pasa dira. Ostatuetak arduradunen artean denetarik dago. Maite Aristegik beteta izan du Lamaño-Etxeberri landetxea. "Katalanak eta madrildarrak izan ditugu egunotan. Urtero hango bisitariak ditugu gurean", dio. Ormazabal hotelean, berriz, pasa berri diren egunak "nahiko ahu-

lak" izan direla esan digu hango arduradun Joseba Ormazabalek: "Eguaztenetik hasi ziren zen jendea deitzen, erreserba bertan behera uzten zutela, bisita gerorako uzten zutela". Hala, maiztako zubia "hobea" izateko itxaropena du.

Arrasaten ere ez da mugimendu handirik izan. Udalako bidean dagoen Santa Ana hotelean, esaterako, oso jende gutxi egon dela esan dute.

ELKARRIZKETA

Leire Fernandez > Arrikruzteko 20.000. bisitaria

## "Espeleologok meritua dute kobazulotik ibiltzeagatik"

M.B. > OÑATI

Arrikruzteko kobek dagoeneko 20.000 lagunetik gorako bisita izan dituzte. Aste Santuko oporretan 20000. bisitaria izan da han. Leire Fernandez oñatiarra izan da. Joan zen egubakoitzean, kobazuloa bisitatzera eta sarrerak hartzerakoan, bisitari berezia zela jakin zuen.

Zelatan joan zinen egun horretan Arrikruzteko?

Egia esan, eguenean hurbildu ginen, Arrikruzteko kobak bisitatzeko asmoz. Baina egun hartako bisita gidatuak ordurako beteta zeuden. Ez zegoen sarrerarik. Orduan, hurrengo egunerako erreserba egin genuen, 16:30erako.

Zorte kontua izan zen, beraz...

Bai, hala da. Sorpresatxo bat gordeta ziguten. Alegia, 20.000. bisitaria nintzela. Erreserba egiterakoan esan ziguten izen bat emateko eta nirea eman genuen, baina lau pertsona joan ginen, eta, beraz, edozein izan daiteke bisitari hori. Sarrera bat oparitu ziguten. Horrez gain, *Harribitxiak* izeneko bonboi kaxa eman ziguten.

Bonboiak probatu dituzu edo egun berezi baterako gorde dituzu?

Arratsalde hartan bertan bonboi guztiak jan genituen. Ordu erdian bukatu ziren denak. Oso gozoak zeuden eta ezin izan genuen itxaron.

Zer iruditu zaizu Arrikruzteko kobazuloan ikusitakoa?

Oso ondo dagoela iruditu zait. Niri, behintzat, gustatu zait kobazuloa. Pentsatzea espeleologoak hango txoetatik ibiltzen direla argirik gabe oso erakargarria dela iruditzen zait. Meritu handia dute. Bisitak, gainera, ondo planteatuta daude. Esan ziguten kobazulotik pasatzen den erreka ez zuela oraindik ur askorik, baina azken egunotan egin duen euriarekin beteta joango da orain.

Bisita errepikatze asmorik badaukazu?

Inoiz ez da jakiten. Orain, momentuz ez daukat hara bueltatzeko asmorik. Baina, agian, hemendik urte batzuetara berriro bisitatuko dut. Euskal Herria bisitatzera datorren eza-gunak ere eramango nituzke. Paraje polita da erakusteko.



Alfonsi Jimenez, Nekane Iñurritegi, Leire Fernandez eta Carlos Gonzalez Arrikruzten.

DERRIGORREZKO HEZKUNTZA

**ZURE  
AMETSAK  
BIZI**

902 11 20 25

## INFORMAZIO BILERAK

### Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

6.mailako gurasoentzat

#### SANTA TERESA

Arrasate, **apirilaren 1ean, 18:00etan**

#### GAZTELUONDO

Arrasate, **apirilaren 2an, 18:00etan**

#### SAN VIATOR TXIKI

Arrasate, **apirilaren 3an, 18:00etan**

#### ALMEN

Eskoriatza, **apirilaren 7an, 18:00etan**



*gura duzun eguna aukeratu!*

### Batxilergoa

DBH 4ko gurasoentzat

#### SAN VIATOR HAUNDI

Arrasate, **apirilaren 15ean, 18:00etan**

#### FERIXALEKUA

Arrasate, **apirilaren 16an, 18:00etan**

#### ALMEN

Eskoriatza, **apirilaren 17an, 18:00etan**



**Arizmendi**  
ikastola



POLITIKA &gt; ARRASATEKO ATENTATUAREN ONDORENGOAK

# Aukera gutxi ditu zentsura mozioak

PSE-EEk alderdi guztiekin hitz egin du Arrasateko alkatezatik Ino Galparsoro (EAE) kentzeko

Aralarrek dagoeneko esan du EAEk "legitimitate osoa" duela; beste alderdiek ez dute ezer esan

LEIRE KORTABARRIA &gt; ARRASATE

PSE-EE alderdia datorren martitzenean, apirilak 1, da jasotzeko Arrasateko Udalean aurkeztu nahi duen zentsura mozioaren gaineko erantzuna gainerako alderdiengandik. Azken horiek ez dute euren jarrera aurreratu nahi izan, baina, zenbait komunikabidetan agertutako informazioen arabera, PP ez beste alderdi guztiek, nahiz eta proposamena atzera ez duten bota, aldeko iritziz garbirik ere ez dute eman. PPK dagoeneko esan du "baldintzarik gabe" babestuko duela PSE-EEren proposamena.

BURUZAGIEKIN BATZARRAK

Sozialisten exekutibak bere gain hartu du zentsura mozioa aurrera eramateko asmoa; hala, Miguel Buen, Gipuzkoako PSE-EEko buruzagia, martitzenean batzartu zen Joseba Egibarrek (EAJ), Iñaki Sagarzazurekin (EA), Jon Abriplekin (Aralar) eta Antton Karrerarekin (Ezker Batua), eta eguaztenean, PPko buruzagiekin batzartu zen. Denei aurkeztu zien PSE-EEren asmoa: Arrasateko alkatezatik Ino Galparsoro (EAE) kentzeko eta Paco Gartzia sozialista jartzeko zentsura mozioa aurkeztea. PSE-EEk erabaki hori hartu du, EAEk ez duelako gaitzetsi Isaias Carrasco PSE-EEko kide arrasatearraren hilketa.

Zentsura mozio bat aurkezteko, zazpi zinegotziren sinadura eta alkategai bat behar dira, eta, aurrera egin dezan, Udaltzaren gehiengo absolutua behar da. Arrasateko Udalean, EAEk zazpi zinegotzi ditu; oposizioan daude orain PSE-EE (lau zinego-

tzi), EAJ (lau), Ezker Batua-Zutik (hiru), Aralar (bat), EA (bat) eta PP (bat).

ALDERDIRIK ALDERDI

PSE-EEk kontsultatutako alderdiek, oraingoz, ez dute erabateko adierazpenik egin, ez eta aurreratu zer erantzun dioten Alderdi Sozialistari. Bakarrik popularrek esan zuten, atentatuaren egun berean (martxoak 7), zentsura mozio bat babesteko gertu egongo zirela.

Aralarrek hauxe esan du: "PSOeri gogorarazi beharko genioke eurak izan zirela kandidatura batzuk ontzat eman zituztenak eta beste batzuk ez, eta egun bizi dugun egoera eurek bermatu zutela. Ezin da onartu une baten balekoa den legeak gero ez balio izatea. Uste dugu EAEk gizarteak eman dion legitimitate osoa duela eta gizartea bera izango dela gehiengo hori eman ala kenduko diona, hala badagokio".

EAJ alderdiak esan du "aztertzeko" dabilzala PSE-EEren proposamena, eta epea bete arte ez dutela gehiagorik azalduko.

Eusko Alkartasuneko presidentek, Unai Ziarretak, esan du Arrasateko kasua "ezin dela beste herri batzuetara eraman", baina ez du esan ze jarrera hartuko duten Arrasaten. Edozein modutan, erabakia hartuta dago, eta Arrasateko EAJ hartu du, baina ez du jakinaraziko martitzenera arte; orduan, herriko militanteekin batzarra egingo dute, eta, gero, erabakia jakinaraziko dute.

Ezker Batuak ere ez du adierazpenik egingo martitzenera arte; hala ere, Arrasateko zine-



ELKARTASUNA Carrasco hil zutenean jarri zuten kartela, udaletxean.

GOIENKARIA

gotzi Ander Rodriguezek kritika egin du PSE-EEren jarrera gai hori exekutibak hartu izanagatik, eta herrian landu beharrekoa zela gaineratu du.

Komunikabideek esan duteenez, EAJ, EA, Aralar eta Ezker Batuak ez dute PSE-EEren proposamena atzera bota, komunikabideon arabera, EAEk atentua ez gaitzesteak "erabateko erantzuna" merezi duelako; baina ez dute ere aldeko jarrerarik azaldu eta, Joseba Egibarren esanetan, PSE-EEk "erantzukizuna" dauka EAE hainbat udaletan egoteaz.

Oraingoz, Alderdi Sozialistak Arrasaten aurkeztu nahi du zentsura mozioa, eta ez dago asmo zehatzik Euskal Autonomia Erki-degoko beste udal batzuetan antzeko ekimenik egiteko.

EAE-K JARRAITU EGINGO DU

Alderdi Sozialistak aurkeztu gura duen zentsura mozioak aurrera egiten ez duen bitartean, Arrasateko Udal Gobernuak Eusko Abertzale Ekintzaren esku geratuko da; izan ere, EAEk bere gain hartu ditu Ezker Batua-Zutik utzitako zinegotzigoak.

AZPIEGITURAK

## Aldundiak bi errepide egokituko ditu gurean

Mantentze-lanak egingo ditu GI-627 eta GI-632 errepideetan

GOIENKARIA &gt; BERGARA

Gipuzkoako Diputazioak jakinarazi du Gipuzkoako hainbat errepide konponduko dituela, tartean Debagoieneko bi bide. Lanak lehentasunezko eta oinarriko errepide sarean egingo dira.

Azaldu duenez, Eibar-Arrasate eta Leintz Gatzaga lotzen dituen G-627 errepide izango da konponduko duten galtzadetakoa bat. Bigarrena Beasain-Zumarraga eta Kanpazar arteko GI-632 errepidea da. Mantentze eta konpontze lanak dira horietan egin behar direnak. Hain zuzen, datozen bi urteetan, 14 milioi euro inguru bideratzea aurreikusi du.

LANAK, BANAN-BANAN

Gipuzkoako Diputazioak adierazi du belar-sastrakak kendu eta bazterrak txukuntzeaz gain, galtzadak garbituko dituela. Horrez gain, seinaleak, hesiak, barandak, argiak eta halako elementu funtzionalak konponduko dira eta errepideetan dauden zuloak estaliko dira.

Larrialdiez eta gorabeheraz arduratzen den 24 orduko zaintza taldea egongo dela ere aipatu du Diputazioak, istripuetako hondarrak kentzeko. Neguko bide-lanak ere egingo dira.

Mantentze eta konpontze lan horiek Gipuzkoako errepide sarean 170 kilometrotan egingo dira. Ibarretik pasatzen diren GI-627 eta GI-632 errepideez gain, Zumaia-Azkoitia-Zumarraga arteko GI-631 eta Deba eta Mutriku herriak lotzen dituen GI-638 bideak ere txukunduko ditu Foru Aldundiak datozen bi urteetan.

 kutxaZabal Deba

2008ko

ETENGABEKO  
PRESTAKUNTZARAKO PROGRAMA  
PRESTAKUNTZA IKASTAROAK 2008

**GERIATRIAKO  
LAGUNTZAILE  
DIPLOMA**

1. promozioa

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

Gizarte  
laguntzarako  
Prestakuntza



Tokia: Bergarako UNED.

Iraupena: 252 ordu (apiriletik urrira, uztaila eta abuztua izan ezik)

Hizkuntza: Gaztelania

Datak eta ordutegiak:

Hasiera: apirilaren 3an. Ostegunetan: 17:00etatik 21:00etara. Ostiraletan 17:00etatik 21:00etara.  
Zapatuetan: 9:00etatik 14:00etara

Matrikula epea:

martxoaren 1etik apirilaren 1era.

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA

Bergarako UNED. *Gizarte laguntzan Trebatzeko Eskola.*

Tel.: 943 76 90 33

Matrikula internet bidez egiteko: [www.uned.es/ca-bergara](http://www.uned.es/ca-bergara)



EGURALDIA &gt; ELURRA ETA EURIJASA

# Martxoan 297,7 litro batu dira metro koadroko, iaz jasotakoa baino gutxiago

Bergarako Narbaiza Bolu baserrian 209,5 litro batu dituzte Aste Santuko bost egunetan

Udaberria gozoa eta epela izango dela uste du Pello Zabala eguraldi iragarleak

MIREIA BIKUÑA &gt; BERGARA

Martxoaren 20an udaberria has-tearekin batera negu giroa eto-ri zaigu gurera. Egubakoitz Santuko ilargi beteak eguraldi alda-keta ekarri zuen.

Otsaileko tenporetan Pello Zabalak aurreratu moduan, euria eta elurra izan ziren protagonistak Aste Santuko oportetean. Horregatik guztiagatik, martxoaren 21etik 26era, negu osoan egin duena baino euri gehiago egin du. Hain zuzen ere, 209,5 litro ur bota zuen sei egunetan. Aldiz, 139,8 litro euri egin zuen urteko lehen bi hilabeteetan; 101,1 litro urtarrilean eta 38,7 otsailean.

Bergarako Narbaiza Bolu baserrian jasotako datuen arabera, Pazko-astelehena izan zen egunik euritsuena, 46,9 litroekin. Bestalde, Egubakoitz Santuan 43 litro egin zuen; Zapatu Santuan 35 litro eta Pazko-domekan 43,5 litro.

Aste Santu euritsua eta hotza izan dugun arren, martxoan bota duen euri kopurua iazkoaren erdia da oraingoz. "Iazko martxoan 407 litro egin zuen metro koadroko, eta aurtan, oraingoz, 297,7 litro. Azken 25 urteotan datuak



ERREKAK, HAZITA Irudian Bergarako Santa Marina parrokia ondotik pasatzen den erreka ikusten da.

MIREIA BIKUÑA

jasotzen nabilenetik, iazkoa izan zen martxorik euritsuena", azaldu digu Narbaiza Boluko Luis Mari Arregik.

Horren harira, azken 25 urteotako hilerik euritsuena 1992ko urria izan zen; hain zuzen ere, 547 litro egin zuen. "Nik ditudan datuen arabera, hilerik lehorrena 1985eko iraila izan zen. Hil osoan euri litro bakarra bota zuen", azaldu digu Luis Mari Arregik.

Azken egunotan botatako euriaren eta elurraren eraginez, errekek nabarmen hazi dira. Era

DATUA

24

ZENTIMETRO ELUR

Ilargi beteak ekarri zuen eguraldi aldaketak 24 zentimetroko elur geruza utzi zuen Arantzazun. Dena den, mendi aldean elur gehiago egin zuen: Urbian, esaterako, metro batetik gora egon zen elurra Pazko-domekan.

berean, urtegietaiko maila ere asko handitu da. Hain zuzen ere, Urkuluko urtegiaren maila %74,30 da.

ARANTZAZUN 24 ZENTIMETRO

Aste Santuan, euriaz gain, hotza ere egin du eta horrek elurra ekarri zuen ibarreko hainbat tokitara, besteak beste, Elgetara, Arantzazura, eta Leintz Gatzagara: Arantzazun 24 zentimetro-ra iritsi zen elurra, eta Urbian, metro batetik gora zegoen elurra domekan.

UDABERRI GOZOA

Neguko giroa alde batea utzita, udaberria gozoa eta epela izango dela aurreratu du Pello Zabala eguraldi iragarleak. Dena den, datozen asteak nahiko aldrebesak izango direla gaineratu du: "Denetarik egingo du hurrengo hiru asteetan, nahiko aldakor egongo da-eta. Baina eguraldia egonkortzen denean, maiatz erdialdera arte-edo, eguraldi gozoa izango dugula uste dut. Hortaz, udaberria epela eta atsegina izango da".



# LASAGABASTER

www.lasagabaster.com





IBILALDIAK Eskola umeak Leintz Gatzagako Jakion enpresan.

DEGABAOIENEN LANDA GARAPENA

LANDA GARAPENA &gt; IBILALDIAK

# Bizimodu tradizionala ezagutzeko aukera, ibilaldi didaktikoekin

Guztira zortzi ibilaldi antolatu dituzte Debagoieneko eta Debabarreneko landa garapen elkarteek, eta lau Debagoiengan izango dira

ARANTZAZU EZKIBEL &gt; BERGARA

2005. urtean hasi ziren Debagoieneko eta Debabarreneko landa garapen elkarteak *Debarroa*, *Menditik itsasora* egitasmoarekin. Helburua da eskualdeko eskola umei landa ingurunea eta ingurune horretako lehen sektoreko jarduerak ezagutzera ematea; hau da, ikasleek gure landa ingurunearekiko kontzientzia eta hurreratze jarrera hartzea. Horretarako hainbat ekintza antolatu dituzte azken urte hauetan: ibilaldiak, material didaktikoa, DVDa, hitzaldiak... Modu horretan, landa ingurunearen gizarteratzea lortu gura da Debabarrena eta Debagoiena eskualdeetan.

GAZTEEI ZUZENDUTA

Ibilaldi didaktikoekin 06/07 ikasturtean hasi ziren. Ibilaldi horiek Lehen Hezkuntzako gazteei zuzenduta daude (2. eta 3. zikloak). Deba ibaiaren arroan zehar paseatuz, bertako paisaia eta aberastasun naturala ezagutzeko aukera dute txikienek. Eta, bide batez, bizimodu tradizionalak gaur egungo bizimoduan zer eragin izan duen ulertzeko modua dute. Jarrera horrekin, sentsibi-

lizazio eta jarrera handiagoa sortu gura da lehen sektorearekiko. Horren harira, ibilaldietan parte hartzeko izena emateko epea itxita dago dagoeneko.

Jarduera desberdinak dituzten baserrietara antolatutako ibilaldiak dira. Guztira, zortzi ibilaldi antolatu dituzte: ohiko nekazaritza, gaurko nekazaritza, arrantza, elikagaien prozesua, talogintza, artzain mundua, ogintza eta ehungintza. Zortzi ibilaldi horietatik lau Debagoiengan egiten dira: ohiko nekazari-

tza (Antzuola, Lapatza baserria), gaurko nekazaritza (Aretxabaleta, Areantza-Etxeberri elkartea), elikagaien prozesua (Leintz Gatzaga) eta artzain mundua (Arantzazu, Gomiztegi baserria). "Erantzun oso ona izan dute eskola umei zuzendutako ibilaldiek; iaz, esaterako, 75 irteera egin genituen", esan du Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak Agurtzane Diaz teknikariak.

IBARREKO ESKOLAK

Eskualde osoko ikastetxeek hartu dute parte ibilaldi horietan: "Guztira 28 ikastetxe daude eskualdean, eta, gaur arte, guztiek hartu dute parte". Ikasle bakoitzak hiru euro ordaindu behar du ibilaldia egiteko.

**MUGARRI AUTOAK**

Araba Etorbidea, z/g.  
ARRASATE-MONDRAGON

Feel the difference



**FordFocus Berria**



**Focus**

**%0**

Matrikulazio zerga

&gt; GARRAIOA

## Garraio Sailak tranbiaren epeen gaineko galdera bati erantzun beharko dio datorren egubakoitzean

Garraio eta Herri Lan Saila datorren egubakoitzean, apirilak 4, da erantzutekoa Euskal Sozialistak taldeko Oscar Rodriguez legebiltzarkideak Debagoieneko tranbiaren gainean egindako galdera bati. Galdera abenduaren 14ko Legebiltzarraren saioan egin zuen Rodriguezek, eta honakoa zen: "Zergatik ez dira betetzen ari Eusko Jaurlaritza Debagoiengan tranbia bat martxan jartzeko proiektua egikartzeko epeak eta zergatik ez dauka aurreikusita hura martxan jartzeko datarik?". Euskal Sozialistak taldeak egindako hainbat galderari erantzunez, Eusko Jaurlaritzak lehendik esan zuen ez daukala aurreikusita datarik Debagoieneko tranbia martxan jartzeko, eta onartu zuen ez dela epeak betetzen ari.

&gt; EUSKARA

## Bosgarren urtez Hizkuntz Eskubideen Eguna ospatuko da apirilaren 6an Atarrabian

Urratsez urrats Euskal Herri euskalduna eraiki lelopean, Euskal Herrian Euskaraz erakunde euskaltzaleak datorren apirilaren 6rako V. Hizkuntza Eskubideen Eguna antolatu du Atarrabian. EHEren ustez, "bada garaia eskubide urraketak gainditu eta Euskal Herri euskalduna helburu izango duen hizkuntza politika garatzen hasteko".

Atarrabiara joan nahi duten debagoiendarrendako autobusa antolatu dute. Apirilaren 6an, 10:00etan Arrasateko Garibaitik aterako da. Bertara joan nahi dutenek ondorengo lekuetan eman dezakete izena: Aretxabaletan, Urbaltz tabernan; Arrasaten, Irati tabernan; Bergaran, Arrano tabernan, eta Elgetan, gaztetxean.

&gt; PROTESTALDIA

## ELAK elkarretaratzea egingo du gaur, "Aita Mennik daukan azpikontratazio politika" salatzen

ELA sindikatuak deituta, kontzentrazioa egingo dute, gaur, egubakoitza, 12:00etatik 12:30etara Arrasateko Aita Menni ospitalearen atarian.

Gaurko kontzentrazio honekin sindikatuak "Aita Mennik zerbitzuak azpikontratazeko daraman jarrera" salatu nahi du. Ospitaleak, zerbitzu batzuk azpikontratatu ditu, eta orain beste bat azpikontratatu du, ikuztegiak, sindikatuaren arabera. ELAko iturriek gehitu dutenez, "egoera honek suposatuko luke, alde batetik, langileen baldintzak eskasagoak izatea, eta bestetik, erabiltzeengan ere izan dezake eragina, zerbitzuen kalitatea eskasten baita modu honetan".

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA  
FACULTAD DE CIENCIAS EMPRESARIALES

**PREST**

**MONDRAGON**  
UNIBERTSITATEA



**ATE IREKIAK!**

APIRILAK 5 10:00-13:00 larunbata **ARETO NAGUSIAN**  
OÑATIKO CAMPUSA Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu

APIRILAK 3 18:00 asteazkena **ARETO NAGUSIAN**  
BIDASOAKO CAMPUSA Tel.: 943 63 91 29 // aallur@bidaso.eteo.mondragon.edu

**ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!**

**Ondoko titulazio hauek eskaintzen ditugu:**

- > Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Gradua
- > Zuzendari Idazkaritza

**WWW.ETEO.MONDRAGON.EDU**



German Muruamendiarrak > Sukal Lekuko zuzendaria

# "Goi mailako sukaldaritza ikasketak bideratzeko Murekin lanean dihardugu"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Sukal Lekuko zuzendaria da German Muruamendiarrak bergararra. Euskal Herriko gastronomiaren ondarea eta berrikuntza sustatzea helburu dituen fundazioaren nondik norakoak azaldu dizkigu.

## Zer da Sukal Leku?

Jatekoaren eta gastronomiaren inguruan gauza asko daude abian: sukaldariak, sukaldaritza eskolak, erakunde publiko eta pribatuak... Baina orain artean ez zegoen erakunderik horiek guztiak elkartuko zituena eta erreferente izango zena; hori da Sukal Leku izan nahi duena.

## Nor dago Sukal Leku Fundazioaren atzean?

Sukal Lekuren lau hankak dira Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura eta Industria Merkataritza eta Turismo Sailak; Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza Saila; Donostiako Udala; eta Sukaldarien elkarteak.

Administrazioa sartu da batek, elikagaien alderdiari nolabait bultzada emateko; bestetik, turismoari dagokionez, gastronomia turismorako sekulako heldulekua delako. Donostiako Udalarekiko dugun lotura eraikina bera da eta sukaldarien elkarteak euren irudiarekin bultzada ematen dio elkarteari.

## Zein dira Sukal Lekuren lanildoak?

Ezagunenak, orain arte egindakoak, herri-ekimenak dira, sukaldaritza ikastaroak batik bat. Baina gauza berriak datoz beste arlo batzuetan. Gastronomia kontuetan nazioarteko aitzindaritza eta presentzia garrantzi eta bultzatu nahi da. Hemen sukaldariak ospea dute mundu zabalean, baina kontuan hartu behar da beste leku batzuetan ere egiten direla gauzak. Pribilegio egoera aprobetxatu behar dugu komunikazioa, harremanak... landuz. Gastronomia kultura gizartera hurbildu eta zabaldu nahi dugu ogibideari ospea emanez eta profesionalak sortzeko bokazioak bilatuz.

Heziketa ere bultzatu nahi dugu gastronomian. EAEn hamar sukaldari eskola daude, horietatik gazte asko irteren da eta jarraipena egin nahi dugu euren eta sektorearen baldintzak duinak izan daitezten. Bestalde, sukaldaritza arloko unibertsitate ikasketarik ez dago eta Mondragon Unibertsitatearekin lanean dihardugu goi mailako ikasketak bideratzeko.

Berrikuntza eta ikerketa arloan norberak badihardu berean baina gure nahia da elkarlanean ere jardutea. Horretarako, tekno-



German Muruamendiarrak Sukal Lekuko egoitzako sukaldean.

SUKAL LEKU

logia zentroekin, unibertsitateekin eta elikagai industriarekin egin behar dugu lan.

Plan estrategikoa gertatzen dihardugu. Arlo bakoitzean talde bat sortu, ideiak landu eta datoren urterako proiektuak eta ekintzak mahai gainean egotea nahi dugu.

## Koldo Lasa eta Alberto Elortza elkarteko kide

Sukal Lekuren baitan administrazioaz gain, sukaldarien elkarteak ere badu bere ordezkaritza. Lehendakaria Juan Mari Artzak da eta elkarteko kideen artean badira ibarreko ordezkariak ere: Koldo Lasa Bergarako Lasa jatetxekoa eta Alberto Elortza Oñatiko Zelai Zabalekoa, hain zuzen ere. Sukaldariak batzen dituen elkartean 70 lagun inguru daude; EAEkoak ez ezik baita Nafarroakoak eta Iparraldekoak ere. Elkarte modura ekintza askorik egiten ez duten arren, beti daude gertu lanerako eta laguntzeko. Sukal Lekuren egoitza, Intxaurren doko Yvette etxea euren etxea ere bada.


## Oro har zein maila dago Euskal Herriko sukaldaritzan?

Izen handi batzuek badauzkagu sukaldarien artean, baina datozen belaunaldiak ere indartsu datoz eta nahi dugu horiei protagonismo gehiago ematea. Sukaldari gazteak, gainera, gertu daude laguntzeko eta etorkizunerako bidea lantzen joan behar dugu. Sukaldaritzan bakar daderako joera handia dago eta gure eginkizuna da identifikatzea non dauden sinergiak eta aukerak elkarlanerako.

## Etorkizunerako zein asmo duzue?

Helburuak definitu behar ditugu eta horiek lortzeko zein estrategia erabili eta zein ekintza zehatz egin behar dugun ikusi. Horretarako, antzerako beste esperientzia batzuk ezagutu behar ditugu, asko ez dauden arren. Ferran Adriaren inguruan badago talde bat sortua Katalunian. Eredua gurearengandik ezberdina da, baina badugu zer ikasia. Badira beste esperientzia batzuek Laussanan, Norvegian... Askotan uste dugu kanpotik gurea etortzen direla ikastera, baina guk ere ezagutu beharra badugu kanpokoa. Hemen, sukaldaritzan gain, jende arruntak daukaguna da gastronomia kultura eta jantzi-erakundearen ardura.

## kontsumoa



Azken urteetan igo egin dira internet bidezko erostenak.

GOIENKARIA

## Internet bidez atzerrian erostenak egitean kontuan hartu beharrekoak

J.Z. > BERGARA

Erosketak online egiteak eraginkortasun eta segurtasun aldetik bermeak eskaintzen dituen arren, erosketa beste herrialdeetako enprekin egiten bada, hainbat kontu hartu behar dira gogoan, ezusteko mingotsik ez izateko.

Merkataritza elektronikoa hazten ari da: Espainian, %16 handitu zen 2005ean, eta 2006an %30 hazi eta 2.800 milioi euro fakturatu zuen. Azterlariaren iritziz, une hauetan Espainiako merkataritza nazional osoaren %1era iritsi da, Estatu Batuetan hartu duen mailara (%5) oraindik gerturatu ez baldin bada ere. Geroz eta ohikoagoa da autoa on-line alokatzea edo agentzia birtual batean hotelaren erreserba egitea edo sarean dabilzan operadore ugarietako batean hegaldea erostea. Ustekabeko desatsegini ez izateko, hobena da zer eta non erosten dugun ondo jakitea. Halako erosketentzat Espainian dago kontsumitzailearen legebabesik handiena.



## Segurtasun uhala ez erabiltzeagatik 6.700 gidaririk isuna

Trafiko Zuzendaritza Orokorra (TZO), 8.538 isun ipini ditu segurtasun uhala erabiltzeko egindako kanpian. Guztira 825.551 auto kontrolatu dira segurtasun lege hau betetzen duten hala ez ikusteko. TZOk emandako datuen arabera, 6.738 gidarik ez zeramaten segurtasun uhalik, ezta 1.536 bidaiarik (aurreko eserlekuetako 1.027 eta atzeko eserlekuetako 509). Bestalde 12 urte baino gutxiagoko 264 neska mutikok ez zeramaten beharrezkoa duten segurtasun sistema.



## Gurasoen %32k laguntzen dute eskolako jardueratan

Gurasoen orokorrean ez dute parte hartze handirik izaten seme-alaben eskolako jardueretan. Lehen hezikuntzan bigarren hezikuntzan baino handiagoa da parte-hartzea. Seme-alabek jasotzen duten laguntza hau txikiagoa da ijito edo etorkinaren diren familietan. Hala eta guztiz ere, Europako Batasuneko familiak dira parte hartze handiena erakusten dutenak, eta Hego Amerikakoak, gero. Hirugarren multzo batean Europako ekialdekoak egongo lirakete.



## gure artekoak

**TOYOTA PRIUS** > Toyota etxeak Arabako Errioxan aurkeztu zuen Toyota Prius autoa, Eltziegion hain zuzen. Eta autoaren teknologia hibridoa azpimarratu zuten bertan egon ziren Toyotako arduradunek.

Patxi Irastortza > Eusko Autoko arduraduna

## Gasolinaz edo elektrizitatez dabilen motorra, aukeran

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Hilabete honetan bertan aurkeztu dute merkatuan Toyota Prius berria; hain zuzen ere, hilaren 12an, Marques de Riscal Hotelean (Eltziego) egin zuten autoaren aurkezpena.

Aurkezpenean argi utzi zuten auto berriaren eta, orokorrean, Toyotaren helburua ahalik eta auto ekologikoenak egitea dela. Hala, azken urteetan Toyota etxea teknologia berriztagarrien alde egiten dabilen lana azaldu zuten Eltziegion.

### TEKNOLOGIA HIBRIDOA

Toyota motorren ikurretako bat da teknologia hibridoa; 1977an hasi zen Toyota etxea teknologia hori erabiltzen. Ordutik hona hainbat berrikuntza eta aurrerapen egin dituzte.

Toyota Prius berriak, esateara, gasolinaz eta elektrizitatez dabilen motorra erabiltzeko aukera ematen du. Motorra batera bitartez kargatzen da. Modu horretan, gutxiago gastatzen da eta ingurumena zaintzen da. Adibidez, 45 litro gasolinarekin 1.000 kilometro egiteko aukera ematen du. Motor horren berezitasuna da aldapa beheara ez duela gasolinarik gastatzen, bateria baizik. Hala, autoaren CO2 isurketen maila oso txikia da: 104 g/km.



Patxi Irastortza, Toyota Prius automobil berri-berriarekin.

MIREIA LARRAÑAGA

### Toyota Prius 1.5 HSD 5p

Prezioa	24.500 euro
Luzera	4,45 metro
Zabalera	1,72 metro
Maletategia	408 litro <sup>(1)</sup>
Kontsumoa	4,3 litro /100 km <sup>(2)</sup>
Abiadura	170 km/h <sup>(3)</sup>
Otik 100era	10,9 seg.
CO2 isurketak	104 g/km

(1) Gehienezko edukiera  
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta  
(3) Gehienezko abiadura

Isurketa horiekin, Toyota Priusek ez du zertan matrikulazio zergarik ordaindu. Horrez gainera, beste gas isurketetan ere oso maila txikiko autoa da (HC, NOx, PM...).

### BARNE DISEINUA

Diseinuari dagokionez, autoak diseinu berritzailea dauka, bai barnealdean, bai kanpoaldean. Barnealdeari dagokionez, atzeko eserlekuak eraisgarriak dira. Modu horretan, atzealdea ohe bihur daiteke Toyota Prius berrian. Aurtengo helburua 2.000 auto saltzea izango da.

## etxeke leihotik



Iban Arantzabal > Goienako ikus-entzunezkoen zuzendaria

## Oillartu egin bihar jako euskeria herrigintzari

Euskaldunona gaixotasuna da. Aste Santu duntsuan Miarriztera juatekuak giñala: "Hi, inkesta soziolinguistikuan jarraitu bihar dok?". Adarra joten doste lagunek ze Bilbon letxe Miarritzen lehenengo berbia euskeraz egitteko ohitturia daukat. Euskaldun-ehizan-edo jardutia-kin be badaka zerikusixa, inkesta soziolinguistikoko ez-zientifikua.

Miarrizteko turismo buleguan egin giñuan Ordorika eta Scott ikusteko sarreraren tratua, euskera hutsian. Karu, baiña euskeraz. Astian bertan Itziarko gasoliñeran bete giñuan depositua eta hango makiñiak: "Ongi etorri. Aukeratu duzu..." eta "...eskerrik asko" euskera hutsian egin zittuan berbok. A8xan posible dana Arrasaten: "Eskerrik asko, gracias".

Konturatuta nago, baiña, neurketa egin bihar hau gaixotasuna dala. Horregaittik joko doste adarra lagunek. Hala eta be, mapiak edo mugek baiño garrantzi haundixagua dauka euskeriak. Herri izateko darabilgun inddarra jarriko bagiñu euskaldun izateko... Inportantzia haundixagua emon bihar gontzake hizkuntzai.

**"Mapiak edo mugek baiño garrantzi haundixagua dauka euskeriak"**

> **A. Epaltza:** Erakunde munduan ez ezik, kanpokoan eta are erakunde kontrakoan ere, euskalgintzak eta herrigintzak elkarrekin talka egiten dutenean, lehenbizikoa ateratzen da galtzaile.

> **Xalbadorrek eta Laboak:** Ez dut osorik hartu baten parabola, erderaz mintza baitzen, berak jakin nola: gure herri maitez zuela axola... "Gora Euskal Herria", frantsesez ziola.

## begi-bistan



### Zenbat falta da Arantzazura iristeko? (Oñati) 2008/03/27

Argazkia: Mireia Bikuña.  
Testua: Mireia Bikuña.

Oñatiko sailhesbideko biribilgunean dagoen seinalean ez da ikusten Arantzazura eta Arrikrutze-ira iristeko zenbat kilometro falta diren. Zuhaitzaren adarrak moztu beharko lituzkete.

### Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxo bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Aitor Arregi**

FUTBOL JOKALARIA



**Edu Muruamendiaraz**

DANTZARIA



**Felix Sanchez**

ARGAZKILARIA

Gipuzkoako selezioarekin jokatu du Bergarako jokalaria. Agorrosinen, Bartzelonaren aurka jokatutako lehia Realak antolatutako futbol txapelketakoa zen. Atzeko lerroan jokatzen duen bergararrak gazteen nazional mailan jokatzen du Urko taldean.

Bergarako dantzariak zuzentzen duen Aukeran dantza taldeak 10. urteurrena bete du. Horren harira, euskal dantza tradizionala eta oraingo dantza uztartzen dituen ikuskizuna gertatu dute, *Aukeran 10 urteizenekoa*. Bihar estreinatuko dute, Donostian.

Oñatiko argazkilaria *Multitud* izeneko argazkiarekin bigarren saria irabazi du Gasteizko maratoni erdiaren inguruan antolatutako lehiaketan. Bestalde, azaroan, Kirolgik antolatutako lehiaketa irabazi zuen Naroa Agirrerri egindako argazki batekin.



Espainiako Gerran lau bonbardaketa jasan behar izan zituen Jesus Moreno arrasatearrak:

Elorriokoa, Durangokoa, Gernikakoa eta Turtziozekoa, hain zuzen. Azken horretan zauritua

izan zen eta gaur egun, oraindik, buruan metraila du. Horrekin bizitzen ikasi du. Gerra

garaian bizitakoa kontatuko die hemendik gutxira Arizmendi ikastolako ikasleei.

**Jesus Moreno** > Espainiako gerratik bizirik irtendakoa

# "Ez diot inori opa gerra bat bizi izatea, eta are gutxiago, neska-mutiko bati"

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Jesus Moreno arrasatearrak bederatzi urte baino ez zituen Espainiako gerra hasi zenean. Ama eta beste hiru anai-arrebekin batera Arrasate utzi behar izan zuen eta orduan ikusi zuen gerra batek eragiten duen hondamendia. Horrelakorik ez diola "inori desiratzen" aipatu du. Oraindik hunkitu egiten da garai hori gogora ekartzean.

**Ume bat zinen Espainiako Gerra hasi zenean. Arrasate utzi eta Elorriora joan zinen lehenengoz. Ez da horrela?**

Bai, hala da. Justo aita Loiola batailoian aurkeztu zen eta amak eta anai-arrebek atzean utzi genuen Arrasate; Elorriora joan ginen, Eizagirre pilotariaren etxera. Bergarako beste bi familiarekin batera geunden. Anai txikiak han jaio zen. Egun batean kanoikadak hasi ziren eta justu-justu libratu nintzen, metraila ukitu nuen-eta.

**Beldurtuta handik Durangorantz abiatu zineten...**

Hasieran ondo moldatu ginen Durangon, Rosa Matuteren etxean. Gose ginen baina lasaitasuna zegoen, behintzat. Baina, azken horrek gutxi iraun zuen. Martxoaren 31n herria bonbardatu zuten. Goizean, San Jose elizako atarian itxoiten nengo, noiz sartzeko zain. Matuteren semea barrua zegoen eta bat-batean hegazkinak heldu ziren eta dena bonbardatu zuten.


Mañarirantz ihes egin genuen orduan eta bidean, pinudi batean sartu behar izan ginen, hegazkin batetik metrailatu gintuzten-eta. Amaitu zenean, bakoitza bere aldetik joan zen. Guk zortea izan genuen, Mañariko baserri batean geratu ginen-eta.

**Arratsaldean bigarren bonbardaketa bat izan bazen ere, Durangora joan behar izan zinen berriro. Zer dela-eta?**

Rosa Matuteren semea falta zen eta gau batean, ama eta biok, kanposantura joan ginen eta amak Matute jaunaren gorpua ikusi zuen. Nik ezin izan nuen ikusi, ume bat nintzelako.

**Mañaritik nora joan zineten?**

Gernikarantz. Hango bonbardaketan ez genuen hainbeste arrisku izan, baserri batean geunden-eta. Gernikakoa gogorra izan zen, azoka eguna zelako, baina niretako Durangokoa okerragoa izan zen.



Irudian, Jesus Moreno arrasatearra, Espainiako gerrak utzitako hondamendien argazkiak erakusten.

MIRIAN BITERI

**Laugarren bonbardaketa bat jasan behar izan zenuen Turtziozen. Horretan zauritua izan zinen gainera...**

Hala da. Villaverdeko markesaren etxean egon ginen. Hara iritsi eta handik gutxira Bilbo hartu zuten. Egun batean, marmitarrekin baserri batera esnea hartzera nihoala, sei hegazkin ikusi nituen hurbiltzen. Pinudi baten azpian ezkutatu nintzen. Jarraian, bonbardaketa hasi zen. Bonba batek buruan eman zidan. Karrantzako bainuetxean osatu nintzen. Baina, oraindik metraila dut buruan.

**Eta handik aurrera zer?**

Santanderrera joan ginen; handik, Cabezon de la Salera eta gero, berriz, Santanderra itzuli. Frantziara eraman gintuen itsasontzia hartu genuen han. Zazpi hilabetez egon ginen Montelimairen. Kuartel batean bizi ginen eta patioan funtzionatzen ez zuten bi eserleku elektriko eta kanoiak zeuden, besteak beste. Bizimo-

DURANGO

**"Martxoaren 31n, San Jose elizako atarian itxoiten nengo, noiz sartzeko zain. Dena bonbardatu zuten"**

TURTZIOZ

**"Karrantzako bainuetxean osatu nintzen. Baina, oraindik metraila dut buruan"**

GAZTEAK

**"Jendeak gerra bat zer den jakin dezala nahi dut. Gaur egungo gazteek ezer gutxi dakite gerraz"**

dua ere oso gogorra izan zen Frantziaren. Handik Kubara joatekotan egon baginen ere, azkenean Arrasatera itzuli ginen, aita berriro ikusteko itxaropenarekin.

**Gogorra izango zen urteetan aitaren berririk ez izatea...**

Oso gogorra. Frentean zegoen eta ez geneukan inongo berririk. Arrasatera itzuli eta handik bi urtera, Valentzian zegoela jakin izan genuen; etxera bueltatu zen. Gose asko pasa genuen. Etxean hamahiru pertsona geunden eta inork ez gintuen nahi, ez eskolan eta ezta lantegietan ere.

**Urte asko pasa dira eta oraindik, bizi izandako guztia gogoratzean hunkitu egiten zara...**

Bai. Gerra garaian egondako tokietara joaten naizenean, dena datorrit burura. Gainera, zarata bat entzun orduko, urduritzen naiz. Buruan geratu da betiko, metraila bezala.

Gerra bat negargarria da, gosea, beldurra eta hondamendia

baino ez dago. Oso gogorra da eta asko sufritzen da. Hildako asko ikusi ditut nik. Ez diot inori desiratzen, eta are gutxiago neska-mutiko bati.

**Gerra garaiaz berba egin behar diezu hemendik gutxira Arizmendiko ikasleei. Zer dela-eta?**

Jendeak gerra bat zer den jakin dezala nahi dut. Zerbait egin beharra dagoela sentitu nuen, gaur egungo gazteek ezer gutxi dakite gerraz. Nik neuk azaltzea pentsatu nuen. Arizmendi ikastolako ideia ona iruditu zitzaion. Bada, oraindik ez dakit noiz joango naizen hitzaldiak ematera.

Horrez gain, jendeak ideia bat izan dezan, Durangoko bonbardaketaren 70. urteurrena oroitzeko iaz egindako *Martxoak 31. Durango, isildutako bonbardaketa* dokumentala ikustea gomentatzen dut. Hor ederki azaltzen da-eta bizitako guztia. Hunkigarria da, benetan.





zabalik

Oskar Elizburu

## Gurian bai

Hagiñetako miñakin esnatu naiz. Bakaziñuen osteko ajia edota berrero biharriari hasi biharriaren sindromia, seguru! Aho zabalik eukitzen zaittuenarenera juatia ez dot bape gustuko; normala, ezta? Dana dala dentistiarenera jua, hartuko nabean galdetu, eta lekutxo bat eingo dostela entzun ostian, itxoingelan itxoin bihar.

Mahai gaiñian makiña bat aldizkari ikusi dot eta errebitsiari ekin dotsat, ia irakurri barekorik topatzen neban, denboria aguro pasau dein zeozer egitten egotia da onena izaten da eta.

Ezustekua jaso dot baina! Aibala! Aldizkari andanaren artian euskarazko 3 zeren. Bat oso ondo ezagutzen dot, lanian hillero irakurtzen dotelako eta beste bixak ez ditut normalian irakurtzen. Bat hartu dot eta ederto baten egon naiz artikulu barregarri eta interesgarri bat irakurtzen, komiki eta guzti zeterren gaiñera! Seguru ez dirala 4 minutu baiño izan, aguro pasau jatalako denboria, eta erizaiñak deitu dostanian tortura gelara jua bihar.

Haginlarixa aho barruan begira ziharduen bittartian pentsatzen egon naiz itxarongelan euki doten aukeriaren gaiñian, euskeraz irakurtzekua jakiña, eta esan dot neure artian "hemen be badago zeozer aldekoa, eskerrak!".

Publikua dabillen lekuetan euskeria erabiltzeko eta euskeriaz gozatzeko aukeria euki bihar genduke, publikuetan eta pribatuetan. Bertaratzen garenon eskubidia da, bezeruok jaso biharreko zerbitzu gutxieneuen artian egon bihar da hori. Euskeraz bizi nahi dogunok naturaltasunez erabili daigun, bidaiek erraztia da bidia.

Klinika horretan pausotxo bat emon dabe normalizaziñuan; Noizko leku guztixetan GURIAN BAI?

**"Aibala! Aldizkari andanaren artian euskarazko hiru zeren"**

**"Publikua dabillen lekuetan euskeria erabiltzeko aukeria euki bihar genduke"**

## Goienkaria

**Argiriratzalea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailletako arduradunak** Leire Kortabarría (Herriak), Aitziber Aranburuzabala (G2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larratx Zeberio, Arribu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Ixaso Berezibar, Fausto Berazadi **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

### EGOITZA NAGUSIA

**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

### ORDEZKARITZAK

**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00  
Posta-e: arrasate@goiena.com

**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09  
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.



OID erakundeak  
ikuskatutako astekarria

### LAGUNTZAILEAK



Eusko  
Jaurilaritza



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Bergarako  
Udala



Oñatiko  
Udala



Aretxabaleto  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Aramaioko  
Udala



Elgetako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala

## herritarrak galdezka

ZER EGIN BEHAR DUGU LTD BIDEZ TELEBISTA IKUSTEKO?  
**Irakurle batek bere kezka azaldu digu eta ondorengo hausnarketa egin du: 2010. urtean lurreko telebista digitala (LTD/TDT) sartukoda indarrean, eta, beraz, sistema hori etxean ez dutenek ezin izango dute telebista ikusi. Zer egin dezakegu horren aurrean?**

Lurreko telebista digital sistema berria gure etxeetan izango dugu 2010. urtetik aurrera eta derrigorrezkoa izango da edukitzea telebista ikusi ahal izateko. Telebista zaharra duenak telebista-hargailu bat ipini behar du etxean telebistaren ondoan. Telebista berria erosten duenak, berriz, barnealdean izango du telebista-hargailua.

Edozeinentzat eskuragarri dauden aparailuak izango dira LTDak, eta, DVDen antzera, gero eta merkeagoak izango dira. Gauza guztiekin gertatzen den moduan, eredu asko aterako dira poliki-poliki merkatura, marka pilo bat. Batzuk, deskodetzeko aukeraz gain beste aukera batzuk ere izango dituzte. Beste batzuk, berriz, telebista kateak ikustea

ahalbidetuko dute bakarrik. Guzti horretaz gain, etxebizitzako antenan ere— antenak zaharrak diren kasuan— amplifikadore digitala ipini beharko dute. Herrietara seinalea eramaten duten errepikatzaileei ere egokigailu bat ipini beharko zaie seinalea behar den bezala iristeko. Beraz, etxeko telebista zaharra bota eta telebista berri bat erosi behar zutela uste zutenek ez dute horren beharrik izango.

### Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

TENIS PISTAKO ALOKAIRUA ETA TASAK ORDAINTZEA  
**Bergarako irakurle batek Labegaraietako kiroldegiko tenis pista erabili nahi du, eta jakin nahi du zeintzuk diren prezioak eta nora joan behar duen alokatzeko izena ematera.**

Labegaraietako tenis pista alokatu edo beste edozein kirol instalazio alokatzeko Agorrosinera joan beharra dago. Tasei dagokienez, abonatuak direnek eta ez direnek desberdin ordaindu behar dute. Horrela, abonatu izanda tenis pista ordubetez alokatu nahi dutenek, baina argirik gabe, 3,2 euro ordaindu beharko dute, eta ez abonatuak, berriz, 3,6. Ordubete hori argiarekin egin nahi izanez gero, abonatuak 5,5 euro ordaindu beharko dute eta ez abonatuak, berriz, 6,1.

Hilabeteko erreserba eginez gero—asteen ordu bat argirik gabe—, abonatuak 11,2 euro ordaindu beharko dute eta ez abonatuak, berriz, 12,6. Hilabeteko erreserba, astean ordubete, argiarekin, abonatuak ordaindu beharko dute 19,25 euro eta ez abonatuak, berriz, 21,35.

## marrakiz

Alex Ugalde



## Tibet free

Leire Narbaiza  
<http://eibar.org/blogak/leire>

Gar olinpikoak hasi du Pekinerako bidea. Tibetarren protestak ere hasi ziren pasa den astean. Tibetarrek askatasuna nahi dute, ez baitute horrelakorik inoiz ezagutu. Badirudi iritzi publikoa alde dutela; hala ere, beti dago norbait txinatarren nagusitasuna defendatzen duena, esklabutza deuseztu duelakoan. Bestela, irakurri artikulua. Bertan kontatzen du Tibet duela 700 urte dela Txina.

Bai, Trebiño Burgos den bezala. Baina Trebinarrek gaztelarrak dira, nahiz eta hori jarri paperetan?

Lamek esplotatuko zituzten, ziur nago. Kasta sistemak, berriragiztatzean oinarritutako erlijioak, lagunduko zuen esklabutza ezartzen eta mantentzen, baina Txinako gobernuak ere ez da ona izan. Euren adierazpe kulturalak debekatu daude (gutxi eta kontrolatu batzuk izan ezik), txinatarren emigrazioa sustatu dute, tibetarrak euren lurraldean gutxiengoa izan arte. Dalai Lamaren lidergoa ere zalan-tzan jarri dute, salatu dute

aprobetxatu dutela joko olinpikoak Txinan izango direla protestak egiteko. zein gaiztoak diren tibetarrak, alajaina!

Pekingo gobernuaren nahia gar olinpikoa Tibetetik pasatuta, Everest tontorrera igo nahi dute. Horretarako, Everesteko igogarak debekatu dituzte, baita Nepalgo gobernuak presionatu ere, gauza bera egin zezan.

Txinak ez ditu giza eskubideak errespetatzen, baina hori ez da oztopo mundu "demokratikoko" agintari guztiak goxogoxo egoteko berarekin. nork egingo dio aurre horrelako



## plazara

Hezur muin emateen alde lan egiten duen Iturrigorri elkarteko kide Jon Goikoetxeak garbi dauka hezur muin emaile bihurtzea hurkoari

laguntzea den neurrian, nork bere buruari laguntzea ere badela. Artikulu honetan emate mota horrek duen izen txarrarekin buka-

tu nahi du eta dauden mito okerrerekin apurtu. Horrekin batera, euskaldunok emaile egitearen garrantziaz ere mintzo da.

Jon Goikoetxea \*


## Hezur muin ematea, bada garaia

**D**onazio kontuez hitz egiten hasten garenean, euskaldunok laster esaten dugu munduko emaile hoberenak garela, eta bai, odol eta organo kontuetan, agian, munduko onenak ez, baina onenatarikoak bagara. Hemen oso solidarioak garela ere esaten dugu, eta nik ere horrela dela uste dut, baina orduan, nola utzi dugu hezur muin donazioa hain abandonatua?

Emate mota hau nahiko berria da, transplanteak ugariak izan daitezten, emaile kopuru handiak eskatzen dituen emate bat da, eta gainera emaile horietatik –euren bizitza osoan– %2k bakarrik egiten du emate efektibo bat, hau da, urtero 1.200 emailetik batek ematen du bere hezur muina. Gaur egun, 12 milioi hezur muin emaile daude munduan zehar, eta horiei esker, 10.000 gaixok, beraien gaixotasunak gainditzeko aukera dute. Mundu osoan 120 milioi emaile egongo balira, 100.000 pertsonak izango lukete aukera berdina.

Emate hau egin ahal izateko, HLA deituriko geneetan bateragarritasun genetikoak izatea beharrezkoa da, eta hemen dugu bada euskaldunok gure arazorik larriena: hurbiltasun genetiko oso garrantzitsua da –anaien artean 4tik 1 bateragarria izaten da–; hala, ingurune hurbilean emaile bat aurkitzea askoz ere errazagoa da, beraz, argi dago euskaldunontzat emaile euskaldun ugari izatea dela garrantzitsuena, baina ugari al gara?

Gaur egun Txipreko populazioaren %12 da hezur muin emai-



OXEL ARRIETA

le, Israelen %6, Alemanian %3,6, Portugalen %1 eta Euskadin eta Estatuan %0,12 besterik ez.

Arrazoiak ugari dira: emate hau arriskutsua izan daitekeelako mitoa, eta Osasun publikoak emate berri hau abandonaturik eduki izana, besteak beste.

Baina hezur muin ematea, odol ematearen oso antzeko gauza bat da eta bi era daude: bate-tik, aferentzia. Hau da, 3 ordu inguruko dialisi antzeko batez, zure odolean dauden zelula amak (hauek dira benetan ematen direnak) banatzen dituzte makina batekin eta etxera; eta bestetik, orain dela gutxira arte gehien erabiltzen zena, eta izena eman diona; hezur muin ateratzea, hain

**"Ematea egin ahal izateko bateragarritasun genetiko beharrezkoa da eta horretarako hurbiltasun genetiko oso garrantzitsua da"**

**"Hezur muin ematea odol ematearen oso antzeko gauza da eta bi modu daude"**

justu. Hori, epidurala eman eta mokorreko hezurretik hezur muina ateratzea datza –ez bizkar hezurretik, jende askok uste duen bezala–. Horrela salbatu dezakegu bizitza bat, ez da besterik.

Ez gaude ados espainiar estatu osoan gai honi ematen zaion tratamenduaz, jendeari beldurra sartzen ahalegintzen dira, dokumentu beldurgarri eta irrazionalak irakurraraziz emaile potentzialei, erraztasunik bat bera ere eman gabe. Adibidez, Deba bailaratik Gasteizeraino joan behar dira lan egun baten, emaile izan ahal izateko.

Guk berriz, odol elkarreak emateak batzera etortzen direnean hezur muin ematea ere eskaini dezatela eskatzen dugu, bailarako ospitaletan ere aukera bera izatea, eta dokumentu zaharkituak erretira ditzatela, beste herrialde batzuetan dauden antzekoak irakurraraziz, eta abar.

Gai hau orain dela gutxira arte etorkizuna zen, baina gaur orain da jadanik; genetika osasun munduan sartzen ari da ikeragarrizko indarrez, aplikazio sinestezinak ditu. Hala, atzera gelditu behar gara gure osasunaz hitz egiten ari garenean?

Garrantzitsuena, berriz diogu, euskaldunok hezur muin emaile izatea da, guretzat lan egingo dugu, mundu osoa ahaztu gabe. Gutako edozein gaixotu daiteke, zoritxarrez, eta denok gara beharrezko gai hauetan. Animatu!

\*Jon Goikoetxea, Iturrigorri elkarteko kidea da

## zer deritzo zu?

www.goiena.net

## Barack Obama iritsiko da presidentziara?

BAI	%80
EZ	%20

### > OBAMA IRABAZLE

Clinton eta Obama arteko lehian Obama ateratzen bada garaile, errepublikarren aurka ere berak irabaziko du. Obamak konfiantza gehiago sortzen du.

Mikel

### > EZ ZAIT AXOLA

Ez zait batere axola Obama presidentziara iritsiko den edo ez. Demokraten arteko borrorak barregura ematen dit. Alderdi berean liskarretan dabilzan bi pertsonak nola gobernatuko dute?

Ander

### > EZETZ USTE DUT

Bill Clintonek utzi zuen itzala handia da eta nire ustez horretaz aprobetxatu daiteke Hillary Clinton Estatu Batuetako presidentzia lortzeko.

Ane Miren

### > ONDO GOBERNA DEZALA

Benetan ez zait asko axola, baina irabazten duenak irabazten duela, ondo gobernatu dezala.

Itziar

### DATORREN ASTEKOAK: Eroaten duzu umea liburutegira?

Eman zure iritzia [www.goiena.net](http://www.goiena.net) atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

- top

potentzia bati? Nork egingo dio uko ekonomia berri horri? Nor jarriko da kontra, denak batera salto eginez gero itzelezko lurrikara sortzeko modua badute! :-)

Gutxiagotatik AEBek inbaditu zuten Irak. Eta boikota egin zitzaion Hegoafrikari apartheid sasoian. Kubak ere jasaten du blokeoa alderdi politiko aniztasun ezagatik. Txinak, baina, mila eta berrehun milioi pertsona dauzka; hau da, 1200 milioi kontsumitzaile....eta la pela, es la pela!

Tibet free ondo dago, baina onena litzateke tibetarrak

libre! aldarrikatzea, eta gauzatzea!

## Metafora

Angel Lertxundi  
[www.berria.info/blogak/lertxundi](http://www.berria.info/blogak/lertxundi)

**U**daberriak negua ekarri du. Edo, metafora pertsonalizatuz, udaberriak negua ekarri digu. Aberri Eguna ospatu berri, irakurleari berehala bururatuko zaizkio metaforaren aplikazio politikoak; datorkiguna beltz pintatzen duten arrasto eta ebidentziak. Oporrak bukatu berri, irakurleari aise

bururatuko zaizkio aplikazio sozialak ere; edo aisiari buruzkoak. Denok ere zahartzen ari baikara, metaforak sujeritzen ditu aplikazio biologiko psikologikoak ere, beren zama ironiatsurekin eta guzti. [...]

OHARRAK (post scriptum): "Udaberriak negua ekarri du" esaldiak ekarri dit zutabea, nabarmena da. Politikaren uztarriari lotuta, abertzaleentzat modu jakin batean balio dezake metaforak. Baina metafora guztiek baitute beren ifrentzia, sozialistek oso bestela ikusten dute datorren panorama.[...].

## koplak

Eñaut Uriarte

## Berriz lanera

Pazkoko jaixa geratu jaku gainbehera edo galeran dudatan nago Aste Santua oso santua ote dan.

Jakin nahiean nere galdera momentu honetan da hau eguakitzian egin ahal zun inork hemen bigili eta barau.

Egin zebanak orain mesedez hemen konfesa dezala neuk hartu neban eguakitz hori egun normal bat bezala.

Urtero legez euki giñuan domekan Aberri Eguna euskaldun eta abertzale orok zinez maitatzen duguna.

Negu sasoxan asko ez da agertu orain dala udabarrixa heldu jaku bai ta estali egin dau edurrak Euskal Herrixa.

Oporrak gora, oporrak behera bertan edurra tarteko bukatu die ta orain da unia berriz lanian hasteko.



## 90 berba

Oskar J. Saiz  
Arrasate

Joan den martxoaren 10ean Arrasaten azken urteotan izandako gertakari jendetsuenetakoa izan genuen: Isaias Carraskoren hilketa gaitzeste-ko mobilizazioa, hain zuzen. Kale agerraldi honek munduko komunikabide guztietan oihartzun ikaragarria izan zuen... Guztietan? Ba, ez horixe! Irakurtzen ari zaren egunkari honek 90 berba eta foto bat besterik ez zion eskaini beren 56 orrialdeetan (martxoaren 14ko GOIENKARIA, 4. orrialdean).

GOIENKARIAko erredakzio kontseiluak nahi duena publikatu dezake eta berri bakoitzari nahi duen garantiza emateko askatasun osoa dauka, baina ni guztiz harrিতa eta lotsatuta utzi nau berri honen tratamenduak. Benetan ulergaitza. Agian hildakoak beste pentsaera politikoa izan balu...

## Hipokrisia ote?

Arkaitz Kortabarria Arando  
Antzuola

Udaleko ordezkariak herritarrei laguntzeko omen! Barkatu, baina neure zalantza argitara ematea nahiko nuke, neure kasu konkretua plazaratu eta beste batzuei zer pentsatua eman diezaielakoan.

## Eizmendi eta Real aurrera

Gorka Rodriguez > Arrasate

Lehen mailara igotzeko postuetan zegoenean, jarraian bi porrot izan ditu Realak: Numantzia liderraren aurka Anoetan eta Sporting aurkari zuzenaren aurka El Molinonen. Eta horrek zalantzak sortu ditu. Uxatu da batean orain dela hamabost eguneko euforia. Eta kritikak jaso ditu Eizmendi entrenatzaileak, duela hilabete bi eskas karguan ipini zuen Badiola presidentearen ahotik ere bai. Nik uste dut utzi egin behar zaiola bakean Eizmendiri. Egia da, hala ere, soberan zeudela Numantziaren aurkako partiduaren atarian egin zituen adierazpenak: "Arkonadak (Realeko entrenatzaile ohi eta Numantziako entrenatzailea) eta neuk uste dugu bertakoon dohainak ez direla merezi beste baloratzen". Ziur nago: Real mailaz igoko da, Eizmendirekin, eta datorren urtean alaiago egongo gara zaleak, Unai Emeri txuri-urdinen aulkixoan dela.

Antzuolan hirigune historikoko etxebizitza baten jabea izaki eta beraren egoera kaxkarra denez, berorren eraberritzeko proiektua aurrera eramatea otu zitzaidan. Bertako lanak hastear zeudela, aurretik ere bagenekien arren, arkitektoak etxe honetan solairuen altuerekin dugun arazoa ikusita, udalean hari buruzko kontsulta egitea proposatu zidan. Bertatik erantzuna garbia izan zen, PER (Hirigune historikoaren birgaitze plana) delakoan ez dago etxea altuago egiteko zirikiturik. Beste aukera, PER delako plana berraztertzeke Udalak duen asmoa jakinik, eta astirik ez genuenez, eskaera

formal bat eta proposamena egitekoa izan zen eta halaxe egin genuen. Argi genuen Hirigintza batzordean guztien onespina beharrezkoa zela, gure proposamenak aurrera egin zezan.

Hirigintza batzordean, ordea, eta espero nuen arren, hara non talde batek ezezko borobila eman zion aukera horri, PER delako dokumentuan ageri dena eta etxe horretan altuera arazorik ez dagoela argudiatuta. Badakit alor honetan ezjakin hutsa izanda ere, prozedura egokiena hau ez dela, baina bide hau astirik ez genuelako hartu genuen. Bestalde, talde horretakoek, PER delakoa itun

berritzat duten horiek, aurreko legegintzaldian dokumentu horretan, nire etxebizitzan konkretuki, elementu ezegokitzat dauden egitura bat baino gehiago daudenetan mantentzeko baimena eman zidaten. Ondo negoziatuta, eta hori bai, ni ados nengoen baldintza batzuekin. Garai hartan proposamena ondo aztertu eta akordiora iritsi baginen, zer aldatu da orain nire iritzian ondo aztertu gabe atzera botatzeko? Akaso etorri ahal ziren nire etxera nolakoa zen ikusi eta arazoa baloratzea, nahiz eta erantzuna ondoren ezezkoa izan? Hipokrisia ote hau deskribatzeko hitz egokia?

## Aurrerapausoa

Oskar J. Saiz  
Arrasate

Bizitzan gertakari ezohikoak eta larriak gertatzen direnean pertsonen benetako balioa ikusten da. Martxoaren 7an arrasatear guztiontzat gertakari oso larria suertatu zen, Isaias Carrascoren hilketa, hain zuzen. Honek gure politikariak erretratatzeko aukera eman digu. Lehenik gure alkatesa. Beren herritar baten hilketa basatia gaitzeste-ko gai ez den pertsona batek ez du alkatesa izateko behar den duintasuna. Beraz, bat-batean dimititu egin beharko luke. Gero beste taldeak daude. Eta tamalez talde abertzaleek ez

dute egoerak eskatzen duen aurrerapausoa eman: Ezker Batuak-Zutik: "...beste talderen batek zuzenean eskatuz gero bakarrik egingo dute zerbait zentsura mozioa baten gainean...". EA, antzera: "Lehenengo aurkezpen ofiziala jaso beharko lukete eta gero exekutibak aztertu beharko luke". Aralar: "Lehendabizi proposamena aztertu egin beharko luke...". EAJk ez du bere iritzia eman...

Jaun-andreok: zeren zain gaude? Zergatik itxaron besteek lehen pausoa eman arte? Une latz hauetan batzen gaituenak (duintasunak) aldentzen gaituenaren (partidu-politika) gainetik egon behar du. Beraz, hona nire deialdia: ez itxaron!; eman ezazue aurrerapauso bat eta mugitu zaitezte arrasatearrok alkate duin bat izan dezagun.

## AZALPENA

Martxoaren 14ko GOIENKARIAk orrialde osoa (4) eta argazki bi eskaini zizkion Isaias Carrascoren hilketaren harira asteen egindakoei: martxoaren 10eko manifestazioari eta egun bereko elkarretaratzeari... Era berean, beste orri oso bat eskaini zion (18) atentatuak Arrasateko Udalean eragin dituenak kontatuz. Bestalde, martxoaren 10eko *Asteleheneko Goiienkaria*-n hiru orrialde eskaini zizkion atentatuari eta ondorengoei, eta azalean ere nabarmendu egin zuen, argazki nagusia eskainiz.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33  
20570 BERGARA



Telefona:  
943 25 05 05



Faxa:  
943 25 05 12



Posta elektronikoa:  
goienkaria@goiena.com

# Zure negoziarioaren erakusleihoa Interneten

[www.goiena.net](http://www.goiena.net)-eko **blog komertzialak**

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- E-mailtza onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:  
[www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak)  
[jpenagarikano@goiena.com](mailto:jpenagarikano@goiena.com)  
Telefona: 943 25 05 05

Eta baita ere:

[www.aizue.com](http://www.aizue.com)  
[www.amgautoak.com](http://www.amgautoak.com)  
[www.baster-aldejatetxea.com](http://www.baster-aldejatetxea.com)  
[www.ehmf.com](http://www.ehmf.com)  
[www.gelatu.com](http://www.gelatu.com)  
[www.golkobenta.com](http://www.golkobenta.com)  
[www.haurtxoa.com](http://www.haurtxoa.com)  
[www.kizkur.com](http://www.kizkur.com)  
[www.klorofila.com](http://www.klorofila.com)  
[www.landaluze.com](http://www.landaluze.com)  
[www.lilura.com](http://www.lilura.com)  
[www.toldoslete.com](http://www.toldoslete.com)  
[www.uxarte.net](http://www.uxarte.net)  
[www.biark.net](http://www.biark.net)

[www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak)

/aebpn  
/aiastui  
/arantxa  
/aretxargi  
/argi-plastik  
/arregi  
/atai  
/azkarate  
/bastida  
/briz-asegurua

/BZ-sistemas  
/bolusukaldeak  
/denetik  
/dragon-oriental  
/dukiena  
/ego  
/eguzkigraf  
/ekilore  
/ekin  
/elejalde  
/ezkutuorak

/galgorri  
/gallastegi  
/ganesha  
/garaia  
/gertu  
/gorkataxi  
/gorla  
/gurea  
/gutzieder  
/hamaikataberna  
/itxaseder

/irudisport  
/ixaun  
/izeder  
/jcracing  
/lamaino-etxeberri  
/lorean  
/korozabaleta  
/kizkur  
/markiegi  
/maulanda  
/mayte

/merkeopari  
/multiopticas  
/ohiak  
/ogizun  
/okipark  
/optico  
/otzeta  
/pando  
/perfiar  
/puerta-ingles  
/richimaier

/tabernaberri  
/udalatx  
/udalaitz  
/urdeki  
/ugartearotza  
/urbieta  
/urko  
/vitoria  
/zainduz  
/ziripot

**G n .n t**





Haur eta  
Lehen Hezkuntza  
DBH

MATRIKULAZIOA:  
martxoaren 31tik  
apirilaren 11ra

guztiona,  
guztion artean

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

**Gatzaga/Eskoriatza**

**Luis Ezeiza Eskola**  
• Tel.: 943 71 49 38

**Aretxabaleta**  
**Kurtzebarri Eskola**  
• Tel.: 943 79 00 49

**Arrasate**  
**Arrasate Herri Eskola**  
• Tel.: 943 79 20 69

**Aramaio**  
**San Martin Eskola**  
• Tel.: 945 44 50 04

**Bergara**  
**San Martin Agirre Eskola**  
• Tel.: 943 76 21 47  
• bilera: Apirilak 2, 18:30

**Antzuola**

**Antzuolako Herri Eskola**  
• Tel.: 943 76 62 68

**Elgeta**  
**Elgetako Herri Eskola**  
• Tel.: 943 76 82 26

**Oñati**  
**Errekalde Herri Eskola**  
• Tel.: 943 78 07 64

BIGARREN HEZKUNTZA

**Arrasate**

**Arrasate Institutua**  
• Tel.: 943 79 44 47  
• Tel.: 943 79 20 38

**Aretxabaleta**  
**Kurtzebarri BHI**  
• Tel.: 943 79 57 40

**Bergara**  
**Ipintza Institutua**  
• Tel.: 943 76 31 42

**Oñati**  
**Zuazola Larraña Oñatiko BHI**  
• Tel.: 943 78 12 68

goieskola@euskalnet.net

www.goieskola.net



605 773992

HELDUEN HEZIKETA IRAUNKORRA

**Arrasate**

Ferrerias 28  
• Tel.: 943 77 11 72

**Aretxabaleta**

Markole 5  
• Tel.: 943 79 88 50

**Eskoriatza**

Intxaurtxueta 20  
• Tel.: 943 79 36 41

**Bergara**

Irizar jauregia,  
Barrenkale 33, 2.  
• Tel.: 943 76 44 52

**Oñati**

Zuazola Institutua  
Aita Madina z/g.  
• Tel.: 943 78 35 77

goieskola



debagoieneko euskal  
eskola publikoa



# debagoienako ikastolak euskal herriaren etorkizuna ereiten

matrikula epea: martxoaren 31tik apirilaren 11ra



**TXANTXIKU  
IKASTOLA**

**943 78 12 04**

[www.txantxikuikastola.net](http://www.txantxikuikastola.net)



**ARANZADI**  
*ikastola*

**943 76 90 71**

[www.aranzadiikastola.org](http://www.aranzadiikastola.org)



**Arizmendi**  
*ikastola*

**902 11 20 25**

[www.arizmendi.ikastola.net](http://www.arizmendi.ikastola.net)



# Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-32 Oñati > 33  
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARETXABALETA**  
Astelehenean hasi zituzten plazako saneamendu lanak > 31



> **OÑATI**  
Lourdesera joateko izena eman dezakete herriko gaixoak > 33



> **ELGETA**  
Aste Berdea egingo dute, aurten lehenengo aldiz > 37



> **LEINTZ GATZAGA**  
Elurra sendo egin zuen, baina arazo gutxi eragin zuen herrian > 39

**OÑATI** > 'GOI ARGÍ'-REN URTEMUGA

## 'Goi Argi' orriak, mende erdi Elizatik Oñatira informazioa zabaltzen

**BATERATU** Herriko kristau elkartearen informazioa jasotzea du helburu

**BANAKETA** Guztira, 2.500 ale banatzen dituzte boluntarioek hilero-hilero

**GAIK** Elizako ekintzen berri emateaz gain, herriko informazioa ere zabaltzen du

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

Mende erdia beteko da apirilean Oñatiko parrokiaren elizako berriekin esku orri bat ateratzeko ideia izan zutela. "Oñatin 13 elizak ematen dute domeketan meza. Parrokiak gain, Arantzazu, auzotako elizak eta komentak dauzagu. Oñati hain da herri zabal, kristau elkartearen informazioa oso sakabanatuta geratzen zen, eta pentsatu zuten horrelako orri baten beharra zegoela bateratzeko. Horrela sortu zen *Goi Argi*", esan digu Sabino Zuazabeitia parrokoak.

Oraindik, 50 urteren ostean, hilero-hilero banatzen dute lau orrialdekoa Oñatiko etxeetan. 2.500 ale zabaltzen dituzte eta auzo edo kale bakoitzean daude banatzeko konpromisoa duten herritarrak. "Hileko bataioak, elizan egindako ezkontzak eta hildakoen zerrenda jasotzen ditu parrokiako orriak, eta familiakoek eskatu egiten dute gordetzea. Oñatitik kanpo bizi diren herritarrei ere bidaltzen diete senideek hemengo berri izateko, hortaz, ez dakigu noraino iristen den *Goi Argi*. Gogoan dut Oñatiko enpresa bat Gasteizera aldatu zela eta langileek lantegian ere banatzen zutela *Goi Argi*. Oñatiko herriak eta Elizak ez du ete-rik izan eta hori izan da iraute-



PARROKOA Sabino Zuazabaitiak, Oñatiko parrokoak, du *Goi Argi* informazio orria gertatzeko ardura; eskuartean, 50. urtemugako zenbakia du.

IRATI AGIRREAZALDEGI

ko sekretua. Herritarrak jakin mina dauka Elizaren gainean, herritik kanpo bizi diren eliztarren gainean, eta jasotzen dugun informazioa beti da interesekoa", dio Sabino Zuazabeitiak.

**PARROKOA, ARDURADUN**

Jose Maria Agirrebaltzategi apaizak ekin zion bideari, eta 18 urtean izan zuen *Goi Argi*-ren ardura Oñatiko apaiz laguntzailea zenak. Hil zenean, Juan Bautista San Miguelek hartu zuen lekukoa Donostiara joan bitartean, bost urtez. Gero, Tomas Madinabeitiak zortzi urte egin zituen *Goi Argi*-ren arduradun, eta orain, Sabino Zuazabeitiak 14 urtean dihardu, jarraitzeko asmoz, gainera.

*Goi Argi*-ren ardura parrokoak hartzen du, beste batzuen laguntzarekin, noski. "Nik neuk ere, parroko ez nintzenean, idazten nuen. Sekularrek ere idatzi izan dute, historiaren gainean, esaterako. Orriaren ardura zeinek izan duen, informazioak joera bat edo beste hartu du. Bakoitzak bere ikuspuntua eman dio", kontatu digu Sabino Zuazabeitiak.

**ASKOTARIKO EDUKIAK**

Askotariko gaiak jasotzen dituzte esku orriaren. "Parrokiako ekintzak eta egitaraua jasotzen ditugu. Gabonetan, *Goi Argi*-rekin batera, Gabon kantak banatzen dira eta, Aste Santuan, elizkizunen egitaraua. Bestalde, kanpai-

nen berri ere ematen dugu: eliza edo ermitaren batean obrak egin dituztenean, adibidez. Baina herriko gaiak ere lantzen ditugu, esaterako, baserritarrek fabriketarako bidea hartu zutenean, hori izan zuten hizpide; ekonomiari ere egiten zaio tartea. Eskola kanpaina, euskara kanpaina... ere egin izan ditugu. Herrian ze berri, horretatik elikatzen da *Goi Argi*, betiere, euskara eta gaztelania tartekatuz", dio Zuazabeitiak.

Sabino Zuazabeitiak azaldu digunez, "Oñatin egon da interes handia bertako historia jasotzeko. Oñatiko apaizen eta erlijiosoen bizimoduaren berri ere jasota dago, bai bertakoena baita bertan egondako kanpokoena ere.

Parrokiaren historia ez dago liburu batean jasoa, baina norbaitek informazioa nahiko balu, *Goi Argi* guztiak eskuartean hartu eta osatzeko moduan egongo litzateke liburu bat".

Apirilean izango dute oñatiarrak eskuartean 50. urtemuga gogoratuko duen parrokiako orria. Gertu daukate, idatzita, eta orriaren arduradun Sabino Zuazabeitiak esan digunez, "edukiei dagokienez, ez du aparteko berezitasunik edukiko. Aurreko zenbakian gogorarazi genien herritarrei 50 urte beteko dituela *Goi Argi*-k, eta orain ere konturatuko dira zer bait berezia duela, kolore gorria ere erabiliko dugulako".



## zerbitzuak

## GUARDIAKO FARMAZIAK

## ARRASATE

Zapatua, 29	Etxeberria	Zarugalde, 42	943 77 16 30
Domeka, 30	Etxeberria	Zarugalde, 42	943 77 16 30
Astelehena, 31	Azkoaga	Ferrerias, 1	943 79 15 15
Martitzena, 1	Azkoaga	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Eguaztena, 2	Fernandez	Maisu Aranbarri, 1	943 79 22 26
Eguena, 3	Irizar	Erguin, 11	943 79 12 39
Egubakoitza, 4	Amezua	Santamarina, 32	943 79 09 74

## BERGARA

Zapatua, 29	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Domeka, 30	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Astelehena, 31	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Martitzena, 1	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Eguaztena, 2	Urrutikoetxea	Orixondo, 4	943 76 11 74
Eguena, 3	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Egubakoitza, 4	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05

## OÑATI

Zapatua, 29	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Domeka, 30	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Astelehena, 31	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Martitzena, 1	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguaztena, 2	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 3	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Egubakoitza, 4	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28

## ARETXABAETA

Zapatua, 29	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 30	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Astelehena, 31	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Martitzena, 1	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Eguaztena, 2	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Eguena, 3	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Egubakoitza, 4	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia eskuratzeko, bidali SMS bat 7505 zenbakira "farma" hitza jarritz. SMS kostea 0,9 euro + BEZ.

## TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))  
SOS DEIAK

## OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramaiio.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udalzaingoak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

## GARRIAOK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaiio.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 71 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

## DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltzgia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 36 67
Kiroldegiak	
Aramaiio.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Oñati.....	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola.....	943 76 60 65
Aramaiio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramaiio.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

## URBANOAK

## ARRASATE

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Urbarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obreiro, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**  
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obreiro, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**  
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.  
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Urbarri, Erguin A eta Gorostiza.

## BERGARA

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**  
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 10:40, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geraletuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegarieta/Olabarretik irteerak**  
07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geraletuak: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubietta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.


## ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaiio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	Aramaiio	Arrasate
08:30	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
	13:45	14:10
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoeta-koendako. Bezperan delitu: 629 54 59 23

## eguraldia

## DEBAGOIENEAN



## Zapatua, 29

Egun argiz ateri izango da, baina arratsaldean eta gau partean euria egingo du. Tenperatura igo egingo da, eta giro epela izango dugu egun osoan.




## Domeka, 30

Txukuntze aldera joko du eguraldiak domekan. Tenperaturak goraka jarraituko du, eta 20 gradu inguruko maximoak izango ditugu.

## EUSKAL HERRIAN

Euria izango dugu, batez ere zapatuan; iluntze aldera hasiko dira hodeiak ugaritzen eta euri apurrak botatzen. Giro epela izango dugu aste bukaera osoan, 20 gradu inguruko maximoekin. Domeka zapatua baino itxurosoagoa izango dugu, eta oskarbiak eta lainoak tartekatuko dira.



## oharrak eta deialdiak

## BERGARA

## &gt; Udalekuetako begiraleendako izenematea

Xipizaro elkarteak uztaileko udaleku irekietan begirale izateko izenematea epea gaur, egubakoitza, itxiko du. Agorrosingo ludotekan hartuko dituzte izenak, 17:00etatik 19:30era.

## DEBAGOIENA

## &gt; Aste bukaeretakoa irteerak gazteendako

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak Euskal Herrian barrena delako programa berritu eta martxan jarri du berriz. 18-30 urte arteko gazteek irteerak egiteko aukera izango dute. Informazioa: 943 69 64 50.

## BERGARA

## &gt; 79an jaiotakoek ospakizuna izango dute

1979an jaiotako bergarrek kinto ospakizuna izango dute apirilaren 19an Tartufon. Izenematea zabalik dago; 35 euro sartu behar dira Euskadiko Kutzako 3035 0009 11 0090081875 kontuan.

## ARRASATE

## &gt; Urpekaritza ikastaroa antolatu du Udalak

Getariako KSUB urpekaritza zentroak emango duen ikastaroa apirilaren 4an hasiko da. Dagoeneko izenematea epea zabalik dago; hain zuzen, bazkideek 350 euro ordaindu behar dute eta ez bazkideek, 370 euro.

## TENPERATURAK

MINIMOA  
Eguena, 20 **1 °C**

MAXIMOA  
Egubakoitza, 21 **12 °C**

ASTEKO  
EURIA (l/m<sup>2</sup>) **176,8 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 19	8 °C	6 °C	0 l/m <sup>2</sup>
Eguena, 20	11 °C	1 °C	0 l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 21	12 °C	2 °C	43,1 l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 22	7 °C	6 °C	35 l/m <sup>2</sup>
Domeka, 23	7 °C	2 °C	43,5 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 24	10 °C	2 °C	46,9 l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 25	11 °C	10 °C	8,3 l/m <sup>2</sup>

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

## ILARGIA APIRILEAN

Ilbete 6	Ilbehera 12	Ilberri 20	Ilgora 28

## Loiolako Santutegitik,

La Antiguako baseliza-gero, Arantzazuraino. Maiatzaren 31n izango da, 06:00etan. Derrigorrezkoa da izena ematea, leku kopuru mugatua dagoelako. Argibideak: 902 18 14 71 / 943 79 64 63.

## ARRASATE

## &gt; Matrikulazio epea Arrasate Institutuan

Arrasateko Institutuak zabalik izango du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako matrikulazio epea martxoaren 31tik, astelehena, apirilaren 11ra bitartean.

## OÑATI

## &gt; Arrantza-barrutirako zozketa egun eta ordua

Aurrerantzean, Arantzazuko arrantza-barrutian arrantza egiteko paseen zozketak Pago-Uso elkarteak, egubakoitzean, 20:30ean egingo dira. Zozketan parte hartu gura duenak arrantza

baimen eguneratua eta nortasun agiria eroan beharko ditu.

## ARAMAIO

## &gt; Jaien batzordeak batzarra deitu du

Aramaioko jaiak gertatzeko, jai batzordea sortu dute. Parte hartu gura duten herritarrei dei egiten diete batzarrerara; astelehena, batuko dira, udaltxean, 19:00etan.

## DEBAGOIENA

## &gt; Debagoieneko katalanen ospakizuna

Debagoieneko katalanek Sant Jordi eguna ospatuko dute apirilaren 20an; bazkaria egingo dute. Izena emateko, deitu 615 70 72 41 telefonora, apirilaren 9a baino lehen.

## ARRASATE

## &gt; Abaroa elkartearen batzar orokorra

Abaroa erretiratu eta pentsiodunen elkar-teak batzar orokorra deitu du gaurko, egubakoitza, joko-aretoan, 17:00etan. Iazko ekitaldiaren balantzea egin eta aurtengoaren aurrekontua egingo dituzte.

## BERGARA

## &gt; San Martin eskolan, batzar informatiboa

San Martin herri eskolak batzar informatiboa deitu du apirilaren 2rako, eguaztena, eskolan, 18:30ean. Eskolaren proiektu eta antolamendua azalduko dituzte.

943 25 05 05  
goienkaria@goiena.com



kale inkesta

## Zer da zuretzat Aste Santua, opor ala erlijio astea?



**Tomas Erostege**  
Langilea  
Antzuola



**Joxe Angel Arbulu**  
Langilea  
Antzuola



**Mari Luz Altzerreka**  
Langilea  
Antzuola



**Josefa Iparragirre**  
Erretiratua  
Antzuola



**Manu Tena**  
Langilea  
Antzuola

Aurten lan egitea tokatu zait eta ez dira opor jaiak izan. Lehenago erlijio kutsu hori gehiago mantentzen zela uste dut. Gaur egun, aldiz, jendeak opor egun bezala hartzen ditu egun horiek.

Aste Santuko jaiegun horiek opor egun eta prozesio egun ere izan dira. Atsedean hartzeko aprobetxatu dut eta, bide batez, mezetara joan eta prozesioaren bat edo beste ere ikusi dut.

Opor egun bezala hartzen ditut Aste Santuko egun hauek. Nahiz eta domeketan mezetara joaten naizen, ez naiz oso prozesiozalea. Herrian gelditu naiz, hemengo jai egunak aprobetxatuz.

Erlijio astea. Inguruko elizkizunetara joan gara. Lehen, joaten nintzen prozesioetara, baina dagoeneko herrian ere ez dira egiten. Egunen baten edo Arantzazura ere joana naiz.

Nik opor bezala hartzen ditut, eta kanpora joateko aprobetxatu dut. Erlijio kutsua prozesioaren bat parean tokatuz gero mantentzen dut. Aurten, adibidez, Salamancara joan naiz.

5 galdera...

## Atxen Arantzabal

Alergologoa  
Arrasate

**1. Aurten egiten ari den eguraldia kontuan hartuta eta beste urte batzuekin konparatuta, zela dago jendea alergiekin?**

Beti eguraldiaren arabera da, eta maiatzean eta ekainean egingo duen eguraldiaren arabera. Hemen, gehienek gramineoetako polenari diote alergia, eta haiengan eragina izango du maiatzean eta ekainean. Eguraldiaren arabera, polen gehiago edo gutxiago egongo da.

**2. Aurten, polen kantitate handia egon da. Normala da?**

Pinu polena egon da, eta hori da ikusten den bakarra, baina momentu honetan ez dago polenik. Eurria egiten ari da, eta desagerrarazi egiten du.

**3. Zenbat polen mota daude Debagoiengan? Desberdinak dira?**

Polen mota asko daude. Landare bakoitzak bere polena edukitzen du. Gu bizi garen zonan, nagusiena gramineoek sortutako polena da.

**4. Alergiek norengan izaten dute eraginik handiena?**

Ez dago pertsona mota konkreturik. Normalean gazteengan du eragina, baina gero eta jende helduagoa ikusten dugu alergia arazoekin. Horren arrazoia ondorengoa da: ez gara alergiko jaiotzen, alergiko egin egiten gara. Horregatik, alergikoak garen edo ez jakiteko udaberri batzuk pasa behar dira, eta orduan ikusiko da alergia hori sortzen den edo ez.

**5. Zer egin dezake norberak alergieen efektuak ekiditeko?**

Lehenengo jakin behar dugu zein polen motari diogun alergia. Polen batzuk egoten dira maiatzean eta ekainean, gramineoetakoak, horiek arruntenak dira; pinu polena otsaila eta martxo bitartean, urkiarena apirilean...

Jakin behar dugun beste gauza bat da leku zabaletan polen gehiago egoten dela itxietan baino, eta hori ere kontuan hartu behar da.



txistuak



LEIRE KORTABARRIA

## Olakua auzoko autobus geltoki xelebrea



Oñatiko Olakua auzotik, ahateen urmaelaren ondotik errepede nagusirako irteeran, hain justu urmael parean dagoen autobus geltokia leku txarrean dago; bertan autobusen bat edo autoren bat gelditzen denean, ez dira ikusten alde horretatik datozen autoak. Orduan errepede nagusira sartu nahi duen gidariak ez du ikusten autoren bat datorren edo ez.

asteko datua

46,9 l/m<sup>2</sup>

Hori da Aste Santuko egunik eurtsuenean jaso den euri kopurua metro koadroko: 46,9 litro/m<sup>2</sup>. Astelehenean, Bergarako San Juan auzoko Luis Mari Agirrek emandako datua da, eta baserrian jaso zuen. Guztira Aste Santuko egunetan 176,8 litro bota du metro koadroko.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

ustek uste

Larraitz Zeberio

## Euskaldunak Frantzian oporretan

Ahizpak Luz Saint Sauveur herrian egiten du lan. Bertan izan gara Aste Santuan. Apartamentuak alokatzen dituen enpresa batendako egiten du lan ahizpak eta ondo baino hobeto ulertu dut zergatik nahi zuen lantegiko nagusiak euskaraz dakien pertsona bat.

Egunotan euskara gehiago entzun dut Luz Saint Sauveur herriko kaleetan gure inguruko herri askotan baino.

Noski, negozioa besterik ez du buruan ahizparen nagusiak. Baina denak ez dira hura bezalakoak.

Egun batean, inguru hartan oso ezaguna den kobazulo bat ikustera joan ginen; *Les Grottes de Betharram* izenekoak.

Gizon xelebrea batek erakutsi zigun haitzuloa. Esan gabe doa taldea osatzen genuen 30 bat lagun artean, gehiengoak euskaldunak ginela.

*Les Espagnols* ginen harendako, ordea. Ordu eta erdiko bisita animatu guranedo bizpahirutan bota zuen *¡Viva España!* Kantuan egiteko ere esan zigun; "una bonita canción española" eskatu zuen. Ez zuen inork kantatu eta amaieran eskupekoa eskatzeko txapela jarri zuenean ezer gutxi batu zuela esango nuke. Konturako ote zen zergatik?



POLITIKA &gt; ARRASATEKO UDAL GOBERNUAREN ETORKIZUNA

# Udaleko alderdi politiko gehienak gertu daude EA Erekin akordio puntualak adosteko

EB-Zutik, EAJ, eta Aralarrek egingo lukete lan EA Erekin; PPK, berriz, horretarako "esperantza gutxi" ditu

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Isaias Carrascoren kontrako atentatuaren ostean, EB-Zutik koalizioak gobernua uzteko adierazitako erabakia gauzatu da. Ander Rodriguez koalizioko bozeramaileak jakinarazi duenez, joan den martitzenean sinatu zituen alkateak koalizioko ordezkarien kargu-uzteak. Honako udal sailen ardurak izan du orain arte EB-Zutik koalizioak: Gizarte Zerbitzuak, Garapen Estrategiak eta Kultura, Jaiak, Kirolak eta Herritarren Parte Hartzea.

Momentuz, ardurak horiek guztiak Ino Galparsoro alkateak hartu ditu bere gain. Baina alkateak berak esan duenez, Eusko Abertzale Ekintzako zinegotzien artean banatuko dituzte. Hori horrela, eta Alderdi Sozialistak aurkeztu gura duen zentsura mozioak aurrera egiten ez duen bitartean, Arrasateko Udal Gobernuak Eusko Abertzale Ekintzaren esku geratuko da. Aste Santu aurretik alderdi politiko horrek adierazi zuen moduan, beraz, "Arrasateko Udalean hartuak" dituzten "erantzukizun guztiak aurre egiten" jarraitzeko asmoa dute, gutxiengoan bada ere.

Izan ere, udalbatza 21 zinegotzik osatzen dute eta EA Erek zazpi jarleku eskuratu zituen. Honela adierazi du alkateak: "Lehen hamar boto genituen eta orain zazpi bakarrik. Beraz, EA Erek zazpiok baka-

rrik eraman beharko ditugu batzordeak. Hala ere, horrek ez du esan nahi gure lan estiloa aldatuko dugunik. Lehen ere planteamendua zen ahalik eta adostasun handiena lortzea gaien inguruan eta guk saiakera berarekin jarraituko dugu".

GAINERAKO ALDERDIEN IRITZIA

Udalan ordezkariak duten gainerako alderdi politikoetatik, berriz, gehienak gertu daude EA Erekin akordio puntualak lortzeko. Gobernuan izan den EB-Zutik koalizioko bozeramaileak, Ander Rodriguezek, zera adierazi du: "Akordioak ezkerretik etortzen badira, gertu gaude akordio ezkertiarak lortzeko. Gure konpromiso programatikoak bete nahi ditugu. 11 hilabete egin ditugu gobernuan akordio horiek betetzen; orain, oposiziotik horien bila jarraituko dugu".

EAJ ERE, GERTU

PSE-EErekin batera oposizioko alderdi nagusia den EAJ ere gertu dago adostasunak lortzeko. Luis Mari Apraiz bozeramaileak hala dio: "Gertu gaude parte hartzeko, betiere, herriaren onurarako izaten bada. Horrek esan gura du EA E egongo dela bakartasunean, baina herriaren mesederako baldin bada, parte-hartzea egingo genuke".

ARALARREK, HORIXE GURA

Elkarlanerako jarrera erakutsi du, baita ere, Aralarrek. Joxe Etxeberria bozeramaileak zera dio: "Hori da bultzatu gura genuena. Egoera berriak, berriz, ekarriko duena da udalbatzarrean onartu beharreko gaiak aurrez adostu beharra, gutxienez, 11 boto izan arte; eta gobernu batzordearen eskumenak orain arte EB-Zutik-ekin adostu behar zituela eta, orain, eurek bakarrik adostu beharko dituztela; hau da, oro har, lan handiagoa eskatzen die egoera berriak. Baina alkatearen eskumenak eta batzorde informatiboaren funtzionamendua berdin geratuko lirake. Funtsean, funtzionamendua ez da aldatuko".

PP, "DESMORALIZATUTA"

PPko bozeramaileak, berriz, gainerakoekin alderatuta, kontrako jarrera azaldu du. Itziar Lamarain

nek gogora ekarri du bera izan zela zentsura mozioa planteatzen lehen. Horrez gainera, zera gaineratu du: "Agintaldi hasieran konfiantza eman nien, udal honen kudeaketa aurrera eramateko ahaleginean. Baina ikusita pertsona horiek ez direla gauza ezta ere gizatasunarengatik gertatutakoa moduko gauza larri bat kondenatzeko, esperantza gutxi ditut eurekin adostasunak ezertan lortzeko. Desmoralizatuta nago eta gura dudana da zentsura mozioa aurkeztu, ea eurek uzten duten Arrasateko patua gidatzen. Hori da nire esperantza: ea gauza garen gainerakoen artean adostasuna lortu eta gauzak eurak barik egiteko. Izan ere, zoritxarrez, eurak dira baztertuta gertatzen direnak Arrasaten gertatutako moduko gauza bat ez kondenatzean".

EA, ITXAROTEN

Bukatzeko, Pello Urizarrek EAren izenean berba egin du esateko datoren astean jakinaraziko dutela zein den euren erabakia: "Zentsura mozioaren gaineko erabakia hartu beharra dago lehenengo eta behin. EA moduan gai hori Arrasaten batzarrean landu behar dugu datorren martitzenean, eta, errespetuarengatik, erantzuna ordura arte atzeratuko dugu".

ESALDIA

"Hamaika hilabete egin ditugu gobernuan akordio horiek betetzen; orain oposiziotik horien bila jarraituko dugu"

Ander Rodriguez &gt; EB-Zutik

ESALDIA

"EA E bakartasunean egongo da, baina herriaren mesederako baldin bada, eurekin parte-hartzea egingo genuke geuk ere"

Luis Mari Apraiz &gt; EAJ

ESALDIA

"Akordio puntualak egitea da guk ere bultzatu gura genuena; funtsean, funtzionamendua ez da aldatuko"

Joxe Etxeberria &gt; Aralar

ESALDIA

"Desmoralizatuta nago eta gura dudana da zentsura mozioa aurkeztu, ea eurek uzten duten herriko patua gidatzen"

Itziar Lamarain &gt; PP

ESALDIA

"Batzarrean landu behar dugu zentsura mozioa martitzenean; errespetuarengatik, erantzuna ordura arte atzeratuko dugu"

Pello Urizar &gt; EA

## DERMATOLOGIA

### Concepción Tamayo doktorea

Zerbitzuak


Kontsulta dermatologikoa

Kirurgia dermatologikoa

Aurpegiko minbiziaren prebentzioa

Laser tratamenduak:  
aurpegiko zaintxoak,  
zahartzaroko orbainak,  
tatuajeak kentzea, e.a.

Atzeko kale 6, behea • O ati  
Tel.: 943 71 61 82 • Mug.: 620 12 48 43





Olaia Murua > AEDren 25. urteurreneko ospakizunen teknikaria

# "Herriarendako 25 urtean lanean ibili diren herritar eta bazkideak omendu gura ditugu"

UBANE MADERA > ARRASATE

AED elkarteak 25 urte bete behar ditu 2008an, eta urteurren hori gogora ekartzeko, hainbat ekitaldi antolatzen dabilta. Olaia Murua da ospakizunak antolatzen dabilen AEDko teknikaria. Aurreratu du maiatzean egingo dutela aurkezpena.

**Zehatz-mehatz, noiz bete behar ditu 25 urte AEDk?**

Azaroaren 29an, 1983ko azaroaren 29an sinatu ziren-eta AEDren estatutuak.

**Egun horren bueltan gura duzue antolatu ospakizun jaia?**

Hainbat gauza antolatu gura ditugu. Adibidez, AEDren sorreran egon zirenak omendu gura ditugu. Bazkide eta herritarrei ere egin gura diegu omenaldia, 25 urtean herriarekin eta herriarendako euskararen inguruan egindako lanarengatik. Eta beste ekintza batzuk ere egongo dira. Ekintzak maiatzaren 28an hasiko dira; orduan aurkeztuko dugu guztia eta hortik aurrera ekintza guztiak martxan jarriko dira.

**Halako zerbait antolatzeak emango du, bada, lana...**

Lan handia ematen du, bai; horregatik egin ditugu lantaldeak. Ni teknikaria naiz, baina inguruan jende asko dabil lanean boluntario: Txatxilipurditik, Ekin elkartetik, Euskalanetik... AEDtik sortutako elkarreetatik, oro har. Horrez gainera, bagabiltza ahalegina egiten herritarren batzuk ere animatzeko.

**Horrekin lotuta, pare bat eskaera egin dituzue, ezta?**

Bai. Arrasateko musika taldeekin izan gara. Eurekin gura



Olaia Murua teknikariak AEDren egoitzan dihardu lanean.

U.M.

**"Maiatzaren 28an aurkezpena egin eta, hortik aurrera, ekintzak martxan jarriko dira"**

**25 urte dituen euskara elkarte asko ez dira egongo, bada, Euskal Herrian...**

Ez, Arrasate Euskaldun Deza- gungo aitzindaria da.

dugu lan egin Arrasateko gazteak ere inplikatzeko 25. urteurren honetan. Eskatu diegu euskararen gaineko kantu bana egiteko, euskaraz, eta momentuz aurrera doala dirudi; animatuta daude, behintzat.

Bestetik, eskatu diegu herritarrei AEDk 25 urteotan egin dituen ekitaldien, jaien... gaineko argazkiak ekartzeko; modu horretan herritarrak ere inplikatuko gura ditugu urteurrenean. Horrez gainera, AEDko bazkideen parte-hartzea ere gurako genuke, eurena ere bada-eta AED.

EMAKUMEAK > III. ZINEMA ZIKLOA

## Emakumeen gaineko zinema zikloa Amaia Udal Antzokian

Apirilaren 3an, eguena, hasita, datorren hilean eguenero izango dira zinema saioak

U.M. > ARRASATE

Emakumeak zuzendari edo emakumeak protagonista dituzten filmak emango dituzte, datorren asteke eguenetik hasita, apirilera eguen guztietan.

Ekimen horren bitartez, Emakume Txokoak "emakume sortzaileen presentzia bermatu" gura du, "haien ikuspegitik beste emakume batzuen esperientziak konartzeko guri, haien zalantzei buruz hitz egin diezaguten, justiziaz eta

egiten dakitenaz salatzen dutenari buruz hausnartzeko". Emanaldiak Amaia antzokian izango dira, 20:30ean; sarrera lau euro kostako da. Aurreneko saioa apirilaren 3an egingo dute, bi filmekin: bata laburra, *Nasija*, tratu txarren gainekoa; eta bestea luzea, *Das Fräulein*, Bosniako bi emakume etorkinen gainekoa. Hortik aurrera, beste lau film izango dira: *Preguntas sin respuesta*, *Propiedad privada*, *XXY* eta *Away from her*.



GOIENKARIA

## Aste Santuan dokean, gero musean

San Isidro elkarteak gailendu da doke jokoaren aurtengo edizioan. Joan den egubakoitzean jokatu zuten nagusien txapelketa, ohi moduan, Kondekua zelaian. Bestalde, Luis Arkauz SUDCKo presidente berriak iragarri du doke kontuak utzi eta orain elkarte gastronomikoen arteko mus txapelketa azkarra dabilzala antolatzen, apirilaren 26rako.

> ERLIJIOA

**Hildako EAJko alderdikideen aldeko ekitaldia izango da etzi**

Arrasateko EAJk hitzordua egin du hildako alderdikideen oroimenez meza esateko. Etzi izango da, domekan. 12:30ean hasiko da elizkizuna, San Juan Bataiatzailearen parrokiari. Meza ostean, berriz, mokadua egingo dutela iragarri dute, batzokian.

> POLITIKA

**Aralarren esker ona hauteskundeetan babesgabe emango zirenei**

Hauteskundearen ostean, Aralarrek esker ona adierazi die euren alde bozkatu zutenen: "Mila esker eta zorionak, abertzale, ezker aurrerakoi eta soilik zibila den mugimendua osatu eta bultzatu nahian gabiltzanoei eman diguzuen babesagatik; batez ere, hain zaila den une honetan".



**CITROËN**



CITROËN BERLINGO



CITROËN BERLINGO



CITROËN BERLINGO

Ezagut itzazu eskaintza bereziak [www.citroen.es](http://www.citroen.es) webgunean. Citroen Informazioa: 902 44 55 66.

**Talleres Chapime, S.C.L.**

Debagoieneko Citroën Kontzesionario ofizial bakarra.

San Andres auzoa 5. Arrasate | Tel.: 943 79 45 22

Tailerreko ordutegia: Asteleheneetik egubakoitzera: 8:00-13:00 eta 15:00-19:00

Zapatuetan, enpresa eta langile autonomoei zuzendutako matentze lan zerbitzua. (Aurrez deitu)

**CITROËN**

CITROËNEK EDOZER EGIN DEZAKE ZUGATIK



LITERATURA &gt; LIBURUAREN EGUNA

# Udal Liburutegiak hainbat ekimen antolatu ditu Liburuaren Egunerako

Antzerki, literatura solasaldi, ipuin kontalari, poesia irakurketa eta erakusketek aukera zabala eskaintzen dute apiril osorako

**JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE**  
Arrasateko Udal Liburutegiak egitarau oparoa prestatu du apirilera, nazioarteko Haur Liburuaren Eguna eta nazioarteko Liburuaren Eguna ospatuko dira-eta hilabete horretan. Haurrei zuzendutako ipuin kontalari eta antzezlanak, hitza, irudia eta musika uztartuko dituen erakusketa eta poesia irakurketak eta adin guztiei zuzendutako literatura solasaldiak antolatu dituzte, besteak beste.

Antolatzaileek aditzera eman dutenez, ospakizun horren helburua da irakurleak eta, oro har, herritarrak egun sinboliko horie-



IRAKURLEAK Antolatzaileek herritar guztiei liburutegian izango diren jardunaldietara joateko gonbita egin diete. GOIENKARIA

taz ohartaraztea eta, bide batez, liburutegiak antolatu dituen jardueretan parte hartzera gonbidatzea. Horretarako aukera zabala izango da Kulturaten.

**EKITALDI NABARMENAK**  
Ekitaldien artean, *Ipuin Lapurra* antzezlanak, Ginol taldearen lan berria, nabarmendu dute antolatzaileek, haurrei begira.

Bestalde, helduentzako *Mugarri estaliak* erakusketa eta poesia irakurketa azpimarratu dute arduradunek ekitaldi erakargarriena moduan.

## Ekitaldiak noiz eta non

### Ipuin Kontalaria

Apirilaren 1ean, 3an eta 8an:  
Lur Korta ipuin kontalaria  
Kulturateko Haur Biblioteka  
Ordua: goizean zehar

### Antzerkia

Apirilaren 2an: *Ipuin Lapurra*  
antzezlanak Kulturateko areto  
nagusian  
Ordua: 18:00etan

### Erakusketa eta poesia

*Mugarri estaliak*: hitza, irudia  
eta musika izeneko erakusketa  
eta poesia irakurketa izango da  
Erakusketa: apirilaren 4tik 27ra  
Kulturateko klaustron  
Poesia irakurketa: apirilaren  
4an eta 23an Kulturateko areto  
nagusian, 19:00etan

### Literatura solasaldiak

Euskaraz: apirilaren 1ean 1984  
eta apirilaren 29an *Zakur Kale*  
Gaztelaniaz: apirilaren 1ean  
eta 8an *Diario de una buena  
vecina*  
Ordua: 18:30etik 20:30era

ANTZERKIA &gt; KOMEDIA

## 'Gixonak' antzezlanak izango da domekan Amaia antzokian

Traman & Brix taldeak antzeztuko du 90eko hamarkadako lan arrakastatsuen moldaketa

**JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE**  
Gizonaren izaera naturalari buruzko antzezlanak izango da ikusgai domekan Amaia antzokian, 19:30ean. Hain justu, 1994an Sergi Belbel-ek zuzentzen zuen T De Teatre talde kataluniarrak arrakasta handiz taularatu zuen lanaren moldaketa egingo du

Traman & Brix antzerki talde ondarrutarrak. Ana Elordi zuzendari duen antzeztan horretan tonu ironikoa, zuzena eta samurra da nagusi. Hiru testuz osatutako antzezlanak da: Fernando Verdes-en *Lagunekin traguk hartzen*, Sergi Belbel-en *Ramón* eta T De Teatre antzerki taldearen

*Ai Gixonak*. Ikusleari barrea eragiteko moduko obra dela esan daiteke; izan ere, egunero bizi ditugun egoerak beste ikuspuntu batetik ikusteko aukera ematen duen obra dugu *Gixonak*.

### ANTZERKI TALDE AMATEURRA

2007an sortua, Traman & Brix antzerki taldearen ibilbidea ezagutzeko 1999ra arte joan behar dugu, Ondarroako Gazteentzako Antzerki Tailerra sortu zen urtera, hain zuzen.



KARTELA *Gixonak* lanaren kartela.

Antzerki talde ondarrutar hori ez da antzezte profesionalerik osatutako taldea. Hala ere, partaide gehienak gazte eta helduen antzerki tailerretan ibilbideak izanik, eskarmentu handiko antzeztuak dira.

Hainbat lan antzeztu dituzte, besteak beste: *Txan, txan, txango!*, 1999 eta 2000. urte artean antzeztu zutena; *Kontuz Mamukin!*, 2000 eta 2001. urte artean; *Aingira Kumak*, 2001 eta 2002. urte artean; eta *Kalipot Arrantzalik*, 2002 eta 2003. urte artean.

Domekako antzeztanera bueltatuz, Ondarroan eta Bizkaian zehar aurkeztu ondoren, arrasateko lortuz, gainera, lehen aldiz izango da *Gixonak* gure ibarretan. Hitzordua: domekan, 19:30ean Amaia antzokian.



**Berezitasunak**  
**Kazuelatxoak**  
**Ogitarteko**  
**hotz eta beroak**

Arrasate pasealekua 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

**MADINA ZURAK**  
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tableta
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegi osagarriak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea • Tel.:  
943 79 13 78 ARRASATE  
e-posta: mz@madinazurak.com

**S. CARRASCAL S.L.**

### Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

### Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15  
Uribarri auzoa 4  
Tel. faxa: 943 79 01 82

**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak**  
**beirina eta kristalak osagaiak**

San Andres Auzoa 10. pabilioia  
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25





**Guk bezala,  
egin apustu  
Euskal Eskola  
Publikoaren alde!**



BEDOÑABE • Tel: 943 79 20 69



MUSAKOLA • Tel: 943 79 04 49



ERGUIN • Tel: 943 79 77 74

Matrikulazio epea zabalik  
haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan  
**MARTXOAREN 31tik APIRILAREN 11ra**



**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

**Hedabide guztietarako  
telefono berria eta bakarra  
943 25 05 05**



**Goienkaria Goienkaria**



**Goiena.net**



PILOTA &gt; DEBARRO TXAPELKETA

## Kadetetan eta gazte mailan Eskoriatza dabil nagusitzen

Domekan, kadeteek bakarrik jokatu dute seigarren jardunaldia

X.U. &gt; ARRASATE

Poliki-poliki Debarroko Pilota Txapelketa aurrera doa. Domekan jokatu dute seigarren jardunaldia, baina kadete mailakoek bakarrik izango dute jarduna, gazte mailakoek eta seniorrek deskantsua izango dute-eta.

Hala, Elgoibarko taldeak Elgeta izango du aurrean; Bergara II taldeak Aretxabaletaren kontra jokatu du; Arrasate eta Bergara I izango dira aurrez aurre; eta Eskoriatzako kadeteek deskantsua izango dute.

### ESKORIATZAKOAK ONDO

Orain artekoa ikusita, Deba-goieneko pilotariak Debarrenakoek baino maila politagoa erakusten dabilta. Lehenengo multzo horretan, Elgoibarrak eta Eibarrek gura baino gehiago sufritu dute ibarrekoen kontra.

Hala, kadete mailan Eskoriatzak 10 puntu ditu, eta atzetik datoz Bergara (7) eta Aretxabaleta (7). Gazte mailan ere Eskoriatzako pilotariak daude aurrean, zortzi punturekin, eta atzetik datoz Arrasate (7) eta Bergara (6). Azkenik, seniorretan, lehenengo multzoan Arrasatekoak ondo dabilta nagusitzen (8) bigarren sailkatu Elgoibarrari hiru puntuko aldea atera diote-eta. Eta, bigarren multzoan Elgetakoak (6) eta Antzuolakoak (6) berdinduta daude.



ARDOI Biain, Ardoiren kontrako garaipeneko partiduan; talde horrek E. Leclerci irabazita mesede egin dio MURI.

J.A.

SASKIBALOIA &gt; LEHENENGO MAILA. IGOERA FASEA

## MUren hurrengo pausoa Urdanetaren kantxan

Azken jardunaldian, bigarren postuan dagoen E. Leclerc taldeak MU harrapatzeko atzerapausoa egin zuen Ardoiren kantxan

XABIER URTZELAI &gt; ARRASATE

Valsai Ardoi talde nafarrak neurria hartu die kategoriako oilarrei. Ligan, Ardoik baino ez zuen MU mende hartu, baina igorera faseko azken jardunaldian, Arrasatekoak kalteordaina jaso zuten. Izan ere, MU estutzeko talde faboritoak, E. Leclerc taldeak, 90-81 galdu zuen Ardoiren kantxan.

Hori horrela, Arrasateko taldeari *erraztu* egin zaio EBARako txartela eskuratzeko bidea. Eta *erraztu* diogu, oraindik ere igorera fase horrek gura beste ezusteko eman ditzakeelako. E. Leclerc taldearen porrotak are eta bizitasun handiagoa eman dio igorera faseari; izan ere, oraingoz MU indartsu badago ere (19), bigarren postua eskuratzeko lehia estutu egin da. Hala, Via-

jes Marfil (16) taldearen hatsa gain-gainean sumatuko dute Leclercekoek, eta pauso bat atzerago baino ez daude Ardoi, Urdaneta eta Cafes Aitona.

### URDANETAREN KANTXAN

Merinoren mutilek Loium jokatu dute bihar (16:30), hain zuzen ere, bigarren postu hori gertu izan gura duten Urdanetakoek kontra. Badirudi bizkaitarrendako erronka handiegia izango dela hori, aurrealdeko multzo horretan badirelako hautagai indartsuagoak, baina joan den astean Cafes Aitonaren kontra galdu eta gero (79-77) Urdanetak egindako atzerapausoa samurtu gurako du. Biharko partiduari begira, MUko entrenatzaileak jokalaria bat gutxiago izango du eskura: Aitor Zeziaga.

Bazirudien Zeziagak gaituta zuela sorbaldan izandako lesioa, baina Aste Santuan egindako entrenamendu saioan min hartu zuen berriro ere, eta ebakuntza egingo diote. Hala, aurtengo denboraldiari agur esango dio, baina seguru dena emango duela datorrena gorputzaldi onenean hasteko.

### Igorera faseko sailkapena

Mondragon Unibertsitatea	19
E. Leclerc Vitoria	17
Viajes Marfil	16
Valsay Ardoi	15
Urdaneta	15
Cafes Aitona	15
Fundacion Baskonia	14
Tabirako Baque	13
CNP-UPNA	13
Zornotza	13

ITURRIA: WWW.OINTXE.COM



ARRASATE ATLETIKO TALDEA

## Pertika jauzilariak Benicassimera

Espainiako federazioak gonbidatuta, Arrasateko taldeko pertika jauzilariak Benicassimen izango dira asteburuan, han egingo duten kontzentrazioan parte hartzen. Besteak beste, Espainiako Txapelketan egindako lan borobilagatik gonbidatu dituzte. Irudian Maialen Axpe podiumeko bigarren postuan (3,16 metro, Euskadiko errekor berria).



**Pando Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Toilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebedun hizkiak

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE



**Kapikua**  
OPARIAK ETA OSAGARRIAK

Bañez doktorea 4  
(San Andres auzoan)  
Arrasate  
Tel.: 943 79 19 94



nire bidaia hura

**Liher Gracia**

Eskozia > 2006ko abuztua

# "Glasgow eta Edinburgo duela 20 urteko Bilbo eta Donostiaren antzerakoak dira"

JASONE ZABALA > ARRASATE

Liher Gracia eta Oihana Ezkurak beti amestu zuten halako bidaia bat egitea. "Paisaien berdetasuna, Edinburgoren sona eta ospea, bertako musika tradizionala, folka...", hauek izan dira Graciak eman dizkigun arrazoiak bidaia Eskoziara egiteko. Buelatzeko esperantza dute, Eskoziako txoko batzuk (Oban eta Highlands hego-mendebaldea) bisitatu gabe utzi zituztelako duela ia bi urte egingdako bidaia honetan.



Liher Gracia.

Gasteiztik atera ziren hegazkinez eta, Londresen gau bat pasatu ondoren, Glasgow-tik gertu dagoen Prestwick-eko aireportuan zapaldu zuten lehenbiziko aldiz eskoziar lurraldea. Bertan auto bat alokatu zuten, eta hemen gertatu zitzairen lehen bitxikeria: "Autoa hartu bezain laster, parkineko lehen bidegurutzean alderantzizko bidea hartu genuen eta bertako polizia batek atentzioa deitu zigun, barrez lehertu beharrean zegoela. Lehenengo minutuak arraroak dira inoiz Britainia Handian gidatu ez duen batentzat".

Hemendik Edinburgorantz abiatu ziren: "Benetan hiri ikusgarria iruditu zitzaigun: sekulako monumentuak, kaperak, gazteluak, jauregiak, elizak, Erdi Aroko kaleak... daude-eta", adierazi digu Graciak. Gainera, "abuztua izanik, giro aparta zegoen hirian

**"Autoz lehenengo minutuak arraroak dira inoiz Britainia Handian gidatu ez duenarentzat"**

**"Glasgow hiri handia eta industrialia da, eta Edinburgorekin ez du batere zerikusirik"**

barrena, *military tattoo* delako ospakizunaz: turista ugari, kaleantzerkiak, musika, eta abar". Edinburgotik iparraldera dagoen Stirling herria bisitatu zuten ondoren: "Ezinbestekoa da Eskoziara bazoaz bertara joatea. Bertan, historiaz beteriko gaztelua bisitatu genuen, non umorez osaturiko azalpenak eman zizkiguten Ertaroko jantziz zeuden bi gidarik", adierazi digu Graciak.

Eskoziako Highlands zonaldera heldu zirenean, Aviemore herrian eskala egin zuten: "Ingurune honek klima sub-artikoa du, 1.000 metrotik gorako Cairngorm mendikateen eraginez".

Bertan, Cairngorms-eko Parke Nazionala dago. "Nahiz eta guretzat mendi altuak ez izan, eski estazioak daude bertan", adierazi digute biek. Ness lakua ere bisitatu zuten, baina desengainua hatu zuten: "Eskoziako mila laku daude Ness lakua baino erakarriagoak direnak, nahiz eta jen-

de guztia hara joan munstroaren kondairaren berri jakitera. Negozio usaia hartzen zaio inguruari", Graciaren arabera.

**BUKATZEKO, GLASGOW**

Bidaia amaitzeko, Glasgow-n egon ziren: "Glasgow hiri handi eta industrialia da eta Edinburgorekin ez du batere zerikusirik. Bi hiri hauek duela 20 urteko Donostia eta Bilboren antzerakoak dira. Bata, xarriak, turistikoa eta *ñoñoa* (Edinburgo); bestea, berriz, industrialia, langilea eta zikinagoa, baina animazio handiagoarekin". Eguraldia zoragarria izan zuten, urtaro horretan Euskal Herrian egiten duenaren antzerakoa. Janaria ez da oso goxoa, euren iritziz: "Ez da oso ondo jaten Eskoziako, eta ez dago sukaldaritza propiorik, *haggis* delakoa izan ezik", esan digu Graciak.

Orokorrean, Eskoziako jendea adeitsua eta laguntzeko prest dagoena dela esan digute biek.



Oihana Ezkurra eta Liher Gracia, Eilean Donan gazteluan ateratako argazki batean.

bere ustez



Jose Riviere

## Sinestezina baina egia

**E**z da nire asmoa politika kontuetan sartzea, baina nire ustez guztiz kaltegarria izan zen gertakari bat aztertu nahiko nuke. Martxoaren 9an, San Andreseko hauteslekuan gertatutakoaren deskribapena egingo dut. Edozein herritarrek daukan eskubidea betetzera nindoan aurrez aipatutako hauteslekura. Eza-gun batzuek bozkatzeko zaila izango nuela esan zidaten, bozkatzeko gelak bigarren solairuan zeudelako. Nik egunero bizitzarako makulua erabiltzen dudala kontutan hartuta,

**"Edozein herritarrek daukan eskubidea betetzera nindoan aurrez aipatutako hauteslekura"**

zailtasunak bazeuden egoera horretan. Ez nuen sinistu ere egin nahi esaten zidatena, beste batzuetan hauteslekua lehen solairuan jarri baitute. Bertara heldu nintzenean ikusi nuen egia zela, eta jende ilarak zudela eskailleratan gora eta behera ibiltzeko eta baita igogailua hartzeko ere.

Egoera ikusita hauteslekuak jarri zituzten arduradunei galdetu nien ea ez al zegoen aukerarik hautesleku horiek beste batzuetan bezala behoko aldean jartzeko, horrela errazagoa izango litzateke elako hauteslekuetara sartzea jendearen joan-etorria erraztuz, bereziki ezinduek eta jende nagusiarentzat. Ez dut pentsatu nahi, abstentzioari begira talderen bati mesede egitearren kokatu zenik hauteslekua bigarren solairuan.

**Monte  
taberna**

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

**db** KONTRATAK  
**IRYROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14  
ARRASATE

**IAMAI ANTZOKIA**  
*kafe*  
**ARRASATE**

Gaur, MARTXOAK 28,  
00:00etan  
Quique Matilla | Bakarrizketak

*Lore*

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50



ZIENTZIA &gt; BOTANIKA

# Landare sikuen gaineko lokala zabaldu dute herrian

Azken 16 urteetan lokal gabe egon ondoren, asteazkenean egin zuten inaugurazioa

Ekainaren 6an erakusketa izango da kultura etxean, Mundumira dela-eta

JASONE ZABALA &gt; BERGARA

Jose Antonio Aperribai bergararrak betidanik izan du landarekiko zaletasuna. Aranzadi zientzia elkarteko kide ere bada. Zaletasun hori eta bere ezagutzak jendearen eskura ipintzeko asmoz, lokala zabaldu du Koldo Eleizalde kaleko 6. zenbakian. Aperribairen helburua, jendek berak duen landare-siku bilduma ikustea ez ezik -dagoeneko 1.000tik gora ditu-, edonork landare, hosto edo zuhaixken gaineko kontsulta egitera joateko aukera izatea da. Debagoienean halako lokal bakarrenetako dela adierazi digu Aperribai. Pasa den eguaztenean izan

zen inaugurazio ekitaldia, eta bertara lagun ugari hurbildu ziren, besteak beste, Aranzadiko botanika saileko presidente izandako eta Aranzadiko kide Iñaki Aizpuru. Aizpurren esanetan, "gutxi ezagutzen da hostoak biltzearen lana, eta askok egin dezaketen galdera da: zergatik ibili hostoak biltzen?. Baina hori guztiontzako aberasga-

ria da. Gure lurraldea landare askoko lurraldea da. Gipuzkoan 2.000 landare ezberdinetatik gora ezagutzen dira, eta Euskal Herri osoan, 3.500etik gora".

ERAKUSKETA EKAINEAN

Hainbeste urte botanikan ibili eta gero, bere nahietako bat bete du orain Aperribai: "Jarduera honetan 28 urte daramatzat, eta azke-

neko 16 urteak lokal gabe egon naiz. Orain, aukera izango dut landare-bilduma lan honetan jarraitzeko".

Bestalde, datorren ekainaren 6an, 7an eta 8an Bergaran ospatuko den Mundumira kulturen jaialdiko ekitaldien barruan, landare sikuen erakusketa egingo du Bergarako kultura etxean, ekainaren 6an hasi eta bi aste zehar.



AURKEZPENA Aizpuru eta Aperribai, eguaztenean egindako aurkezpenean.

JASONE ZABALA

&gt; IKASTAROAK

## Azken eguna umeendako masajeen izena emateko

Aranzadi ikastolak eta Haurtxoa haurtzaindegiak umeen masajeak ematen ikasteko ikastaroa eta haurren emozioen gaineko tailerra antolatuko dute. Ikastaroa 0 eta 1 urte arteko umeendako da eta eskolak apirilaren 14an, 21ean eta 28an eta maiatzaren 5ean eta 14an izango dira, 17:00-19:00 ordutegian, Aranzadin. Prezioa 85 euro da. *Nola lagundu haurrei beraien emozioetan* delako tailerra apirilaren 23an izango da, 17:00-19:00 ordutegian. Prezioa 17 euro dira. Izena emateko azken eguna gaur da.

&gt; UDALEKUAK

## Aldundiaren udalekuan izena emateko epea zabalik

Epea zabaldu dute Gipuzkoako Foru Aldundiak udarako antolatzen dituen Udalekuak 2008n izena emateko. Hain justu, 7 eta 13 urte arteko gaztetxoendako dira eta apirilaren 9ra arte eman daiteke zozketan parte hartzeko izena. Bi modutan eman daiteke izena: [www.gipuzkoa.net/oporrraldi](http://www.gipuzkoa.net/oporrraldi) helbidean eta Bergarako Gazte Informazio Gunera edo Kultura Zerbitzura joanda (biak kultura etxean).

GAZTEAK &gt; TOPAKETAK

## Gazte Topaketetarako 32 gaztek eman dute izena

M.B. &gt; BERGARA

Kultura Sailak antolatutako Gazte Topaketetarako 32 gaztetxok eman dute izena, bost taldetan banatuta. Gazteok 13 eta 15 urte artean dute eta herriko hiru ikastetxetako ikasleak dira. Kultura Zerbitzuak halako tokapetak antolatzen dituen lehen aldia da eta, aurreratu dutenez, bete egin dira zeuzkaten aurreikuspenak.

Topaketok apirileko egubakoitzetan izango dira, eta lehenengo hitzordua datorren egubakoitzean da, hilak 4. Grafiti eguna ospatuko dute eta, horretarako, 17:00etan batuko dira Labegaraian. Sariak ere izango dira eta baita opari berezia ere animazio handien jartzen duen taldearendako: Sobroneko (Araba) abentura parkera irteera maiatzaren 24an.

## Kultura etxeko leiho eta ate bat apurtu dituzte

Kultura Zerbitzutik jakinarazi eta salatu dute kultura etxean hainbat txikizio egin dituztela ezezagun batzuek Aste Santuan. Hilaren 22an, eraikinaren alboko atea agertu zen apurtuta. Hilaren 25ean, berriz, lehenengo solairuko -liburutegia- leiho bateko kristalak, harrikadaka.



GOIENKARIA

**margolan**  
m a r g o a k

- margo industrialia
- margo orokorra
- margo dekoratiboa
- erreformak orokorrean
- fatxadak

## KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

## Jose M. Martín

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 62 02 /  
666 517 295



EUSKARA > HITZARMENA

# 65 elkarte, euskararen erabilera bultzatzen

Konpromisoak berresteko hitzarmena sinatuko dute Euskara Zerbitzuarekin apirilaren 12an

Arlo soziokulturalean diharduten taldeak dira; batik bat, ume eta gazteekin lan egiten dutenak

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Euskararen erabilera bultzatzeko hitzarmena sinatuko dute herriko 65 entitatek Udaleko Euskara Zerbitzuarekin. Arlo soziokulturalean diharduten taldeak dira; batik bat, ume eta gazteekin lan egiten dutenak. Hala nola, 27 kultura eta aisialdi talde, 15 kirol talde, bi erlijio talde eta 21 akademia eta ikastetxe dira hitzarmena sinatuko dutenak. Dena den, kopuru horrek gora egin dezake sinadu-

ra ekitaldira bitartean –apirilak 12. Izan ere, Euskara Zerbitzuak aurreratu duenez, aurrez harremanetan jarritako talde batzuen erantzunaren zain daude. Bestalde, orain arte harremanik ez izan arren, arlo soziokulturalean diharduen bestelako talderen batek hitzarmenean interesa izanez gero, ateak zabalik dituela ere gehitu dute Euskara Zerbitzutik: "Hona deitu besterik ez dute, 943 77 91 66 zenbakira", gehitu dute.



GAZTEAK Batik bat gazteen artean bultzatu nahi dute erabilera.

GOIENKARIA

Hain zuzen, hitzarmena apirilaren 12an sinatuko dute baiezkioa eman duten elkarte guztiek, osoko bilkuren aretoan, 12:00etan egingo den sinatze-ekitaldi publikoan.

HITZARMENA

Bergaran euskaraz *ingou* leloa du hitzarmenak –eta lau urteko iraupena–, eta hori sinatuta, euskararen erabilera bultzatzeko helburuak eta konpromisoak

bere egingo ditu elkarte bakoitzak. Honako konpromisoak, besteak beste: ahalegin berezia egingo dute elkarteek zuzendaritza-organoetako kideak eta, batik bat, lehendakaria, idazkaria eta diruzaina lana euskaraz betetzeke gaitasuna dutenak izan daitezten; elkartearen batzarrak euskaraz egingo dira, ahal den neurrian, eta baita bilera deiak eta aktak euskaraz jaso ere; kanpo erabilerarako elementuak euska-

raz egongo dira; bazkide eta herritarrekin harremana izango duten pertsonak euskaldunak izan daitezten ahalegin berezia egingo da; ahalegin berezia egingo da, baita ere, entrenamendu, entsegu, ikastaro eta halakoak euskaraz izan daitezten.

Elkarteek hori guztia gauzatu dezaten, hainbat laguntza emango ditu Udaleko Euskara Zerbitzuak.

1991TIK GAUR EGUNERA ARTE

1991. urtean sinatu zen euskararen erabilera bultzatzeko lehengo hitzarmena. *Hau ez da Bergarako besarkada* leloa zuen eta herriko 49 entitatek esan zioten baietz. 1995ean beste elkarte batzuk batu zitzaizkion eta 1998. urtera arte luzatu zen elkarteon eta Udaleko Euskara zerbitzuaren arteko elkarlana. Baina 1998an harremana galdu egin zen. Hala, harremana berreskuratzeke bideari ekin zion 2006an.

Horretarako, batik bat ume eta gazteekin lanean dabilzan 73 entitateekin harremanetan jarri zen eta hizkuntza egoeraren diagnostia egin zuen 2006 eta 2007 bitartean.

Txosten hartan jaso zituzten 73 elkartearen artean zeuden 30 kultura eta aisialdi talde, 23 kirol talde; bi erlijio talde eta 18 akademia eta ikastetxe. Eta horien artean egindako ikerketarekin ondorioztatu zuten taldeotan dihardutenen %86,4 euskaldunak direla, eta %8,2, ia euskaldunak.

HEZKUNTZA > EUSKAL HERRIAK BERE ESKOLA TALDEA

## Hezkuntza Sistema Nazionala aldarrikatzeko ekitaldiak izango dira datozen egunetan

Euskal Herriak Bere Eskola taldeak nazio mailan antolatutako kanpainaren barruko ekitaldiak dira

M.B. > BERGARA

Euskal Herriak Bere Eskola taldeak antolatutako ekitaldiak izango dira datozen egunetan herrian. Hezkuntza Sistema Nazionala aldarrikatzeko kan-

paina hasi zuen talde horrek martxoaren 31n, eta ekitaldiok kanpaina horren barruan daude.

BERGARATIK EUSKAL HERRIRA

EHBEn kanpaina nazio mailakoa da, eta ibiltaria. Hain justu, Bergaran hasiko da eta Arrasate eta Aretxabaletatik igaro eta gero, Euskal Herriko beste bailara batzuk zeharkatuko ditu, maiatzaren 31ra bitartean. Antolatzaileen esanetan, kanpaina "partehartzailea eta herritarra" izatea nahi dute, eta horretarako antolatuko dute "haur eskoletatik uni-

bertsitaterainoko hezkuntza eremua ukituko duen ekitaldi sorta". Hezkuntza Sistema Nazionala aldarrikatzeko kanpainaren helburuak, berriz, honakoak dira, besteak beste: arlo horretan ematen diren urratsak herri aldarrikapen bilakatzen hastea eta esparru ezberdinetatik sortzen diren inposaketak salatzea.

Horrek guztiarekin, martitzenean, apirilak 1, izango da lehen ekitaldia herrian, kultura etxean zabalduko duten erakusketarekin. Hilaren 5ean, berriz, egun osoko ekitaldi sorta izango da.

> DEIALDIA

### Batzar informatiboa deitu dute San Martin herri eskolakoek apirilaren 2rako

San Martin eskolak batzar informatiboa egingo du eguaztenean, apirilaren 2an, 18:30ean. Batzar horretan eskolaren proiektuaren eta antolamenduaren gaineko azalpenak emango dituzte. Matrikulazio epea martxoaren 31tik apirilaren 11ra bitartean delako antolatu dute ekitaldi hori.

> IRTEERA

### San Joxepe elkarteak irteera antolatu du irailerako, eta izena emateko epea zabalik dago

San Joxepe erretiratuen elkarteak astebeteko irteera antolatu du irailerako. Hain justu, irailaren 18tik 24ra izango da oporraldia eta hainbat herri eta hiri ikusteko aukera izango da; gainera, bisita gidatuak ere izango dira lekuok hobeto ezagutzeko. Bisitatuko dituzte: Salamanca, Alcantara, Caceres, Guadalupe, Trujillo, Merida, Olivenza, Elvas, Jerez de los Caballeros, Zafra, Plasencia eta Jerteko bailara. Izenematea: ekainaren 4a baino lehen.

### Egitaraua

#### Apirilaren 1etik 4ra

Hezkuntza Sistema Nazionalaren gaineko erakusketa, kultura etxean.


#### Apirilak 5, zapatua

12:00 Monzonen eta trantsizioaren gaineko hitzaldia, udaletxean.

17:30 Umeendako jokoak, Munibe plazan.

19:00 Gabero abesbatzaren emanaldia eta Ikurrin dantza, Munibe plazan.

23:00 Emon taldearen kontzertua, Pol-Pol tabernan.



**JAUJA  
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95

**JOXAN  
ARRAINDEGIA**



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

### Ion Murgizu Pinturak

Margoketa  
orokorrean

- Enpapelatuak
- Iztukoak
- Fatxadak
- Eskilarak eta patioak
- Pintura industrialia

Zabalotegi 9, 2. esk • Bergara  
Esozia 24- 2º behea • Soraluze

Tel.: 943 75 13 24  
Mug.: 652 77 70 30



PINTURA &gt; ERAKUSKETA AROZTEGIN

# Fernando Azkargortaren pintura lanak ikusgai Aroztegi aretoan

Simon Arrietaren dizipulu gogokoenaren lanak Aroztegi aretoan ikusi ahal izango dira

Euskal Herriko paisaiak dira haren inspirazio iturburu nagusiak

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

Fernando Azkargorta artista bergararra zenaren margo erakusketa antolatu du Aroztegi aretoak apirilaren 4an hasi eta apirilaren 27ra arte.

Euskal Herriko naturaz maitemindutako artista izanik, euskal paisaiak margotzen oinarritu zuen ia artelan osoa. Hurrengo egubakoitzean hasiko den erakusketan, beraz, euskal paisaiak Azkargortak ulertzen zituen erara izango dira ikusgai. Erakusketan 30 bat artelanez gozatzeko aukera izango da.



AIRE ZABALEAN Simon Arrieta eta Fernando Azkargorta, Mertxe Zelaiarekin batera margotzen.

I.A.

## BERE HERRIA MAITE ZUEN ARTISTA

Fernando Azkargorta Bergaran jaio zen, 1919ko maiatzaren 30ean. Simon Arrieta artista famatuaren dizipulu gogokoena izan zen

eta hil arte lagundu zion Pintura Eskola sortu eta mantentzen. Hasiara batean zaletasun hutsa zen pintura Azkargortarentzat, ogibidez Bergarako industria

bateko zuzendaria zen-eta. Negozioek sortzen zizkioten buruhausteetatik ihesi joan zen pinturara, lantokian lortu ezin zuen lasaitasuna lortzeko asmoz.

Gaixotasunak jota geratu zenean, ordea, bere bizitzaren ardura osoa eskaini zion pinturari. Orduetik aurrera, lanak euskal hiriburu nagusietan izan zituen ikusgai, eta euskal margolarien artean ospe handia jaso zuen.

Simon Arrieta moduan, oso goiz hil zen Azkargorta, 1973ko martxoaren 15ean. Bi artista bergararrak ondorengoengan eragin handia izan zuten margolariak izan ziren.

## KRITIKARIEN ARTEAN ONESPENA

Fernando Azkargorta heldutasun artistikora iritsi eta gutxira hil zela esaten da.

Hala ere, arte kritikarietako artistaren lana goraiatu egin izan dute. Haien ustez, Azkargortak bereziki paisaietan islatu zuen izaera eta barneko pertzepzioa eta espirituala goraiatzekoak diren ezaugarriak dira.

Gizon geldiezina, atsegina eta herritarra zen Azkargorta. Hala, baieztapen hori bere lanetan islatzen ote den argitu nahi duenak margo erakusketara gerturatu beharko du.

LEHIAKETAK &gt; MENDEKOSTE JAIK

## Mendekoste jaietako zapiaren marrazkia aurkezteko azken eguna apirilaren 25a izango da

Kartelaren marrazki lehiaketara aurkezteko, berriz, apirilaren 7a izango da azken eguna eta irabazleak 600 euro eskuratu ahal izango ditu

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

Aurtengo Mendekoste jaietarako zapiaren marrazki lehiaketara aurkeztekotan dabilenak apirilaren 25a baino lehenago egin beharko du.

Jardun euskara elkarteak antolatuta, jaietarako zapiak bete beharko dituen gutxieneko baldintzak honako hauek dira: marrazkiak A-4 formatuan aurkeztu beharko dira eta marraz-

kiarekin batera zapiak euskararen erabilera bultzatzen duen leloren bat izan beharko du.

Hain zuzen ere, interesatu guztiek Jardun euskara elkartearen bulegoan aurkeztu edo

[jardun@topagunea.com](mailto:jardun@topagunea.com) helbide elektronikora bidali beharko dituzte lanak.

## JAI EGITARAUAREN KARTELA

Mendekoste jaietarako programaren azalari dagokionez, Bergarako Kultura Zerbitzuak marrazki lehiaketa antolatu du, urtero moduan.

Apirilaren 7ko 13:00ak baino lehen aurkeztu beharko da jaiak iragarriko dituen kartelaren marrazkia. Marrazki irabazleak 600 euroko saria jasoko du, baina saria eman gabe gera daiteke, epaileek hala baderitzote.

Bestalde, marrazkiak bete beharreko oinarri teknikoak honakoak dira: kartelek 24 x 34 zentimetroko neurria izan behar dute, formatu bertikalean. Horre-

taz gain, paperean inprimatuta eta kartoizko oinarri baten gainean aurkeztea derrigorrezkoa da, eta teknika librea erabili ahal izango da.

Kartelek izan beharreko testua *Pentekoste Jaiak 2008 Bergara* da eta ezin izango dute egilearen nortasuna agerian utzi dezakeen ezer eduki. Gainera, atzeko aldean lelo bat dutela aurkeztuko dira kartelak: gutun-azal itxi batean leloa kanpoan eta egilearen datuak barruan jarri beharko dira.

Horretaz guztiaz gainera, sari-tu gabe geratu diren lanak erakusketaren azkeneko egunetik hasi eta 30 eguneko epean jaso ahal izango dira. Epe hori amaituta, Udala lan horietaz baliatu ahal izango da.

# BERGARA

## Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. [bergara@bergaramargoak.com](mailto:bergara@bergaramargoak.com)



Iturgintza  
Berogintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
Salmenta

Arruriaga 11  
686 943 918

# ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA


*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09



# ARANZADI IKASTOLAko ALTXORRAK GORDETZEN DUENA

- Herriak sortutako ikastetxe bakarra
- Euskal Herri osorako sare bakarra
- Presio ideologikorik gabea
- Autonomia bere kudeaketan
- Saritutako ikasmaterialgintza propioa
- Profesionalak metodologia berrietara prestatzen dituenak
- Ibilbide pedagogiko integrala: 2-18 urte
- Euskal Curriculumaren diseinuan parte hartzaile aktiboa
- Emaidza akademiko bikainak
- Tutoretza partekatua
- Euskaraz bizitzen irakasten duena



**BILERA INFORMATIBOA:**  
apirilaren 1ean,  
18:30ean

**AURREMATRIKULAZIOA:**  
martxoaren 31tik  
apirilaren 11ra



**ARANZADI**  
*ikastola*

**KALITATEZKO EUSKAL HEZIKETA**



PILOTA &gt; BERGARA HIRIA TXAPELKETA

# Bergara Hiria txapelketan 32 pilotari lehiatzen

Martitzenean, apirilak 1, hasiko dute Udal Pilotalekuan amateur mailako puntako pilotariekin osatutako txapelketa

XABIER URTZELAI &gt; BERGARA

Badator pilota mailan Bergarako Txapelketa indartsuena, Bergara Hiria. Eta, urtero moduan, txapelketako antolatzaileek amateur mailako puntako pilotariak gonbidatu dituzte. Norgehiagoka guztiak martitzenetan jokatu dituzte –udal pilotalekuan, 19:30ean–, eta datorren martitzenean bertan hasiko dute lehia; Astibi-Olalde bikoteak Perez-Telletxearen kontra jokatu du norgehiagokak egingo du estreinaldia.

BI TALDEAN BANATUTA

Txapelketan bi talde osatu dituzte, 22 urtez azpikoak batetik eta nagusiak bestetik;senio-

rretan, Garralda-Beiroz, Beitia-Zabala, Muguruza-Bengoetxea, Ollo-Linzoain, Renobales-Arrastoa, Gorra-Gomez, Mendizabal-Jauregi eta Onsalo-Galarraga bikoteak lehiatuko dira; eta 22 urtez azpikoetan, Astibi-Olalde, Perez-Telletxea, Jaunarena-Bergera, Epelde-Diez, Iturrioz-Merino, Elezkano-Landaburu, Idoate-Peñas eta Rico-Perez pilotariak izango dira zein baino zein gehiago.

Hala, apirileko martitzenetan jokatu du jardunaldien ondoren, apirilaren 29an eta maiatzaren 6an jokatu dituzte finalerdiak, eta eta maiatzaren 12an izango dira finalak.



ERREBANTXA 2006ko Bergara Hiriko errebantxako erretratu.

GOIENKARIA

TXIRRINDULARITZA &gt; GIPUZKOAKO SELEKZIOA

# Unai Arantzabal eta Kepa Varela ziklistak profesionalekin lehiatu dira Aste Santuan

X.U. &gt; BERGARA

Lokatzako harrobiak emandako Unai Arantzabal (Bidelan Kirolgi) eta Kepa Varela (Cafes Baque) txirrindulariak profesionalekin lehiatu dira Aste Santuan. Hain zuzen ere, bi txirrindulari horiek Gipuzkoa-Moyua –Gipuzkoako selekzioa– proiektuan parte hartzen izan dira, Classic Loire Atlantique eta La Roue Tourangelle UCI mailako lasterketa profesionaletan. Lehena martxoaren 21ean korritu zuten, egubakoitzaren ostean, eta bestea martxoaren 23an, domeka. Egubakoitzeko proba gogorra izan zen, 18 kilometroko zirkuituari hamar itzuli. Ibilbide

gorabeheratsua izan zen, errepede estuetan, eta 170 txirrindularitatik 54 baino ez ziren helmugara iritsi. Varelak lehenengo itzulian utzi behar izan zuen proba, erorketa batengatik baldintzatu. Eta, Arantzabalek ere arazak izan zituen, eta ezin izan zuen proba amaitu.

Domekan, berriz, Bergarako ondo moldatu ziren puntako txirrindularien aurrean (195 km). Azken metroetan Arantzabal laugarren postuagatik lehiatu zen, baina esprintean baztertu egin zuten eta ezin izan zuen behar moduan esprinta egin. Varelak ere ondo amaitu zuen proba.



BERGARAKOAK Arantzabal eta Varela, selekzioarekin.

IKER SANCHEZ

## labegaraieta

### EMAITZAK

Komando Piperrak-Latinos.com	7-5
Carboneros-Belengua	5-3
CM Errotagain-Niu Tim	3-0
Hamaika Jintxi-Los Blus	0-3
Deportivo Oriente-Tiki-Taka	3-11
Irubide-Irish Pub	atzeratuta

### PARTIDUAK

Martxoak 30, domeka	Epaileak
09:30 Carboneros-Irubide	Irish Pub
10:30 Irubide-Irish Pub	Carboneros
11:30 Irish Pub-Niu Tim	Belengua
12:30 Belengua-CM Errotagain	Niu Tim
16:30 Los Blus-Tiki Taka	Komando Pip.
17:30 Komando Pip.-Hamaika Jintxi	Deportivo
18:30 Latinos.com-Deportivo O.	Hamaika

### SAILKAPENA

	P	J
1. CM Errotagain	49	18
2. Komando Piperrak	42	18
3. Irish Pub	41	17
4. Los Blus	37	18
5. Carboneros	34	18
6. Tiki-Taka	26	18
7. Niu Tim	23	18
8. Belengua	17	18
9. Irubide	14	17
10. Latinos.com	9	8
11. Hamaika Jintxi	7	18
12. Deportivo Oriente	1	18
13. El Mapet	0	10

## Aste Santutik bueltan, abisu gehiagorekin

Latinos.com taldeak kontu handiz ibili beharko du datozen asteotan, antolatzaileek gertutik jarraituko dute-eta talde hori; izan ere, Latinos.comendako bi ohar dituzte antolatzaileek: batetik, azken jardunaldian zigorra jaso zuen Gustavo Zabalak aurrerantzean ez badie epaileen esanei kasu egiten txapelketatik kanporatuko dutela; eta bestetik, gainontzeko taldekideei ere abisu bera, kasurik egiten ez badute, kanpora.

Ohar eta zigorrak, baina, ez dira hor amaitzen, Hamaika Jintxi taldeari hiru puntu kendu dizkioteko azken jardunaldian jokatzera ez joateagatik; hori errepikatuz gero, txapelketatik botako dituzte.

Bistan da zigor eta ohar horiek ez direla oporralditik bueltan txapelketa itzultzeko modu onena, baina ez dago besterik.



*Eraman dotoretasuna zure etxera*



**gelatzo** s.l.

Zubillaga auzoa 1  
OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxe: 943 78 15 51



**mingainari tiraka**

Izena Abizena > Zer deeeeeeeen

"XXXX XXX XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX XXX XXXX XXX"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Uli, elephantos Alpes traduxi neque tamen primus elephantos belli adhibui.Cuius regis occidetalis milites primi conspectum elephatorum. Anno millesimo nongentesimo nonagesimo primo iu bileum meum celebratur.

Ez da egia Alpes traduxi neque tamen prim?

Cum artem meam musicam iam ante tempus longum creaverim, tamen hod

Ez da egia Alpes traduxi neque tamen prim?

Cum artem meam musicam iam ante tempus longum creaverim, tamen hod

Ez da egia Alpes traduxi neque tamen prim?

Cum artem meam musicam iam ante tempus lonm musicam iam ante tempus lonm musicam iam ante tempus longum creaverim, tamen hod

Ez da egia Alpes traduxi neque tamen prim?

Cum artem meam musicam iam ante tempus longum creaverim, tamen hod.

**bere ustez**

Edorta Mendieta

XXX XXXX XXXXX  
XXXX XXXX XXXX  
XXXX XXXX XX

DXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX  
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX  
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX  
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX  
XXXXXXXXXXXX.  
XXXXXXX.  
XXXXXXXXXX.

"XXXX XXX XXXXXX  
XXXXXX XX XXX  
XXXXXX XXXXXX XX  
XXX XXXXXX XXXXXX  
XXXXXXXXXXXXX"

**bergararak kanpoan**

Izena Abizena > Zer deeeeen  
Non bizi da

"XXXXXXXX XXXXXX XXXX XXXXXXXXXXX  
XXXXXXXX XXXX XXXX XXXXXXXXXXXX"

KAZETARIAREN IZENA > ARRASATE

Uli, elephantos Alpes traduxi neque tamen primus elephantos belli adhibui.Cuius regis occidetalis milites primi conspectum elephatorum. Anno millesimo nongentesimo nonagesimo primo iu bileum meum celebratur.

XXXXXXXX.  
XXXXXXXXXXXX.

TARTEKIA

XXXXXXXX.  
XXXXXXXX.

"XXXXXXXX XXXXXX  
XXXXXX XXXXXX  
XXXXXX XXXXXX  
XXXXXX XXXXXX  
XXXXXX"

Igone Gonzalez.





Arkauz zure etxea da.

**GRUPO ARKAUZ**  
ARETXABAETA • ARRASATE  
1950-2008



## 2008-2009 ikasturtea

Izena ematea: **martxoaren 31tik apirilak 11ra arte**

Ordutegia: 09:00etik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara



### TALDE EGOKITUAK

- 0 eta 3 urtera arteko haurrak talde egokituetan

### ORDUTEGI ZABALA

- 07:30etik 18:00etara
- Ordutegia moldatzeko aukera

### JANGELA ZERBITZUAK

- Bertan gertatutako janaria
- Haur bakoitzari egokitutako dieta

### EGUTEGI ZABALA

- Egutegi eskolarraz gain, Gabonetan, Pazko astean eta Uztaila zabalik.

### LOGELA



**Txiki txikitatik  
jolasten heziz**

**BELORRIETA 8an GAUDE. 943 77 03 77**





PLAZA Hesia jarri dute plazaren inguru guztian, eta Durana aldeko eskailerak bakarrik erabili ahal izango dituzte herritarrek.

M.A.

HIRIGINTZA > SANEAMENDU LANAK

## Hasi dituzte Herriko Plazako lanak, hilabeteko atzerapenaz

Zuhaitzak botatzea izango da lehenengo lana, baina, aurretik, pergola botako dute

Eskailera bakarra jarriko diote eta, albo bietan, bost metroko arrapala bana

**MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA**  
Martitzenean, hilak 25, hasi zituzten Herriko Plaza berritze lanak. Arrasateko Aikia eta Besaide enpresek osatutako aldi baterako elkarteak hautatu zuen Udalak lanok egiteko, eta langileak hasi dira hesia jarri eta gainerako prestaketak egiten. Atzerapenarekin hasi dira; izan ere, baimen eskaera eta paper konpuek hilabete atzeratu dute lanen hasiera. Hortaz, ezustekorik ez bada, behintzat, urrian izango da gertu berritutako plaza.

**LEHENENGO, ZUHAITZAK BOTA**  
Plazaren inguru guztia itxi dute hesiarekin, eta eliza aurreko eskailerak ere itxi egingo dituzte, dagoeneko itxita ez badaude. Lehenengo lana zuhaitzak botatzea da, zortzi platanondoak, hain zuzen. Horretarako makina handia sartu behar dute, eta, seguru asko, plaza barrenean dagoen

harrizko pergola bota beharko dute aurretik. Ondoren, saneamendu hodiak aldatuko dituzte, eta, bukatzeko, itxura berria emango diote plazari. Lanok aurrera doazen heinean, plazara iragortzeko dauden bi eskailerak –eliza aurrekoa eta Durana kalekoa– itxi egingo dituzte, eta behin-behineko beste eskailera batzuk jarriko dituzte. Santa Kurtz kalekoak, ostera, ez dituzte kenduko.

**ITXURA GUZTIZ BERRIA**  
Zazpi hilabete iraungo duten lanak bukatutakoan, itxura guztiz berria izango du Herriko Plazak. Udaleko Hirigintza Sailak adierazi du irisgarritasunari eman diola lehentasuna proiektuaren diseinua egiterakoan, eta funtzionala izatea dela helburua. Durana kaletik igotzeko eskailera bakarra jarriko dute, eta ez bi, orain dauden moduan.

KONTUAN HARTZEKO

### Santa Kurtz kaleko lanak, datorren urtean

Herriko Plazako saneamendu lanak bukatutakoan, Mitarte kalekoak hasiko dituzte; eta horrekin ere aurtun dute hasteko asmoa. Hala, saneamendu lan horiek biak egiteko, 1.100.000 euro aurreikusitako eta onartu zituzten 2008ko udal aurrekontuan.

Bestalde, Santa Kurtz kaleko saneamendu lanak ere ez dituzte ahaztuta. Aurtun proiektua egingo dute, eta asmoa da datorren urteko udal aurrekontuan sartzea. Iaz Otalora kaleko lanak egin zituzten; hortaz, poliki-poliki, herriko kale garrantzitsuenak dabilza berritzen.

Erdian egongo da eskailera, eta bi alboetatik bost metro izango dituzten arrapalak egingo dituzte. Eliza aurrera ematen duen arkupe inguruak begiratoki itxura izango du, eta arkupeko arkuak ez dituzte kenduko, barruko arkuak bakarrik. Arrapalek 10 metro jango diote orain dagoen plazari; hortaz, txikiagoa izango da. Eta bukatzeko, zuhaitzak landatuko dituzte, hemengo zuhaitzak, baina oraindik ez dute erabaki zein motatakoak. Gainera, plaza eta arkupeak altuera berean egongo dira.

**BIZILAGUNEN IRADOKIZUNAK**  
Proiektua onartu aurretik, bizilagunei erakutsi zien Udalak, eta hainbat iradokizun aurkeztu zituzten. Gura zuten platanondoak mantentzea, balio historikoa dutela esanda. Irisgarritasunari eman diotela lehentasuna erantzun die Udalak, eta zuhaitzok eragotzi egiten dutela behar bezalako arrapalak egitea. Beste leku batera eroateak, ostera, "kostu handia" dakar eta "bizirik iraungo duten ziurtasunik ez".

Bestalde, Santa Kurtz kalearen eta plazaren artean arrapalak jartzea proposatu zuten. Oso gaitza dela erantzun die Hirigintza Sailak, 1,80 metroko aldea dagoenez, 31 metroko arrapalak egin beharko lirakeelako.

**BENGOA  
URDAITEGIA**

Bertako okelak  
eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 19 79

**M**obiliario  
**A**RENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

## GARBITU KOOP. ELK.

*Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak  
Obra bukaerako garbiketak  
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak  
Kristalen garbiketak*

Errekabarren 3- Behea ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 629 45 02 21  
garbittu@euskalnet.net



## TRIALSINA

## Hiru herritar, Gipuzkoako txapeldun

Markel Uriarte, Aitor Murua eta Unai Zuntzunegi dira

M.A. > ARETXABALETA

Bukatu da Gipuzkoako Trial-sin Txapelketa, eta hiru aretxabaletar daude txapeldunen artean: Markel Uriarte, junior mailan; Aitor Murua, haurren artean; eta Unai Zuntzunegi, kimuetan. Itziar Murua, ostera, hirugarrena izan da benjaminetan, eta Mikel Murua, hamargarrena. Bost proba jokatu dituzte, laugarrena Aretxabaletan, eta txapelketa dotorea egin dute guztiek ere.

## PARISKO EKITALDIAN

Parisen egunotan ospatzen dabilzan Koxx Days ekitaldian daude orain Murua eta Zuntzunegi. Bizikletaren inguruan antolatutako ekitaldia da hori, eta trialsin erakustaldia egiteko aukera izango dute.

Bestalde, Espainiako Biketrial Txapelketa hasiko dute Murua eta Zuntzunegik apirilaren 6an. Teruelen da lehenengo proba, eta maiatzean Badajozera joango dira.



Aitor Murua eta Unai Zuntzunegi.



APARKATUTA Furgoneta espaloi gainean aparkatuta Mitarte kalean.

M.A.

## ZIRKULAZIOA &gt; ORDENANTZA

# Zirkulazio isunak Udalak bideratuko ditu, apirilean hasita

Automobila txarto aparkatuta egoteagatik 50 eta 75 euro artekoak izango dira isunak

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Datorren astetik aurrera, apirilak 1, Udalak bideratuko ditu herriko zirkulazioaren gaineko kontuak. 2007ko martxoaren 12an egindako osoko bilkuran onartu zuten ordenantza, eta orain indarrean jarriko dute.

## WEBGUNEAN IKUSGAI

2008ko urtarrilaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten zirkulazioaren ordenantza, behin betiko onartu eta gero. Bertan, automobilerik, bizikletak, motorrek, beste edozein eratako ibilgailuk eta oinezkoek bete behar dituzten arauak zehaztu dituzte, eta arau horiek ez betetzeak ekarriko dituen zigorraren berri eman dute. Horren berri zehatzagoa izan gura duenak udaltzaingora jo dezake edo Udalaren webgunean begiratu, ordenantzen atalean: [www.aretxabaleta.com](http://www.aretxabaleta.com).

## ISUNAK ETA MURRIZKETAK

Arau-hausteengatik ezarritako zigorrak Udalak berak bideratuko ditu martitzenetik aurrera. Hala, oinezkoen pasabidean autoa uzteagatik, 75 eurokoa izango da isuna; bigarren ilaran uzteagatik, 50 eurokoa; eta kontrako noranzkoan gidatzeagatik ere, 50 eurokoa.

Udaltzainek ezarritako isunen zenbatekoek murrizketa izan dezakete: isuna jarri eta astebetara ordainduz gero %50eko murrizketa; 15 eguneko epean ordainduz gero, ostera, %30eko murrizketa.

## KONTZERTUA &gt; SCAM TALDEA

## Strung Out taldearekin joko du Scam taldeak Durangon


M.A. > ARETXABALETA

Kontzertua eskainiko dute Strung Out kaliforniarrek (Ameriketako Estatu Batuak), No Children (Mallorca) eta Playground (Bilbo) taldeek egunean, apirilak 3, Durangoko Plateruena kafe antzokian, eta bertan izango da Scam laukote aretxabaletarra ere. Vans Tour 2008 bira egiten dabil European Strung Out, eta punk, rock eta metal estiloetako doinuak egiten dituen taldea *Blackhawks Over Los Angeles* diskoa aurkeztera etorri da, zazpi-

garrena, hain zuzen. Durangora datorrenean, aretxabaletarrak izango ditu lagun. Sarrerak Plateruenean dituzte salgai: aurrez, 15 euro, eta leihatilan, 18.

## DANBAKA LEHIAKETAN

Punk-rock doinuak egiten dituen Scam laukotea 2004an eratu zuten. Hona taldekideak: Mikel Cubillo, Imanol Ramos, Paulo Casal eta Ander Romero. 2005ean Danbaka musika lehiaketara aurkeztu ziren, eta ordutik hona kontzertu asko eskaini dituzte.



SCAM Punk-rock doinuak egiten dituen laukote aretxabaletarra.

GOIENKARIA

## &gt; IKASTAROA

### Makrobiotika ikastaroan izena emateko azken eguna

Apirilean egingo dute makrobiotikaren gaineko ikastaroa. Egubakoitzetan izango da (19:00-22:00), Kurtzebarri eskolan, apirilaren 4an hasita -lau saio-, eta Donostiako makrobiotika jatetxeko sukaldari Gorka Gereño izango izango dute gidari. Makrobiotikaren irizpideei jarraituta zer jan eta jakiok zelan gertatu erakutsiko du hark.

Interesatuak Loramendi Euskara Elkartearen eman behar dute izena, eta 100 euro ordaindu. Izena emateko azken eguna: martxoak 31.

## &gt; DANTZA

### Egiptoko dantzak ikasteko aukera dago eguaztenetan

Jaiki elkarteak Egiptoko dantzen gaineko ikastaroa antolatuko du apirilean hasi eta ekainera bitartean. Eguaztenetan izango dira saioak (19:00-20:30), Kurtzebarri eskolan. Egiptoko dantza herrikoiak, sabel dantza eta hainbat eritimo ikastea eta ikasiz gozatzeara da antolatzaileen helburua; gorputza askatu eta mugimenduarekin ondo pasatzea.

Izema emateko 653 70 50 68 telefono zenbakira deitu behar da. Prezioa: langileek 35 euro eta gainerakoek, 25.

## &gt; KULTURA

### Jai batzordeak batzarra egingo du eguaztenean, 18:30ean

Eguaztenean, apirilak 2, Jai batzordea elkartuko da. Kulturarako eraikinaren inaugurazio ekitaldia izango dute gai nagusi elkartutakoek: Kultura zinegotzi eta teknika-riak, alderdietako eta hainbat elkartetako ordezkariak eta gura duten herritarrak.

Bestalde, abuztuan ospatuko ditugun 2008ko Andramaixak gertatzeko lehen proposamenak jasoko dituzte.

Udaletxean elkartuko da Jai batzordea, 18:30ean.

Jou Díaz  
Harakina

Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA





ERROMESALDIA Argazkian, iazko erromesaldian parte hartu zuten Oñatiko gaixoak eta laguntzaileak autobusa hartu aurretik.

GOIENKARIA

ERLIJIOA > ERROMESALDIA

# Lourdesekeo erromesaldirako izenemate epea zabalik dago

Peregrinazioan parte hartu gura duten gaixoen izena eman behar dute Aranburu bitxitegian

Gaixoen bidaien kostuari aurre egiten laguntzeko diru-bilketa egingo dute apirilaren 26an eta 27an

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Maiatzaren 30ean eta 31n, eta ekainaren 1ean eta 2an egingo duten Lourdeserako erromesaldian parte hartu gura duten Oñatiko gaixoen izena eman dezakete dagoeneko. Hain zuzen, Kale Barriaren dagoen Aranburu bitxi-

tegian eman behar dute izena. Epea bukatu ondoren, erromesaldia antolatzen duen taldeko medikuek erabakiko dute zein gaixok parte hartuko duen peregrinazioan. Guztira, Gipuzkoa osotik, 300 gaixo inguru joango da Lourdesera. Gainera, peregrinazioan

parte hartuko duten gaixoen bidaien gastuak arintzeko, diru-bilketa egiten dute herri gehienetan. Horren harira, Oñatiko bilketa apirilaren 26an eta 27an egingo dute. Erromesaldian parte hartzen duten erizain eta boluntarioak eliz atarrietan egongo dira dirua batzen; hain zuzen, zapatuko eta domekako elizkizunen amaieran.

LAU EGUNEN BIDAIA

Egubakoitzetik astelehenera arte egingo dute Lourdeseko erromesaldia. Oñatiko autobusak egubakoitzean, maiatzaren 30ean,

irtengo dira. Gaixoeekin batera, erizain eta laguntzaileak joango dira erromesaldira.

Lourdesen egingo duten aste bukaeran, hainbat elizkizunetan eta prozesiotan parte hartuko du, besteak beste, Juan Mari Uriarte gotzainak, gipuzkoarrendako zapatuan esango duen meza nagusian.

ASTE BUKAERAKO IRTEERA

Era berean, gotzainak esango duen mezan parte hartuko dute aste bukaera pasa doazen oñatiarrak. Hain zuzen, zapatuan irten eta domekan itzuliko dira.

LANPOSTUAK

## Lanpostuak betetzeko eskaerak egin daitezke

Apirilaren 15era arte aurkez daitezke eskaerak udaletxeko bulegoetan

M.B. > OÑATI

Udaletxean hutsik dauden Nekazal-auzoen eta Ingurumeneko teknikaria, eta lehen agente plaza betetzeko deialdiak Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) kaleratu ziren martxoaren 22an. Hala, dagoeneko zabalik dago eskaerak aurkezteko epea, hain zuzen, apirilaren 15era arte.

BALDINTZAK

Nekazal-auzoen eta Ingurumeneko teknikariaren betebeharrak izango dira, besteak beste, herriko nekazaritza gaitan udalbatzarrari informazioa ematea, zerbitzuaren hobekuntza sustatzea, Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren kudeaketan parte hartzea eta Natur Eskolaren ardura izatea. Oposaketa-lehiaketa sistema bidez beteko den lanpostura aurkezteko, Nekazal Ingeniaritza Teknikoa edo Basogintza Ingeniaritza Teknikoa bukatuta izatea eskatzen da; edo Ingeniaritza Agromoko edo Mendi Ingeniaritzako lehen hiru ikasturteak bukatuta izatea. Gainera, euskarako 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu behar du.

Bestalde, lehen agente plaza betetzeko deialdira aurkezteko, udaltzain modura bi urteko esperientzia egiaztatuta behar da, hau da, udaltzain direnak aurkez daitezke bakarrik.

> ERRETIRATUAK

## Apirilaren 9an egingo dute batzar orokorra Pake Leku

Pake Leku erretiratuen elkar-teak urteko batzar orokorra egingo du apirilaren 9an, Santa Ana antzokian. Hain zuzen, lehenengo deialdia 16:30erako egin dute, eta bigarrena, 17:00etarako.

Erretiratuek egingo duten batzarrean hainbat gai aztertuko dituzte, besteak beste, zuzendaritza batzordea berrituko dute. Hain zuzen, batzorderako zazpi kide berri aukeratuko dituzte. Horregatik, erretiratuen elkarteko bazkide diren guztiei hautagaien zerrenda bidaliko diete etxera, deialdiarekin batera.

## Biharko finalerako gertu daude sei bertsolariak

Argazkian dauden Joseba Lasagabaster, Endika Ruiz, Beñat Alberdi, Ander Lizarralde, Xabier Paskual eta Joseba Igartua gertu daude bihar jokatu den Oñatiko Bertsolari Txapelketako finalerako. Mirari Sagarzazuk jarritako gaiei erantzun beharko diete, Arrano Elkartearen, 18:00etan jokatu den saioan. Bertsolari onenak txapela jantziko du.



MIREIA BIKUÑA



INDUSTRIA &gt; ZORRAK EKIDITEKO EKIMENAK

# Industrialdeko pabiloiak eta bulegoak saltzeko publizitatea egin gura dute

Eskoriatzako Industrialdea SAK oso pabiloi eta bulego gutxi saldu ditu aspaldian eta, hala jarraituz gero, zorrak izango dituzte. Horregatik, hainbat ekimen proposatu dute

**IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA**  
Joan den astelehenean Eskoriatzako Industrialdea SAKo administrazio kontseiluak batzarra egin zuen industrialdearen egoerari konponbidea emateko. Administrazio kontseilua EAE, EAJ, EA eta EBko udal ordezkariak eta SAREN gerente Clemente Belokik osatzen dute.

Administrazio kontseilua oso arduratuta dago 2005ean eta 2006an salmenta gutxi egin zirelako, eta 2007an, ezer gutxi. Industrialdeak 1.000 metro koadro bulego, beste eraikin handi bat egiteko lurzorua, 250 metro koadroko bi pabiloi eta lur azpiko 30 bat garaje ditu salgai. Horren aurrean, baina, Eskoriatzako Industrialdeak 3.500.000 euro inguruko zorra dauka, eta daukan ondasetatik laster gehiago saltzen



AUTOBIDEKO SARRERA Autobideko sarrera izango denaren alboan kokatuta dago Eskoriatzako Industrialdea.

IKER BARANDIARAN

ez baditu, zor handietan sartuko da Industrialdea, eta, ondorioz, SAREN jabe den Udala ere bai. Hori dela-eta, hainbat proposamen egin zituzten.

**OSOKO BILKURAN ERABAKI**  
Administrazio kontseiluak gastuak murrizteko honako proposamenak egin zituen: gerente lanpostua kendu, egin beharreko

lanak eginda ikusten dituztela; pabiloi eta bulegoen eskaintzaren gaineko publizitate kanpaina egitea; eta udalerriko industrialdea eskualdeko indus-

trialdearekin elkarlanean kudeatzea. Proposamen horiek eguzteneko udaleko osoko bilkurara eramango dituzte, bertan erabakiak har ditzaten.

AISIALDIA &gt; OPOR EGUNETAKO ESKAINTZA

## Ludoteka txikienen babesleku izan da opor egun hauetan

Pazko astean, film emanaldiak, kantu eta ipuin kontaketa saioak eta mozorro jaiak egin dituzte

**I.B./G.A. > ESKORIATZA**  
Aste Santu eta Pazko egunetan Tortolis ludoteka zabalik egon da. Ezagun da opor egunetan txikiak eskola barik egoten direla, eta denbora libre luzea izaten dutela. Arrazoi horregatik, ludoteka goizero zabalik izan dute.

Goizero 3 eta 12 urte bitarteko ume eta gaztetxoak han izan dira jolasten 11:00etatik 13:00ak bitartean. Normalean bi taldetan banatzen dituzte: 3 eta 6 urte bitartekoak batetik, eta 7 eta 12 urte bitartekoak bestetik.

Pazko astean hainbat ekitaldi egin dituzte: film emanaldiak, kantu eta ipuin kontaketa saioak, eskulanak, *Altxorren bila...*

**EGURALDIK BALDINTZATUTA**  
Tortolisekoen asmoa zen egunetako baten kanpo jolasak egitea, baina euriaren erruz, ludotekan gelditu ziren. Hala, mahai jolasak egin zituzten, mozorroak jantzi zituzten, eta nagusienek eta txikiak elkarrekin jolastu behar izan zuten egun horretan; uste baino hobeto moldatu ziren.



JOLASEAN GUSTURA Argazkian, hainbat ume Tortolis ludoteka barruan jolasten.

GOIATZ ARANA



Juan Carlos Beloki > Mazmelako auzo alkatea

# "Auzotarrak batu eta ekimenak abiarazteko, ezinbestekoa dugu behin betiko auzoko egoitza"

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

**Mazmelarrak oso kezkatuta daude AHTko lanek emango dizkieten burukomengatik. Gainera, autobideko lanak oraindik ez dituzte bukatu. Bestalde, buru-belarri dabilta Mazmela biziberrituko duen elkartearen proiektuarekin lanean.**

**Zenbat denbora daramazu auzo alkate?**

Lehenengo hauteskunde demokratikoak egin zirenetik, agintaldi baten izan ezik, beste guztietan izan naiz Mazmelako auzo alkate. Salbuespeneko agintaldi hartan Luis Mari Iriarte izan zen alkatea.

**Zenbat baserrik osatzen dute Mazmela?**

Mazmela bi zatitan banatuta dago: batetik, eliza ingurukoa; eta bestetik, Gaztaiñuis, errepide ondoko ingurua Arlabango bide-arte. Gaztaiñuisen 11 bat baserri egongo dira, eta Mazmelan, elizaren inguruan, goian, beste hogei bat.

**Zelan antolatzen zarete auzoan? Eta zenbatean behin egiten dituzue batzarrak?**

Basauria izeneko elkarte osatu genuen. Elkarte hori baserri bakoitzeko ordezkari batek osatzen du. Batzartu egiten gara auzo alkatea aukeratzeko, auzoaren gaineko kontu garrantzitsuak daudenean edo udaletxean auzoaren gaineko erabakiak hartu behar dituztenean.

Basauria izena aukeratu genuen Jose Aranburuzabala *Trankil*-ek aurkitutako idatzietan XIII. mendetik erreferentziak daudelako Zarimutz, Mazmela eta Marin elkartuta zeudela, eta Eskoriatzaren pareko indarra zutela.

Horrez gain, elizaren gaineko hainbat kontu ere izaten ditugu, auzoan hiru dauzkagu-eta: eliza nagusia, Jasokunde Amarena; Gaztaiñuisen dagoen Santa Columba eliza; eta, azkenik, San Bartolome baseliza. Are gehiago, hiletak daudenean, auzotarrok arduratzen gara horretaz, eta guk geuk ordaintzen ditugu kostuak.

**Zeintzuk dira auzo alkatearen zeregin nagusiak?**

Aipatutako auzo batzarrak antolatzeaz gain, hilero udalerriko auzo alkate guztiok batzarraren egiten dugu, udaleko osoko bilkuraren aurretik. Elkartzen gara, Udaleko osoko bilkurako gaiak aurretik guk aztertzeke. Horrez gain, auzoetan dauzkagun proiektu edo premiak ere elkarrekin aztertzen ditugu.

**Zeintzuk dira Mazmelan dituzuen premia handienak?**

Orain dela gutxi arte ardura nagusia Marinen, Mazmelan eta Zarimutzen telebista eta wi-fi seinaleak ondo jasotzea zen. Orain nahiko ondo jasotzen dugu, baina oraindik Gorosarri base-rrian beste errepikagailu bat jarri behar dute. Bazen ordua guk ere gailu horiek erabili ahal izateko.

Bestela, orain daukagun behar handiena auzotarren egoitza egitea da. Batzarrak abade etxean egiten ditugu, baina eraikina ez dago egoera onean. Horregatik, proiektu bat idatzita daukagu eraikin hori egokitzeko. Arazoa, jakina, dirua da, eta horretarako hainbat aukera aztertzen gabilta.

**Zertarako erabiliko zenukete egoitza hori?**

Auzotar guztiendako bilgune izan dadin eta Mazmelan sortuko diren ekimen guztiendako. Lehen jendea meza entzun ostean elkartzen zen, baina gaur egun ez dago noiz eta non elkartu. Bestalde, herrigunean zerbitzu asko daude, baina auzoetako gazteek, erretiratuek eta beste edozein taldek ez dauka non ekintzak antolatu. Egoitza hori ezinbestekoa da Mazmelarendako.

**Egiten duzue auzolanik?**

Lehen, urtean behin egiten genuen auzolana eliza ingurua txukuntzeko eta bideak garbitzeko. Baina azken urteotan lortu dugu Udalak kanposantua eta bideak urtean behin garbitzea. Oso garrantzitsua da hori lortu izana.

**Zelan bizi dituzue autobideko lanak?**

Bi urte iraungo zutela esan ziguten, baina laster hiru beteko dira. Oso gogorra izan da, baina esan dezakegu txarrena -kamioi handienak- pasatu dela. Orain gure ardura nagusia da auzoko bidea zelan geldituko den, bide barik gelditu diren lusailei zer konponbide eman, eta beste. Horrekin batera, eskatzen gabilta elizaraino doan bidea konpontzeko.

**Eta AHTren aurrean zer aurreikuspen dituzue?**

Kezka handiagoga daukagu. Berrito bideak kakaztuko dituzte, eta hauts eta lokatza artean ibili beharko gara... Badirudi autobideko lanek baino kalte handiagoga egingo digutela. Lurren desjabetzeekin ere beldur gara. Negoziatzen gabilta lanetara joateko bide bakarra egin



AUZO ALKATEA Juan Carlos Beloki da Mazmelako auzo alkatea.

IKER BARANDIARAN

**"Vasco Navarro trena Mazmelan gelditzen zen eta lanpostuak ematen zituen; AHTk, berriz, horrelakorik ez"**

dezaten, eta jakin gura dugu gure pinudi eta lurzoruetara zelan sartu ahal izango garen lanak egin bitartean eta trena egin ostean.

Harrigarria da Mazmela zelan aldatu den: zarata bariko leku lasaia zen, baina orain ez dago atsedenek. Aspaldi, Mazmelan

**"Kezka handia daukagu AHTko lanekin: lurren desjabetzeekin, gure lurzoruen sarbideekin, eta beste asko"**

Vasco Navarro trena gelditzen zen, eta horri esker jende askok baserriko produktuak Gasteizen saltzen zituen, auzotarrek trenean lan egiten zuten... Orain AHT erabiltzeko, hiribururen bat jo beharko dugu eta ez digu lanik ezta horrelakorik emango.

> OSOKO BILKURA

**Eguazteneko osoko bilkuran, Gehituren aldeko mozioa**

Gehituk, Euskal Herriko Gay, Lesbiana, Bisexual eta Transsexualen Elkarteak, eskaera bat bidali du Eskoriatzako Udalera. Gehituk hainbat erakunderi eskatu die maiatzaren 17a homofobiaren eta transfobiaren kontrako borrokaren nazioarteko egun izenda dezatela.

Gehituk aditzera eman du aurtengo maiatzaren 17an 18 urte beteko direla Osasunerako Mundu Erakundearen Batzar Nagusiak homosexualitatea buru gaixotasunen zerrendatik ezabatu zuela.

Eguaztenean, apirilaren 2an, aztertuko dute Gehituren eskaera Udalaren ohiko osoko bilkuran. Hala jakinarazi digu alkateak.

> IKUSKIZUNAK

**Apirilaren 4an, bi antzezlan eta kontzertu bat daude**

Apirileko lehenengo egubakoitza ekimenez beteta dator. Hain zuzen ere, egun horretan hiru ikuskizun egingo dituzte.

Arratsaldean, 18:00etan, *Sumatuz...* izeneko ikuskizuna egingo dute 0 eta 2 urte bitarteko umeendako Jose Arana ikastolan. Herritar guztiak irekita egongo da, eta ikuskizunak ordu erdi iraungo du.

19:00etan, berriz, Oñatiko Ikusi Makusi erretiratuen antzerki taldeak *Nos vamos de vacaciones* ikuskizuna egingo du Huheziko areto nagusian.

Eta 22:30ean, berriz, Los Ajustadores taldeak rock eta garage kontzertua egingo du Inkernu tabernan.

> ATENTATUA

**Isaias Carrascoren kontrako atentatua gaitzetsi dute**

Joan den martitzenean, hilaren 18an, urgentziazko udaleko osoko bilkura egin zuten. EB, PSE-EE, EAJ eta EAK mozioa aurkeztu zuten, Arrasaten martxoaren 7an jazotako Isaias Carrascoren kontrako atentatua gaitzesteko.

Alderdi horiek guztiak mozioaren alde bozkatu zuten, eta EAEko zinegotziak abstenitu egin ziren. EAEk argudiatu zuen mozioa azken orduan aurkeztu zela eta ez zutela eurekin berba egin. Horrez gain, salatu zuten "politikari batzuen jarrera hipokrita, interesa dagoenean bakarrik egiten direlako halako adierazpenak, baina hortik aurrera ez delako beste pausorik ematen".



bere ustez



Joseba Lezeta

## Semaforoan zigor zatarra

Semaforoak jarri dituzte Kalebarrenen eta Herriko Plazak Buztinzurekin bat egin duen lekuan. Laster egongo ei dira martxan. Kezkagarria da horrelakoen premia izatea, oztoporik gabea eta garbi-garbia behar lukeen tokian burdinezko hesola zatar horiek sartzea. Errazena litzateke Udal kideei ardura egozte. Baina beste irtenbiderik ez dutelako hartu dute erabaki hori.

Herritarren portaerak ekarri du erabakia. Asteburuetan oinezkoentzat baka-

**"Antiguan ere zebra-bide gainean hiru gau oso ilaran emandako autoak badira"**

rrik izan dadin, Herriko Plazan egun horietan automobil ibili eta egon ez dadin, irtenbide bakarra da, seguru asko. Itxi egin behar inor barrura sar ez dadin.

Ondokoari errua egozten zaleak gara. Geure buruari begiratzen, berriz, ez horrenbeste. Gogorra da semaforoaren premia izatea. Gogorra da kalera automobilean jaitsi eta Herriko Plaza Aiherra kaletik minutu bakar batera egonda denok denda aurrean edo atari aurrean autoa utzi behar izatea. Antiguan ere zebra-bide gainean hiru gau oso ilaran emandako autoak badira. Isunekin konponduko litzateke? Ez dakit konponduko litzatekeen, baina ondo merezitakoak behintzat jarriko lituzteke.

AZPIEGITURAK &gt; AUZOLANA

# Larrebarrengo iturria konponduko dute bihar

Ekainera bitartean, auzolanean egin nahi dituzte Arrolakoa eta Aldabekoa eta horien inguruak konpontzeko lanak, eta herritarrei dei egiten diete

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA**  
Nekazaritza eta Ingurumen batzordeak erabaki du 2008an, ekainera bitartean, hiru iturri eta haien inguruak auzolanean egokitzea: Larrebarrengo, Arrolakoa eta Aldabekoa.

Larrebarrengo iturrira doan bidezidorra garbitzeaz gain, kanalizazioa ere egin behar dute, iturriak ura galdua duelako; eta

bide batez, ingurua ere txukunduko dute, besteak beste, eserlekuren bat ipinita.

Arrolako iturriaren inguruan ganadua ibiltzen denez, iturria babesteko hesitura ipintzea da asmoa, eta baita ingurua egokitzea eta aska kanpoan uztea.

Aldaberako bidea ere zabaldu egingo dute, sasiz betea dago eta, eta hodia ondo ipini.

**HERRITARREI LANERAKO DEIA**

Bihar, zapatua, da lehen hitzordua, 09:00etan, udaletxe azpian. Lizarragako Larrebarrengo iturria konpontzeko lanetan jardungo dute eta, gero, hamaiketako egingo dute.

Antzuolako txokoetan, 40-50 iturri txiki daude batean eta besteetan, eta asmoa da pixkanaka horietako batzuk konpontzea.

## Sarasketako anai-arreben bazkaria

Bibiana, Joxepa, Ixabel, Daniel, Juan Praixko, Cruz, Begoña, Mari Joxepa eta Genaro: Sarasketa baserriko anai-arrebak eta haien bikotekideak. Guztien adina batuz gero, ia 800 urte; 80 urte ditu gazteenak, Begoñak; eta zaharrenak, Cruzek, apirilean beteko ditu 92. Badira 27 urte anai-arrebak bazkaritarako elkartzeko direla Aste Santuan. Adina ez da traba eta, ahal duten artean, ohitura gordeko dute.



BELEN AZKARATE

> HEZKUNTZA  
**Haurreskolaren gaineko galdeketa egiten hasi dira**

Ume jaioberrien gurasoei eta haurdun daudenei galdeketa egin nahi die Udalak jakiteko aurrerantzean umeak Haurreskolara eramango dituzten ala ez. Horretarako udaletxera jo behar dute gurasoek. Horrela, ikusiko dute zein behar dagoen eta moldaketarik egin behar den.

> ZERBITZUAK  
**Aldatzen hasi dira ur kontagailu zaharrak edo hondatutakoak**

Gipuzkoako Urak jakinarazi nahi du laugarren lauhilabeteako antzemandako kontagailu zaharrak edo hondatuak aldatzen hasiak direla. Aldaketa doanekoa da eta euren ur kontagailuak aldatuko dituzten ala ez jakin nahi dutenek honako telefono zenbakira dei dezakete: 902 30 22 22.

> ZERGAK  
**Iaz baino 47 motordun ibilgailu gehiago dago herrian**

Zabalik dago ibilgailuen zirkulazio zerga ordaintzeko epea eta Udaletik eskatu dute ordainketa helbideratuta ez dutenei egiteko. Gero eta gehiago da zerga horretatik jasotzen den dirua, ibilgailuak ere gehiago direlako: 2007an 1.235 eta aurten 1.282.

**HORTZ KLINIKA**  
Ana Sainz Malkorra  
Mediku estomatologoa  
Elkargokide zk.: 20000437

Odontologia orokorra  
Endodontziak  
Periodontzia eta inplanteak  
Protesiak

Herriko Plaza 4, behe 20577  
Antzuola Tel.: 943 78 71 69

**Zerbitzu berriak:**  
Odontopediatria  
Ortodontziak

Kolaboratzailea:  
**Marina Knutzen**  
Mediku odontologoa

Elkargokide zk.: 20000798

**MUJIKA HARATEGIA**



**Berezitasunak:**  
Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren, 1.  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 64 34

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA



Jose  
Gomez  
Abad

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

**EGAÑA**

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23



HEZKUNTZA > HAURRESKOLA

## Maiatzean hasi gura dituzte lanak haurreskola berrian

Udalak ZB enpresari esleitu dio proiektua idazteko lana, eta asmoa da haurreskola berria 2009ko urtarrilean zabaltzea

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Hamar hilabete beharko dira oraindik ere Elgetako haurreskola berria zabaltzeko. Udalak berriki esleitu ditu proiektua idazteko lanak, eta ZB enpresak egingo ditu.

Proiektua idazten hasi aurretik, bilera egin zuten haurreskolaren diseinuan jardun duen herritar taldeak, Gipuzkoako haurreskolen koordinatzaileak eta ZB enpresako ordezkariak. Haurreskolak arautegia bete behar du, eta, Elgetakoa hasieratik egin behar denez, aurreratzeko aukera ere badago. Aldaketak iragaritzen dira arautegi horretan, eta horietara egokitzeko aukera ere badago, beraz. Proiektuan lanean dihardu orain ZB enpresak, eta lehenengo zirriborroa idazterako-

an beste bilera bat deituko dute alde guztiek prozesua gertutik jarraitzeko aukera izan dezaten. "Gauzak aurreikusitako epean joanez gero, espero dugu lanak maiatza bukaeran esleitzea", adierazi du hezkuntza zinegotziak, Rebeka Uberak.

INAUGURAZIOA, URTARRILEAN

Udalaren asmoa da egitekoak diren lanak abenduan bukatzea eta Gabonetako oporrak leku aldaketa egiteko aprobeztatzeko: "Gura genuke haurrak urtarrilean hasi haurtzaindegi berrian", esan du Uberak.

Torrealdako etxebizitza babestuen eraikinetako batean dago Udalak haurreskola zerbitzura egokitu nahi duen aretoa. Bertan, hiru gela edo espazio egitea aurreikusten dute: bi haurreskola zerbitzurako prestatuko dituzte, bata 0-1 urte bitarteko umeendako eta bestea 1-2 urte bitartekoendako; hirugarren espazioa erabilera askotariko gela izango da. Espazio horretan Udalak ludoteka eta gazteleku zerbitzuak eskaintzea aurreikusten du. Izan ere, gaur egun, zerbitzuak horiek kultura etxean daude.

LUDOTEKA ETA GAZTELEKUA

"Ludoteka astean dago zabalik eta herritar askok erabiltzen dute", esan du Uberak. "Gaztelekuarekin ere oso pozik gaude, 32 gaztek erabiltzen dutelako aste bukaeretan". Udalak zerbitzu horiek mantentzeko asmoa agertu du: "Herritarrek erabili egiten dituzte zerbitzu horiek eta ikusten dugu herrian horien premia dagoela".

Bi zerbitzu horiek Torrealdako erabilera askotariko gelara eramango ditu Udalak: "Proiektu bat lantzen ari gara zerbitzu biak hartuko dituen espazioa nola egokitu erabakitzeko. Jarraitu beharreko irizpideak eta lan ildoak finkatu behar ditugu", azaldu du Uberak.

HAURRESKOLA, BETETA

Uneotan, Herri Eskolan dago Elgetako haurreskola. Bi hezitzailek egiten dute bertan lan, eta hamar ume erabiltzen dute zerbitzua. Zerbitzua zabaldu zenean kopuru hori ez gainditzea onartu zen, kontuan hartuta aretoaren tamaina eta ezaugarriak zeintzuk diren. Esan daiteke, beraz, haurreskola handitzeko beharra dagoela herrian.



GOIENKARIA

NATURA Herri askotan lantzen dute gaia gaztetxoekin.

INGURUMENA > ASTE BERDEA

## Maiatzaren 19tik 25era, Aste Berdea egingo dute Elgetan

Ura da aurten Herri Eskolan lantzen ari diren gaia, eta egindakoa erakutsiko dute maiatzean

L.Z. > ELGETA

Udala eta Herri Eskola maiatzean egingo den Aste Berdea prestatzen ari dira egunotan.

Eskolako umeak ingurumenearekin loturiko hainbat ekintza eta ikasgai egiten ari dira ikasturtean zehar. Aurten, ura dute aztergai eta ikasgelan landutakoa erakusketa batean jasotzeko aitzakia polita izango da Aste Berdea.

Helduek, beraz, umeek egindakoaren berri izango dute maiatzaren 19tik 25era bitartean. Gainera, nagusiei zuzendutako ekintzak ere prestatuko dituzte Udalak eta Eskolak.

LEHENENGO ALDIZ

Zuhaitz Eguna egin ohi da Elgetan. Aurten, momentuz, ez da egin, baina Aste Berdea egingo da lehenengo aldiz.

Ricardo Landa Oñate > Udal aparejadorea

## "Astelehen eta martitzenetan hartuko ditut herritarrak Elgetako udaletxean"

L.Z. > ELGETA

Martxo ezkerro udal aparejadore berriak dihardu lanean Elgetako Udalean. Ricardo Landa Oñate gazteak hartu du Alberto Olalderen lekua. Landak 32 urte dauka eta bergararra da.

Zer moduz kargu berrian?

Martxo erdialdean hasi nintzen lanean. Bi aste besterik ez daramat, beraz. Momentuz, baina, ondo. Gustura nabil.

Zein da zure lana Elgetako udal aparejadore gisa?

Herrian, eraikuntzarekin lotuta dauden proiektu guztiak gainbegiratzea. Gehienbat, aurrekontuak prestatzen ditut. Udalak obraren bat egin behar duenean, lan horien aurrekontua lantzen dut.

Esaterako, baserri batek ez du ur-hornidurarik, eta berau haraino eramateak zein obra eta zein aurrekontu behar izango lituzkeen landu behar dut. Errepide bat apurtzen baldin bada, obraren bat egin behar bada... lekura bertara joaten naiz, egoera ikusten dut eta lanen aurrekontua prestatzen dut.



Ricardo Landa.

L.Z.

Aktibitate lizentziak ere zuk ematen dituzu, ezta?

Bateren batek lokal bat zabaldu nahi badu, fase batzuk pasatu behar ditu. Lehenengo eta behin, baimena eskatu behar du udaletxean. Nik eskaera hori aztertu egiten dut eta ondo badago aurrera egiten du. Azken erabakia, baina, politikariena da beti.

Zeintzuk dira esku artean dituzun proiektuak?

Mendi nekazaritzak Elgetan hiru proiektu diruz laguntzeko konpromisoa hartu du, eta horiek ditut esku artean. Azurtzako

baserrietara ur hornidura eramateko egitasmoa da lehenengoa; Arraotz baserrira doan bidean segurtasun hesiak jartzea da beste bat; azkenik, Egoetxeaga auzoko baserrietarako bidean konponketak lanak. Horrez gain, Ozkarbi elkarteko beheko solairuan komuna ipintzea aztertzen ari dira.

Bergararra izanik ezagutuko zenuen Elgeta. Aparejadore moduan, zer iruditzen zaizu?

Herri txikia da eta herri barruan lan gutxi daukat; baserri auzoetan, gehiago. Bideak asfaltatu behar direla, ura falta dutela... Eguraldiokin lur-jausiak ere izan ditugu. Horiek izan dira bi asteotan izan ditudan betebeharrak.

Noiz aurkituko zaitugu herritarrak hartzeko gertu?

Astelehenetan eta martitzenetan, 08:00etatik 13:00etara egongo naiz publikoari begira; hau da, herritarrak hartzeko prest. Arratsalde, bestelako lanak egingo ditut bulegoan. Aurrekontuak prestatu, dokumentazioa landu... Urtebeteko lan kontratua daukat.

HEZKUNTZA > HELDUENDAKO ESKOLAK

## Datorren ikasturtean, ingelesa ikasteko aukera

Ingeleseko eskolak jasotzeko taldea osatu da, eta maiatzean irekiko da aurre-matrikula epea

L.Z. > ELGETA

2008-2009 ikasturtean aukera egongo da, hezkuntza programa barruan, ingeleseko ikastaroa herrian bertan egiteko. Hilaren 19an egindako bileran herritar talde batek ingeleseko eskolak jasotzeko interesa agertu zuen. Hala, Udalak eskola horiek eskaintzeko eskaera egingo dio Eusko Jaurlaritzari.

Ingeleseko eskolak bi orduko saioak izango dira, astean bitan. Eskaera egin aurretik Udalak zenbat interesatu zeuden jakin beharra zeukan. Aurre-matrikula epea maiatzean zabalduko dute.

Euskarazko eta frantsesezko ikastaroak martxan jartzeko aukera ere bazegoen, baina ez da talderik osatu.

SOROSPEN IKASTAROA

Maiatzean, bestetik, sorospen ikastaroa antolatuko du Udalak. Kirola egiten ari garenean larrialdiren bat gertatzen denean nola jokatu erakutsiko dute ikastaro horretan. Lehenengo sorospenak izango dira, beraz.

Hamar orduko ikastaroa izango da, astean bi orduko bi saio egingo dituzte. Helduendako izango da, eta laster zabalduko dute izenemate epea.

> IBILGAILU KLASIKOAK

Gaur, barikua, ibilgailu klasikoan martxa neurtua pasatuko da Elgetatik, 19:15ean eta 23:45ean

Bizkaiko Motorzale Elkartek hiru eguneko martxa neurtua antolatu du ibilgailu klasikoendako. Proba birritan igaroko da Elgetatik. Gaur, barikua, Bilbotik irtengo dira 17:00etan eta aurreikusita dago 19:15ean Elgetatik igarotzea. Bigarren saioa 22:00etan hasiko dute Zeanurin eta 23:45ean izango dira Elgetan.



KULTURA &gt; SWEET ROCKERS

# Neska aramaioarrak nagusi, sortu berri den Sweet Rockers taldean

Ingelesez abesten dute, eta The Who, AC/DC eta Guns and Roses taldeen bertsoak egiten dituzte

Apirilaren 11n emango dute hurrengo kontzertua, Aretxabaletako Haizea tabernan

ARRITXU BARRUSO &gt; ARAMAIO


Uztailean eman zuen Sweet Rockers taldeak lehenengo kontzertua, Nafarroako Artaza herrian. Talde gaztea da Sweet Rockers; jaioberria delako, batetik, eta kideak 16 eta 19 urte bitarteko gazteak direlako, bestetik. Hiru neskek eta bi mutilek osatzen dute Sweet Rockers taldea. Hiru neskek aramaioarrak dira, eta bi mutilek, bata aretxabaletarra eta bestea arrasatearra: Bea Asurmendi (ahotsa eta gitarra), Iraia Beitia (gitarra), Eider Balantzategi (gitarra), Aser Errasti (bateria) eta Aitor Urrutia (baxua). Aspaldi honetan gazte asko dira musika instrumentuak jotzen dituztenak eta musika zaletasuna daukatenak, baina ez da horren erraza taula gainean horrelako lan dotorea egiten duten taldeak aurkitzea.

Ingelesez abesten dituzte kantu gehienak eta, besteak beste, The Who, AC/DC, The Clash eta Guns and Roses taldeen bertsoak egiten dituzte; guztiak ere ukitu bereziarekin. Izan ere, taldearen ezaugarri nabarmena da abeslariak era askotako erregistrotara moldatzeko duen erraztasuna eta ahots gaitasun handia. Orain arte, bertsoak egiten jardun duten arren, azken hilabeteotan kantu pro-

pioak lantzen hasi dira eta laster eroango dituzte abestiok taula gainera.

Taldean bi mutil dituzten arren, neskek dira gehienak. Hori da euren beste berezitasunetako bat, ez baita erraza rock talde batean hiru neska aurkitzea. Azaldu digute behin baino gehiagotan neska talde bezala aurkeztu dituztela. Horrelakoak entzutera ohituta daudela azaldu digu Bea abeslariak: "Normala dela uste dut; izan ere, taula gainera igotzen garenean, lehenengo, hiru neskok ikusten gaituzte, bateria eta baxua atzerago egoten dira eta beti. Bestetik, ez da oso ohikoa horrelako talde batean hiru neska egotea. Mutilak ohituta daude horrelakoetara, eta barre egiten dute".

Esan bezala, taldea sortu berria da eta oraindik ez dute kontzertu asko emateko aukerarik izan. Dena dela, pozik daude jasotako kritikekin: "Oso pozik gaude, azkeneko kontzertuan ere jende askok esan zigun gu berriz taula gainean ikusteko gogoz zeudela, eta hori oso pozgarria da". Apirilaren hamakan emango dute hurrengo kontzertua, Aretxabaletako Haizea tabernan. Udan ere kontzertuz kontzertu aritzeko prest daudela azaldu dute.



SWEET ROCKERS Aramaioko hiru neskek eta Aretxabaleta eta Arrasateko bi mutilek osatzen dute taldea.

SWEET ROCKERS

BERTSOLARITZA &gt; ARABAKO TXAPELKETA

## Arriolabengoak txapeldun ikusten du Manex Agirre

Bi aramaioarrek txapela lortzeko lehia jardungo dute apirilaren 5ean

A.B. &gt; ARAMAIO

Manex Agirrek Ondategiko aretoan lortu zuen Arabako Bertso Txapelketako finalerako txartela, eta Andere Arriolabengoak, etxean, Aramaioko kultura etxean. Biak ere zuzenean sailkatu ziren apirilaren 5ean Gasteizko Printzipal antzokian

jokatuko den finalerako. Aramaioar biak gogotsu daude finalerako saiorako. Andere Arriolabengoak azaldu digu, dena dela, ez dela finalera txapela lortzeko asmoarekin joango: "Aukera hori hor dago beti, baina ni neu ez noa txapelarekin pentsatzen Gasteizera. Saioa gozatu nahi dut, ondo pasatu eta ahalik eta lan onena egiten saiatu". Izan ere, Andere Arriolabengoak argi dauka txapela nork eroango duen etxera: "Manex txapeldun ikusten dut nik. Ea egia den eta aurten txapela ekartzen duen Aramaioa".

MENDIZALETASUNA &gt; IRTEERA

## Mendi eta sagardotegi irteera antolatu dute apirilaren 19rako

Donostiako Adarra mendira igo eta sagardotegi batean bazkalduko dute

A.B. &gt; ARAMAIO

Mendira eta sagardotegira irteera antolatu du Orixol mendizale taldeak apirilaren 19rako. Irteera 08:00etan izango da, herriko autobus geltokian. Donostiako Adarra mendira joango dira lehenengo, eta Hernaniko Otsuenea sagardotegira gero. Adarra men-

diak 817 metro ditu; Orixol elkar-teak azaldu du nahiko mendi erraza dela eta lasai-lasai igoko dutela. Jaitsi ostean, sagardotegira joango dira, eta handik, gero, Hernanin tragoxka batzuk hartzen geldituko dira. Iluntzean bueltatuko dira Aramaioa.

Interesa dutenek apirilaren 16a baino lehen eman beharko dute izena, herriko tabernetan. [Orixol@hotmail.com](mailto:Orixol@hotmail.com) helbide elektronikora mezu bat bidaltzea da beste aukera. Orixolekoei adierazi dute irteera polita izango dela eta oso ondo pasatuko dutela.

&gt; UDALA

## Jai batzordeak bilera egingo du udaletxean martxoaren 31n

Herriko jaiak antolatzeko jai batzordea eratu dute. Martxoaren 31n, 19:00etan, bilera egingo dute. Herriarrei bilerara joateko dei egin diete.

&gt; ZINEMA

## 'Lagundu!', arraina naiz' filma izango da ikusgai domekan

Fly, Stella eta Charlie hiru ume bihurri dira eta abentura ikaragarria biziko dute arrain bihurtuko dituen edabe magiko bat hartuta. Hitzordua 17:00etan, kultura etxean.



ELKARTASUNA > OPORRAK BAKEAN EGITASMOA

## Saharan bizi diren umeak hartzeko deia

Ume saharrei harrera egiteko konpromisoa dauka hartuta Gatzagako Udalak

Uztailetik irailera bitartean 7 eta 12 urte arteko umeak hartuko dituzten familiak gura dituzte

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Opor sasoiaren Saharako umeak hartzeko gertu dauden familia bila dabil Udaleko Gizarte Zerbitzua. Euskadiko Fronte Polisarioaren Ordezkaritzak eta Sahara Herriko Lagunen Elkarteak antolatutako Oporrak Bakean egitas-

moarekin bat egin du, eta uztaileta eta iraila bitartean 7 eta 12 urte arteko neska-mutikoak etxean hartzeko gertu dauden gatzagarrrak gura ditu. Izena emateko epea apirilaren 10ean bukatuko da, eta eskaera Udaleko Gizarte Zerbitzuan egin behar da.



SAHARARRAK Orain dela sei urte Gatzagara etorri ziren emakumeak. GOIENKARIA

Errefuxiatuen kanpamenduetan bizi diren umei bizi baldintza hobek emateko gura ditzakete gure arterara ekarrita. Hala, urtero antolatzen dute egitasmoa, eta ehunka ume etortzen dira Euskal Autonomia Erkidegora, baita gure ibarrera ere. Aurten, Gatzagara ekarri gura dituzte. Egitasmoak hiru helburu ditu: umeek elikadura gabeziei aurre egitea bi hilabeteotan; mediku

azterketak egitea eta, behar izanez gero, tratamenduari jarraitzea; eta ondo pasatzea.

SAHARARRAK BISITAN

Gatzagarrek aurretik ere erakutsi izan dute Sahararekiko elkartasuna. Orain dela sei urte Saharako Emakumeen Kongresuan hartu zuten parte herriko hiru emakumek, eta ostean, saharar bi etorri ziren bisitan.

ERRETIRATUAK

## Batzordeko kide berriak izendatu dituzte

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Urteko batzarra egin zuen Toki Eder erretiratuen elkarteak martxoaren 15ean, eta zuzendaritza batzordea berri-itu du, halakorik iragarrita ez egon arren. Anjel Aranburuzabala presidenteordeak eta Maritxu Plazaola kideak utzi egin dute batzordea, eta horien ordez beste bi lagun sartu dira: Jabier Aldabe eta Tere Aranburuzabala. Zein ardura izango dituzten sartu berriek oraindik ez dute erabaki, eta horretarako batzarra egingo dute aurrerago.

IDAZKARIAK, BEDERATZI URTE

Elkarteko presidente izaten jarraituko du Pedro Mari Elkorobarrutiak, eta idazkari eta diruzain lanak egingo ditu Juan Mari Makatzagak. Dagoeneko bederatzia urte beteko ditu lan horietan Makatzagak, baina, beste urtebetez gutxienez jarraitu egingo du, hala eskatu diotelako. Pantxi Ibartzabalek ere batzordean jarraituko du.

## Elurra sendo egin arren, arazorik ez


Neguan beharrean, udaberrian ailegatu da elurra gurera, eta joan zen domekan, hilak 23, sendo egin zuen Gatzaga aldean. Elur biguna bota zuen, eta lurrean geratu orduko urtu egiten zen. Hala ere, tokirik garaienetan pilatzen hasi zen, eta Udalak pala atera zuen -negu guztian atera barik-baserrietara doazen bideak garbitzeko. Domekan bertan eta astelehen goizean pasatu zuten pala langileek; horregatik, elurrik ez zuen arazorik sortu.



M.A.



PRESIDENTEA Elkorobarruti. M.A.



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismok
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



KARATEA &gt; ESPAINIAKO SHINKYOKUSHINKAI TXAPELKETA, GASTEIZEN

# Aitor Borobia: "Txapelketa oso gogorra da, borroka KOra erabakitzen dira-eta"

Bihar (17:00) egingo dute Gasteizko Mendizorrotza kiroldegian Espainiako shinkyokushinkai txapelketa; Gipuzkoako bi karateka baino ez dira izango lehian, biak bergararrak

XABIER URTZELAI &gt; BERGARA

Karatea gurean oso errotuta dagoen borroka-arte da, ibarrean bertan hainbat talde daude-eta. Baina eskola bakoitzak bere modalitatea du, eta Bergarako Bolu gimnasioan shinkyokushinkai delakoa egiten dute, borroka bideratuta dagoen karatea.

Hain zuzen ere, bihar egingo dute Gasteizen modalitate horretako Espainiako Txapelketa, *knock-out*-ean (KO) erabakitzen dena, eta Bergarako Aitor Borobia (1979) eta David Tabaresek (1977) ordezkaturiko dute Gipuzkoa. Ez dute karateka askorik parte hartuko, txapelketa gogorra delako. Hala, bi karateka horiek GOIENKARIArekin izan dira, txapelketa aurretik bizi dutena kontatzen.

MODALITATE GOGORRENA

Tabaresek eta Borobia Carlos Albusua eta Aitor Albusua senseien gidaritzapean egiten dute karatea. Borobia urte asko daramatza borroka-arte hori praktikatzen: "Uste dut 1999an federatu nintzela, baina lehenago hasi nintzen karatea egiten". Tabaresek, berriz, bost urte daramatza, baina urte horietan dedikazio handia eskaini dio zaletasun horri: "Izan ere, niretako zaletasuna da, eta gutxitan egin dut entrenamenduren batera kale, gaixorik nengoenean-edo...".

Karatea kirola egiteko modu bat da, baina askoz ere haratago doa, diziplina handia eskatzen duen zaletasuna delako. Hori gutxi balitz, Borobiarendako shinkyokushinkai modalitatea karateak duen gogorra da: "Borrokara bideratuta dagoen artea da, prestakuntza handia eskatzen du, bai fisikoki eta baita psikikoki ere". Hori horrela, biharko txapelketan ez da bromarik izango: "KOan erabakitzen den txapelketa da. Borroka bakoitzak hiru minutuko iraupena du, eta guk ez dugu babesik erabiltzen. Horregatik, txapelketan zehar kolpe gogorrak hartzen ditugu: ukabilkadak, ostikoak, belaunekoak...". Hori horrela, Bergarako bi karatekek argi dute kolpeak ondo jasatean dagoela



SENSEIEKIN BATERA Ezkerretik eskumara Carlos Albusua, Aitor Borobia, David Tabares eta Aitor Albusua.

IÑAKI LAZPIUR

gakoa: "Borroka bakoitzean eman egiten da, baina duda barik, eman baino kolpe gehiago jasotzen dira, eta horiek ondo jasan behar dira, hor dago gakoa", dio Borobia.

Borobiarendako bigarren txapelketa izango da, baina Tabares bihar estreinatuko da: "Deseatzen nago txapelketako eguna iristeko, azken hilabeteak gogorrak izan direlako", diosku Tabaresek: "Karate saioekin batera, aerobikoa lantzeko entrenamendu saioak, jaten duguna zaindu behar izatea...". Izan ere, pisuak zeresan handia du. Tabares pisu ertain-

ESANAK

**"Txapelketara joateko derrigorrezkoa da fisikoki eta psikikoki prestatuta egotea, kolpe asko jasotzen dira-eta"**

Aitor Borobia &gt; Karateka

**"Txapelketan kolpeak eman egiten dira, baina eman baino jaso egiten ditugu gehiago; hori jasaten jakin behar da"**

David Tabares &gt; Karateka

nean lehiatuko da (70-80 kilo) eta Borobia pisu arinean (60-70 kilo). Eta hori ondo zaindu behar dela dio Borobia: "Nire pisuan kolpeak gogorrak izaten dira, baina pentsa 80 kilo dituen pertsona batek emandako ukabilkada batek zelako mina egin dezakeen...". Kontuan hartu behar da, gainera, borroka batetik bestera karatekek egurrezko hainbat ohol ukabilkada batez apurtu behar izaten dituztela; ondo landutako ukabilak dituzte: "Txapelketako kolpeetatik errekupeartzeko hilabete behar izaten dugu".



Aitor Borobia.

IÑAKI LAZPIUR

**David Tabares: "Urduritasunagatik posible da 30 segundo igaro eta lehertuta egotea"**

Biharko txapelketari begira, Bergarako bi karatekak nahiko lasai daude, nahiz eta Tabaresek badakien txapelketetan duen esperientzia falta erabakigarria den: "Nire lehenengo aldia da, eta borrokan urduri ez egoten ahalegindu beharko dut. Esan didatenez, nerbioen eraginez posible da borroka hasi eta 30 segundora leher eginda egotea; hori kontrolatzen saiatu behar dut. Dena dela, ez dut nire burua finalean ikusten, Europa mailan lehiatu diren gerriko beltzak izango ditudalako aurrean. Baina txapelketa txukuna egin gura dut, gustura itzuli". Hala, astelehenean lanera joateko asmorik ote duen galdetuta, hauxe erantzun digu: "Bai, bai, duda barik, nahiz eta saiheutsak hautsita izan. Lana ezin da alde batera utzi, horrek ematen digu-eta jaten".

Borobia, badaezpada, astelehenean jai hartuko du: "Niretako txapelketan lehiatzea ez da berria, orain dela bi urte ere lehiatu nintzen-eta. Orduan, txapelketako faboritua izan nuen aurrean, eta ez zidan minik egin, baina argi irabazi zidan. Aurten hobeto lehiatzeko asmoz noa, besteak beste, etxean jardungo dugu-eta". Finalak arratsaldean bertan izango dira: "Domekarako ezin da ezer utzi, leher eginda egongo gara-eta".



David Tabares.

IÑAKI LAZPIUR



ZIKLISMOA &gt; GORLAKO 34. IGOERA

Bergarako lasterketa  
23 urtez azpikoen  
txapelketako  
hirugarren lasterketa  
izango da

Costa Ricako Andrey  
Amadorrek irabazi ditu  
lehenengo bi etapak;  
hura da gainditu  
beharreko gizona

XABIER URTZELAI &gt; BERGARA

Gaiean dago amateur mailako  
proba garrantzitsuenetako bat,  
domekan egingo duten Gorlako

# Domekan amateur mailako proba esanguratsuena, Gorlako Igoera

Igoera. Eta, ohiturak agintzen duen moduan badirudi aurten ere txirrindulariek nekez izango dutela eguraldia aldeko. Ziklistek badakite Gorla zurituta dagoela igotzea zer den; eskuak eta hankak gogortuta daudela helmugaratzea, bizikletatik jaisteko ere zailtasunak izatea. Badirudi domekan ez dituztela horren gorriak ikusiko, egunotan hustu diren lainoek tregoa emango dutela, baina horrela ere, ziklistek 90 kilometro gogor izango dituzte aurrean.

Domekan, 10:00etan hasiko da proba, Bergarako plazan. Osintxura egingo dute lehenengo (10:09), eta handik ibarrean gora, Elorregira (10:26). Handik Bergarara jaitsiko dira, Gorlako maldei lehenengoz ekiteko. 11:05 inguruan iritsiko dira Gorlako tontorrera, eta ikusi egin beharko da ordurako lasterketa apurtuta doan ala ez; normalena indarrak bigarren igoerarako gordetzea da. Gorlatik Elosura, Urretxura, Zumarragara eta Deskarga igota Antzuolara jaitsiko dira (11:56),

eta ondoren etorriko da Gorlako bigarren igoera, erabakigarria. Ondo bidean, txapeldunak 12:30ak baino lehenago jasoko ditu besoak, helmugan.

## HIRUGARREN LASTERKETA

Gorlako Igoera 23 urtez azpiko txapelketako hirugarren lasterketa izango da. Soraluzen hasi zuten denboraldia, otsailaren 24an, eta orduan Unai Arantzabal (Bidelan-Kirolgi) bigarren helmugaratu zen, lasterketa oso ona egin da –Andrei Amador

(Lizarte) izan zen irabazlea. Bergarakoak indartsu dagoela aldarrikatu zuen Soraluzen, eta ordainetan Gipuzkoako selekzioarekin lehiatu da Aste Santuan. Bigarren proba Lauskizen egin zuten martxoaren 22an, eta han pronostikoak bete ziren: Andrey Amador da gainditu beharreko txirrindularia. Hainbat talde profesional gertutik jarraitzen dabilta Costa Ricako lasterkariaren ibilbidea; bikain moldatu da hemengo txirrindularitzara, ea Gorlan zelan moldatzen den.



HELMUGAN Iazko lasterketako helmugan Hector Gonzalez besoak jasota; ondo sufritu eta gero merezitako saria jaso zuen.

GOIENKARIA

TXIRRINDULARITZA &gt; 'TROPOLA.NET' WEBGUNEAN

## Martitzenetik aurrera (hilak 1) egin ahal izango da 'Tropola.net' blogean Euskadiko Itzuliaren gaineko porra

Apirilaren 7an hasiko da Euskadiko Itzulia, eta txirrindulariak pedalei ematen hasi artean bete ahal izango da porra

X.U. &gt; BERGARA

Euskadiko Itzuliko lehenengo etapa (Legazpi-Legazpi) hasi bezain laster itxiko dute [www.tropola.net](http://www.tropola.net) blogeko porra. Ordura arte, baina, txirrindularitzako

zaleek sei egun izango dituzte ziklistak aukeratu eta porrak betetzeko: "Astelenerako gurako genuke porra gertu izan, baina Euskadiko Itzulian esku hartuko duten txirrindularien zerrenda behar dugu, eta martitzen arte ez da posible izango dena gertu izatea", adierazi du Oihan Odriozolak.

Iaz moduan, aurten ere Euskadiko Itzulian, Giroan, Tourrean, Vueltan eta Munduko Txapelketan egin ahal izango da porra: "Joan den urtean, lasterketa guztiak batuta guztira 16.000 kinie-la egin zituzten ziklismozaleek".

### IBARRETIK IGAROKO DA PROBA

Apirilaren 7an hasiko da aurten Euskadiko Itzulia, eta lasterketak izango dituen sei etapetik hirutan Debagoieneko errepideetatik igaroko dira. Astelenean bertan (Legazpi-Legazpi, 13:35), lasterkariak birritan egingo dute Udana, Oñati, Elorregi, Bergara, Antzuola ibilbidea.

Martitzenean ere Legazpian hasiko dute etapa (Legazpi-Erandio, 13:10), eta txirrindulariak berriro ere Udantatik sartuko dira ibarrera, handik Osintxu aldera egiteko. Hurrengo etape-

tan Bizkaitik Nafarroa aldera egingo dute, eta gero Arabara: hirugarren etapa, hilak 9, Erandio-Viana; laugarrena, hilak 10, Viana-Gasteiz. Eta, bosgarren etapan, hilak 11, berriro ere igaroko dira Debagoienetik: Gasteiz-Orio (12:50). Txirrindulariak Arabako hiriburutik etorriko dira, eta Arlaban jaitsita Eskoriatza (13:38), Aretxabaleta, Arrasate eta Bergararik (14:00) igaroko dira. Hain zuzen ere, ibarreko zaleek hor gozatu ahal izango dute gehien, txirrindulariek Gorlako maldak igo behar izango dituztelako.

&gt; FUTBOLA

### Preferenteak deskantsua izango du oraingo asteburuan

Futbol jokalariek deskantsua izango dute asteburuan, ez da preferenteko jardunaldirik egongo. Atsedendia ez da, baina, kategoria horretarako mugatuko, gainontzeko kategoriek ere ez dute-eta asteburuan jokatu.

Hala, datorren zapatuan, hilaren 5ean, itzuliko dira futbol txapelketak. Preferenteko 27. jardunaldian Mondra (41 puntu) izango da etxean jokatuko duen bakarra, Euskaldunaren (32) kontra. Aretxabaletak (43), berriz, Touringen (21) zelaira egingo du bidaiari, eta Zestoaren zelaira (22) joango dira Aloñakoak (29).



MENDIKO ESKIA &gt; TXAPELKETAK

# Pierra Mentatik bueltan, Iban Letamendi eta Aitor Otxoa Espainiako Txapelketara

Asteburuan egingo dute Astunen Espainiako Mendiko Eskiko Txapelketa, bikoteka

Letamendi anaiak eta Aitor Otxoa izan dira Pierra Menta proba esanguratsuan aurten ere

XABIER URTZELAI &gt; OÑATI

Frantziako Alpeetan egiten duten Pierra Menta proba ezaguetik itzuli berri, Iban Letamendik eta Aitor Otxoak ez dute atse den hartzeko asti handirik izango, asteburuan bertan Astunen egingo duten Espainiako Txapelketan lehiatuko dira-eta. Ez da aurrera begira duten hitzordu bakarra: "Apirilean Glaziarretako Patrulla izeneko lasterketara joango gara, Alpeetara. Proba gogorra da, etapa bakarrean 100 kilometro inguru egingo ditugulako, eta lasterketaren zati handi bat gauzez egiten delako", adierazi du Iban Letamendik. Pierra Mentarekin batera, Europan mendiko eskiko lasterketa esanguratsuenetako bat da Glaziarretako Patrulla, eta Oñatikoek ez dute hitzordu horretara kalerik egingo.

Asteburuari begira, berriz, Pierra Mentan ez bezala Iban Letamendik Aitor Otxoarekin osatuko du bikotea Astunen, anaia ez da-eta txapelketan izango. Izan ere, Pierra Mentan Arkaitz Letamendi eta Aitor Otxoa izan dira bikotekide, eta Iban Letamendik Fernando Monasteriorekin egin du lau etapako proba. Hain zuzen ere,

azken bikote hori izan da lehen bikote euskalduna, 72. postuan -Xavier Capdevilla kataluniarrekin bikotea osatu zuen Joseba Ormazabal izan zen lehen euskalduna, 21. postuan-.

## EZIN PROBA AMAITU

Aurreratu moduan, Iban Letamendik eta Fernando Monasteriok ondo amaitu zuten proba, baina ibarreko bikote Arkaitz Letamendik eta Aitor Otxoak bertan behera utzi behar izan zuten lasterketa: "Hirugarren etapan Arkaitz erori egin zen, eta kolpe polita hartuta ezin izan zuten aurrera jarraitu. Granmotte-ko igoera mitikoa baino lehenago dagoen jaitsieran erori zen anaia. Zorte txarra izan zuten, erori eta arrastaka erreka zuloraino joan zelako. Hasieran susto ona hartu zuten, batetik, busti egin zelako eta hipotermia txikiren bat izan zuelako, eta bestetik, lepo inguruan hartu zuelako kolpea. Baina, ez du ezer hautsi, eta sustoa baino ez zen izan. Hori bai, pena, hirugarren etapa eginda Pierra Menta ia amaituta dagoelako, eta Granmotteko igoera izugarri ederra delako; 3.500 ikusle egoten dira mendian animatzen, pentsa".



EGURALDI APARTA Aitor Otxoa 185 dortsalarekin (atzean), tontor batetik igarotzen.

ARKAITZ IRURETA

## BIKAIN ANTOLATUTAKOIA

Martxoaren 12an iritsi ziren Arches Beaufortera, eta euria zen. Baina, hurrengo egunetik hasi eta proba amaitu arte eguraldi ona izan zuten. Iban Letamendik adierazi du oso gustura itzuli dela aurtengo Pierra Mentatik: "Gozatu egin dut, sekulako eguraldia izan dugulako, eta ondo

entrenatuta joan naizelako. Fernando aita izan berri da, eta ez du nik beste entrenatu. Hala, ondoko laguna baino indartsuago zaudenean normalean gozatu egiten da, alderantziz denean gehiago sufritzen da. Dena dela, nik pentsatzen nuena baino hobeto ibili da bikotekidea, eta gustura itzuli gara".

Beste behin, antolatzaileek egindako lana azpimarratu du Letamendik: "185 bikote mendian sartzeko gauzak oso ondo egin behar dira: elur jausirik egon ez dadin neurriak hartu, arriskua badago ibilbide alternatiboak gertu izan...". Oraindik ere askotan joateko asmoa duela argitu du Oñatikoak.



GOIENKARIA

## Uzarragako Igoera egingo dute zapatuan, 16:00etan hasita

Bihar egingo dute, Antzuolan, Euskal Herria Txapelketarako puntuagarria den lehenengo lasterketa: Uzarragako Igoera -sei dira guztira-.

Hala, 16:00etan hasita txirrindulariek 81 kilometroko ibilbidea izango dute aurrean, Antzuola, Bergara, Zubillaga eta Oñati bitartean egindako ibilbideari hainbat itzuli eginda. Lasterketa amaitzeko ziklistek kilometro eta erdiko malda duen Uzarragako gaina izango dute zain. Antzuolako ziklistei dagokienez, Xabier Arantzetak (Sumofic) etxean korrituko du.

ERRUGBIA &gt; NESKAK

## Arrasateko nesken taldeak Kopa jokatu du laster

Zehaztu barik dago eguna, baina Atletikorekin batera jokatu dute Kopa

dea egitearekin batera bete zutelako -datozen denboraldiei begira geroago eta zorrotzagoak izan beharko dute-.

### KOPA JOKATZEKO

Orain, baina, Kopa noiz jokatu zain daude, federazioak oraindik ez du-eta egunik zehaztu. Hala, seguruenik apirilean edo maiatzean izango da hori.

Kopari begira, Arrasatekoek ligan bost partidu irabazi eta sei galdu dituen Atletiko izango dute aurrean. Zuri-moreek ez dute norgehiagokarik irabazi; alde horretatik bistan da kontrarioak abantaila duela. Baina Kopa jokatzeko hutsa dagoeneko saria da, lehenengo aldiz egingo dutelako txapelketa hori. Errugbia nesken artean badela erakusten dabilta.

X.U. &gt; ARRASATE

Arrasateko neskek oraindik ez dute aurtengo denboraldia amaitu, Gipuzkoako Kopa jokatu dute-eta Atletiko taldearekin batera. Mikel Kerexetaren eta Igor Erañaren neskek martxoaren 15ean jokatu zuten ligako azken norgehiagoka, Getxon.

Aurreikuspenak beteta, ligako talde indartsuenak jipoi polita eman zien Arrasateko neskei (90-0), eta horrela ere, ARTkoek pozik esan zioten ligari agur, aurtengo helburua tal-





#### > MUSIKA

Ruper Ordorikak zuzeneko bigarren diskoa kaleratuko du aurki > 45



#### > KOMUNIKAZIOA

Sagardozaileen elkarten webgunea egin du Artemanek > 51

#### > JON AZKOAGA

Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkarteko kultura teknikaria da. 22 urte ditu eta soziologian lizentziatua da. Dio, euskara gutxi entzuten dela kalean > 50



Zineklubak 70 lagun inguru batzen ditu astero Oñatin, eta 20 bat Elgetan

Proiektorearekin zein DVDan ematen dituzte filmak

Bergaran eta Aretxabaletan zinema areto berria egingo dute eta Antzuolan ere aztertzen ari dira

#### OIHANA ELORZA > BERGARA

Zinekluba edo zinema. Ibarreko ikusle askok egiten dute aukera bi horietako baten alde, norberaren istorioak alde batera utzi eta beste mundu baten, beste egoera baten eta beste istorio baten sartzeko.

Komertzialak ez diren filmak eskaintzen dituzte zineklubean eta ikusleria fidela du. Oñatin, adibidez, 70 lagun inguru joaten dira eguen guztietan, eta Elgetan 15-20 lagun. Oñatiko zineklubak ibilbide luzea du: "Duela urte asko Garoako aretoan, parrokiako lokalean, botatzen zituzten filmak. Pako Arregi agustindar oñatiarra zen orduko zineklubaren arduraduna eta hark aukeratzen zituen pelikulak", gogoratzen du Anton Aspiazu oñatiarra. "Garoa itxi zutenean, guk filmak eskaintzen jarraitu gura genuen. Gipuzkoako zineklubuen elkarteko kide egin ginen eta elkarte horrek 16 mm-ko kamera erosi zituen. Horrelako kamera bat ekarri eta institutuko aretoan ematen genituen filmak, baita kalean ere. Bilbotik ekartzen genituen pelikulak. Santa Ana-ko aretoa egin zutenean, 35 mm-ko proiektorea erostearen alde egin genuen. Gaur egun, Kruz Mari Arantzabalen bitartez lortzen ditugu filmak eta kultura etxe-aretoan ematen ditugu. Oso harreman ona dugu Udala-ekin", jarraitu du Aspiazuk.

#### ZINEMA PROIEKTOREAK


Oñatin zinema proiektorea dute, eta horrekin ematen dituzte filmak. DVDa ere badute. Arrasaten ere horren aldeko apustua egin zuten eta proiektorea erosi zuten duela bi urte. Momentu honetan ez dute zineklubik Arrasaten, baina hain komertzialak

# Lintera magikoaren distira

Ibarreko zineklub eta zinema aretoak







PROIEKTOREA Oñatiko kultura etxean zinema proiektorearekin ematen dituzte filmak.

LEIRE KORTABARRIA

## Linterna magikoaren distira

(43. orrialdetik dator)

ez diren filmak ematen dituzte eguen guztietan Amaia antzokian. "Zinema areto komertzialetan lekurik ez dutenak, baina merezi duten filmak ekartzen saiatzen gara. Banatzaileak ere laguntzen digu aukeraketa lana egiten. Apirilean, adibidez, emakumeek zuzendutako edo antzez-tutako filmak emango ditugu, Emakume Txokoak antolatutako ziklo baten barruan", aurreratu du Karmelo Alberdik, Arrasateko Udaleko Kultura teknikariak.

Arrasaten ere garbi ikusi dute film alternatiboak ikustera doan jendea ikusleria fidela dela: "Egia da filma komertzialak ikustera jende gehiago doala, agian, baina kontuan izan behar da film horiek ere behin baino gehiagotan ematen dituztela. Bilboko banatzaile batek ekartzen ditu pelikularak", zehaztu du Alberdik.

### BERGARAN ETA ARETXABALETAN

Aretxabaletan ez dute zinema aretorik gaur egun. Udan plazan ematen dituzten filmak dira salbuespena. Hala ere, laster zabalduko dute zinema areto bat. Eraikitzen ari diren Arkupe kultura etxe berrian egongo da gero zinema aretoa, hain zuzen ere: "Ekipoa erosita dago. Asmoa da hilean hiru astean ematea filmak, asten bost proiektzio. 35 mm-ko proiektorea eta DVDA erabiliko dira horretarako. 100 lagunendako tokia izango du aretoa", azaldu du Lore Martinezek, Kultura zinegotziak. Hasiera baten, Udalak izango du zinemaren ardura. "Asmoa da enpresa bati ematea filmen kudeaketa, baina oraindik ez dugu ezer lotu", dio Kultura zinegotziak.

Asmoa da film komertzialak, helduendako zein umeendako, ematea asteko bost proiektzio horietan: "Hala ere, herritar edo elkarte batek zinekluba eskaini gura badu, zabalik ditu atek,

Udalaren aldetik ez dago arazorik, nahikoa da gurekin harremanetan jartzea", argitu du Lore Martinezek.

Antzuolan, momentu honetan, ez dago zinemara joateko aukerarik: "Olaran etxean ematen zituzten lehen filmak, baina tokia ere ez zen aproposena, eta, ikusle gutxi joaten zirela ikusita, itxi egin zuten", dio Pedro Iturbe alkateak. Hala ere, etorkizunean zinema egoteko aukera aztertzen ari da Udala: "Egia da oraindik ez dugula ezer zehaztu horren inguruan, baina Torressoroko gizarte etxea leku aproposa izan daiteke zinema areto bat jartzeko. Dagoeneko eraikitzen ari dira gizarte etxe hori eta bukatutakoan ikusi beharko da aretoren bat zinema eskaintzeko erabiliko den edo ez", jarraitu du.

Bergara da zinema aretorik ez duen beste herri bat. Zabalotegiko lokala erabilera askotariko lokal bihurtzeko proiektua egin zuen Udalak, baina egungo agintariak konturatu dira proiektu horrek ez duela aintzat hartzen zinema areto bat: "Zinemak soi-

nu grabeak ditu eta horrek erakina modu berezian intsonorizatzea esan gura du, ez oraingo proiektuak jasotzen duen moduan", argitu du Enara Minguezek, Kultura zinegotziak. "Orain aztertu behar dugu egokitze lanak egiteak ze kostu duen diru aldetik eta denbora aldetik, eta, hori jakin eta gero, Zinea Orain plataformarekin eta herritarrekin berba egin gura dugu zer egin erabakitzeko", jarraitu du. Egun, Gazte Asanbladak eskaintzen du zinekluba gaztetxean, baina gerora begira, Zabalotegiko lokala eskainiko die Udalak film emanaldietarako.

### DEFIZITARIOA

Zinema aretoak zabalik izan eta filmak eskaintzea defizitarioa da udalendako. Enpresari diru kopuru bat ematen diote kudeaketa zerbitzuagatik, eta udalak ordaintzen du defizita. Arrasaten ere ez dute etekinik ateratzen, baina herri bietan garbi dute zinema eskaintzen jarraituko dutela. Bergara eta Aretxabaleta beste bi adibide dira.

Julio Calleja &gt; Elgetako zinekluba

## "Komertzialak ez diren film guztiek daukate tokia zineklubean"

O.E. &gt; ELGETA

Elgetako zineklubeko filmak aukeratzen ditu Julio Callejak beste bi lagunekin batera azken hiru urteotan. 15-20 lagunek ikusten dituzte astero eurek aukeratutako filmak.

Ze film mota sartzen dira zineklubean emateko?

Hain komertzialak ez diren film guztiak sartzen dira. Izan daitezke zaharrak edo berriak, ezagunak edo ez, baina denek dute tokia. Batzuek jatorrizko bertsoan daudenak ere aukeratzen dituzte, baina jendeari kostatzen zaio irakurtzea, nahiago du ikustea; eta guk, adibidez, ez ditugu jatorrizko bertsoan botatzen.



GOIENKARIA

Zeren arabera aukeratzen duzue film bat edo bestea?

Irizpide nagusia da komertzialak ez diren filmak aukeratzea. Askotan film zaharrak aukeratzen ditugu. Zuzendari ezagunak egindako lehenengo filmak edo hain ezagunak ez direnak ere ekarri izan ditugu; adibidez, Luis Buñuel edo Woody Allen zuzendarienak. Datorren astean, esaterako, Txinako film bat eman behar dugu. Oscarra irabazi duen *Los infiltrados* filma pelikula txinatar horren *remake*-a da, hain zuzen ere. Horretaz ez da jendea konturatu, eta guk hori erakutsiko dugu.

Film asko daude aukeratzeko? Nola-ko merkatua da?

Bai, merkatuan film asko daude zineklubean eskaintzeko modukoak. Onak aukeratzea da zaila. Horretarako, jendearen aholkuak jarraitzen ditugu, adibidez.

Trukatzen dituzue filmak ibarreko gainerako zineklubekin?

Bergarako zinekluba daramatenekin, adibidez, badugu harremana. Hitz egiten dugu filmei buruz: zer-nolakoak diren, nolako arrakasta izan duten, jendeari gustatu zaien edo ez edo ze kritika egiten dieten.

Ze ikusle mota joaten da zineklubeko filmak ikustera?

Denetarik, baina pelikularen arabera ere izaten da hori. Hala ere, bada- go ikusleria finkoa ere, fidela. Elgetan, adibidez, 15-20 lagun inguru elkartzen gara eguaztenero; Elorriotik eta Arrasatetik ere etorri izan da jendea.

Ikusleek egiten dute proposamenik gai edo zuzendari bati buruzko zikloak antolatzeko, adibidez?

Proposamenak jasotzen ditugu.

Egiten duzue pelikulari buruz berba bukatu ostean?

Egin izan dugu tarteka, baina normalean ez. *Lucio* dokumentalarekin egin gura dugu, adibidez. Zinema adituak direnak ere gonbidatu gura ditugu noiz edo noiz, baina oraindik ez dugu ezer lotuta.

Urte guztian dago zinekluba Elgetan?

Udan film lasaiagoak botatzen ditugu, agian, baina ez dugu etenik.

Zein da zineklubaren filosofia?

Helburua da jendeak filmak ikustea, eguneroko istorioak alde batera utzi eta beste baten sartzea.



JENDEA Zineklubak ikusle kopuru fidela du ibarrean eta denetariokoak joaten dira filma komertzialetara. Argazkian, Aupa Etxebeste Amaia antzokian.

ARTXIBOA



MUSIKA > RUPER ORDORIKA

## 'Hamar t'erdietan', Ruper Ordorikaren zuzeneko berria

2006ko urrian Bilboko Kafe Antzokian grabatutako kantuak eta irudiak biltzen ditu lan berriak, eta apirilaren 10ean egingo dute aurkezpena

EDU MENDIBIL > BERGARA

*Hamar t'erdietan* izenburupean, Ruper Ordorikak (Oñati, 1956) disko berria aurkezteko du apirilaren 10ean. Zuzeneko lana da musikari oñatiarrak Elkar diskoetxearekin kaleratuko duena. Hain zuzen ere, 2006ko urriaren 26an eta 27an Bilboko Kafe Antzokian zuzenean erregistratutako kantuak eta irudiak bilduko dituzte CD eta DVD batean.

BIGARREN ZUZENEKOA

Ordorikak bere oinarritzko *erru-pertoria* erreparatzen du lanean, 2000. urtea ezker emanaldi askotan alboan izan duen Mugalaris talde ezagunaren laguntzaz.

Disko berriak kantarik eza-gunenak biltzen ditu, tartean *Ene herrian*, *Zaindu maite duzun hori* edo *Martin Larralde*. Esan bezala, *Hamar t'erdietan* diskoa Elkar argitaletxearen eskutik kaleratuko du oñatiarrak. Aurretik *Memoriaren mapan* diskoa argitaratu zuen Ordorikak, 2006an.

Oñatiarrak bere ibilbide luzean ateratzen duen bigarren zuzeneko diskoa izango da honako hau. 2000. urtean, *Gaur* izenburupean zuzeneko lehen lana kaleratu zuen, Esan Ozenki diskoetxearekin orduan. Lan hura ere Bilboko Kafe Antzokian grabatu zuten.

Dagoeneko 28 urte igaro dira Ordorikak lehen diskoa grabatu zuenetik. *Hautsi da anphora* hartatik (Xoxoa-Elkar), hamalau disko kaleratu ditu bakarlarimoduan eta beste hiru Hirutruku taldearekin; Joseba Tapiarekin eta Bixente Martinezekin batera kantu zaharrak berreskuratu izan dituzte.

Egunotan Mugalaris berriekin hainbat kontzertu ematen ari da Ruper Ordorika. Hain zuzen ere, joan den martxoaren 21ean Biarritzen jo zuten eta gaur, egubakoitza, Kuban, Havanan jotzekoak ziren. Oraingoz ez dute kontzertu gehiagoren datarik aurreratu.



ZUZENEAN Ruper Ordorikak zuzeneko berria aurkeztuko du datorren apirilaren 10ean.

GOIENKARIA

## Juan Izuskiza bergararren 'Paranoiaren hozberoa', kalean

Juan Izuskiza bergararrak *Paranoiaren hozberoa* (*Nintendorena*) aurkeztu zuen eguaztenean, Donostian. Izuskizak Juan Zelaia saria eskuratu zuen lan horrekin, azaroan. Pamiela argitaletxeak argitaratu du lana eta bertan gizakia munduari zentzua ematen nola saiatzen den aztertu du Izuskizak, Nintendo jokoaren egitura erabiliz. Egilearekin batera, Joseba Intxaustik eta Jose Angel Iriagaraik hartu zuten parte eguazteneko aurkezpenean.



OIHANA ELORTZA



SAMU CREW David ezkerrean eta Angel eta Amaia eskuinean.

GOIENKARIA

TELEBISTA > 'TU SI QUE VALES'

## Samu Crew, gaurko finalean, Telecincon

David eta Angel Alcaraz bergararrak eta Amaia Bernal, Angelen emaztea, dira taldean, Irungo eta Oretako beste hiru lagunekin

E.M. > BERGARA

Samu Crew break-dance taldeak parte hartuko du gaur, egubakoitza, Telecinco *Tu si que vales* saioko finalean. Talde horretan Bergarako hiru gazte dira: Angel eta David Alcaraz anaia eta Amaia Bernal. Taldea zabalagoa izan arren, sei laguneko taldea osatzen dute telebistarako: bergararrekin batera, Oretako Jose Mari eta Imanol Peso eta Irungo Yerandi Macias daude talde-

an. Gaurko finalean beste 14 talderen aurka neurtuko dituzte indarrak. Irabazleek 30.000 euro eskuratuko dituzte. Saioa 22:15ean hasiko da. Epaimahaia Angel Llacerren, Noemi Galerak eta Los Morancos bikoiteak osatuko dute.

Gaurko saioa zuzenean izango da eta Samu Crew taldekoek *Cazafantasmas* filmean oinarritutako koreografia egingo dute. Taldeak Irunen egiten dituzte entseguak.

ZINEMA > EMAKUME TXOKOA

## Emakumezko zinemagileak protagonista Arrasaten

Emakume Txokoak antolatutako zinema zikloa apirileko eguetan Amaian

E.M. > ARRASATE

Arrasateko Emakume Txokoak antolatuta, emakumezko zinema zuzendariari eskainitako zikloa izango da Amaia antzokian apirilaren 3tik aurrera (eguna).

Hirugarren urtez antolatu dute zinema zikloa, eta, aurrekoetan moduan, emakumeak protagonista bihurtzea eta haien inguruko gaiak plazaratzea da zikloaren helburua.

LAU EMANALDI

Lehen emanaldia, esan bezala, apirilaren 3an izango da: *Nasija* film laburra eta Andrea Stakak zuzendutako *Das Fräulein* filma eskainiko dituzte; apirilaren 10ean *Preguntas sin respuestas* Rafael Monteroren doku-



mentala ikusteko aukera izango da; apirilaren 17an *Propiedad privada* film laburraren ondoren, Lucia Puenzoren *XXY* filma emango dute. Puenzo argentinarraren filmak hainbat sari jaso ditu nazioartean; Sarah Polley aktore ezagunak (*Mi vida sin mí*) zuzendutako *Away from her* filmak emango dio amaiera zikloari, hilaren 24an.

Emanaldi guztiak 20:30ean izango dira eta sarrerak 4 eurotan jarriko dituzte salgai, Amaia leihatilan bertan.



**INMOBILIARIA**  
**IBARGARAI 3 • BERGARA**  
 Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
 www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**

- Zabalotegi 80 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 80 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.
- Martoko 92 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- Aranerrea 75 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.
- Elusu baseria. Berritua.
- Bidekuruzeta 60 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Ibargarai 74 m<sup>2</sup>. Ondo.
- San Juan. Bifamiliarra.
- Zubiaurre 70 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Matxiategi 61 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- Zabalotegi 60 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Barrenkale 82 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Zubieta. 75m<sup>2</sup>. Txokoarekin.

**Antzuola:**

- Buzintzuri 76 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- Alherra 123 m<sup>2</sup>. Duplexa.
- Antigua 80 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.

**Eskoriatza:**

- Baserria. Berritua.

**DEBA**  
**GARAIA**  
 INMOBILIARIA  
 Telefonoz Aranzadi 2  
 T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**

- Matxiategi, 61m<sup>2</sup>, oso ondo
- Martoko, 87 m<sup>2</sup>, ondo, garajearekin
- San Pedro, 88 m<sup>2</sup>, ondo
- Ibargarai, 80 m<sup>2</sup>, oso ondo
- Artekale, 70 m<sup>2</sup>, oso ondo
- Koldo Elizalde, 87 m<sup>2</sup>, oso ondo
- Artekale, 89 m<sup>2</sup>, ondo
- Zubieta 70 m<sup>2</sup>, ondo
- Urdangarin p., 132 m<sup>2</sup>, berritzeo
- Irizar p., 89 m<sup>2</sup>, oso ondo
- Matxiategi, 73m<sup>2</sup>, berritzeo
- Bidekuruzeta, duplexa, berritua
- Aranerrea, 80m<sup>2</sup>, oso ondo
- Etxebizita berrien eraikuntza Madura, Masterreka eta Zubiaurren.
- Zurradero, 81m<sup>2</sup>, oso ondo

**SORALUZE**

- Baltegieta, 83m<sup>2</sup>, berria

**ANTZUOLA**

- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m<sup>2</sup>, erdi berritua.

**ELGETA**

- San Roke, 75 m<sup>2</sup>, ia berria.

**IRAGARKI SAILKATUAK**

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 05** sailkatuak@goiena.com

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 22 EURO ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO.**

**PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 30 EURO.**

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Aretxabaleta.** Erdigunean teilatueko 72 metro koadroko etxebizitza salgai. Jantzita. 16 metro koadroko garajea. Prezio interesgarria. Presazkoa da saltzea. 659 64 67 38.

**Arrasate.** 117 metro koadroko etxebizitza salgai Zerrajeran. Lau logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Garaje eta guzti. 650 10 02 10 edo 943 79 96 63.

**Arrasate.** 47 metro koadroko apartamentua salgai. Erdialdean. Berritua eta jantzita. Argitsua eta material ederrekin egina. 635 70 88 88.

**Arrasate.** 61 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza berritua salgai San Andresen. Bi logela, sukaldea, egongela, komun bat eta terraza. 12 m<sup>2</sup>ko sotoa ere badauka. Igogailu berritua. Sartzeko prest. 256.050 euro. Deitu 669 14 67 92 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Erdialdean 94 metro koadroko etxebizitza. Hiru logela, sukaldea, bi komun eta egongela. Igogailua eta berogailua. Garajea aukeran. Eraikin berria. 686 24 97 48.

**Arrasate.** San Andres auzoan etxebizitza salgai. 58 m<sup>2</sup>. Bi logela, egongela, sukaldea, komun eta trasteleku. Berritua. 210.350 euro. 943 27 15 10.

**Bergara.** Barrenkalea kalean. 40 m<sup>2</sup>. Bi logela, komun eta sukalde amerikarra. 62790 68 91 edo 627 53 55 54.

**Bergara.** Erdialdean etxebizitza salgai: bi logela, sukaldea, komun, sala eta despentsa; trasteleku eta garajea. 626 13 45 94.

**Bergara.** Koldo Elizalde kalean 97 metro koadroko etxea salgai. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Eguzkitsua eta bista oso onak. Garajea eta trasteleku. 655 71 03 23.

**Bergara.** Zabalotegi etxea salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Deitu 653 70 84 04 zenbakira.

**Legazpi.** 52 metro koadroko etxebizitza berria. 50 metro koadroko terraza, sukalde-egongela, bi logela, bi komun eta hari musikala. 660 84 51 78.

**Lizarrar.** Hiru solairuko txalet adosatu salgai. 210.350 euro. 675 71 07 24.

**Oñati.** 70 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai Kale Zaharrea. Berria, igogailuarekin, guztiz jantzita. Leku onean kokatua. 617 05 86 27.

**Oñati.** 75 m<sup>2</sup>. Hiru logela, egongela-jangela, sukalde berritua, trasteleku eta estudioa egiteko moduko bi ganbara. Oso argitsua. Prezioa negozio daitteke. 629 93 87 01.

**Oñati.** Bidebarrieta kalean etxea salgai. Hiru logela, bi komun, egongela, sukaldea eta terraza handia. 665 74 98 47.

**Oñati.** Diseinuko duplexa salgai. 120 metro koadro Kale Zaharrea. Argitsua eta material ederrekin eginda. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta estudioa. 676 39 36 93.

**Oñati.** Duplexa salgai erdialdean. 105 m<sup>2</sup>. Lau logela, bi komun, egongela eta sukaldea. 635 71 41 39.

**Oñati.** Erdigunean eraikitzen ari den etxebizitza. 105 metro koadro. Hiru logela, bi komun, 40 metro koadroko egongela-jangela, sukaldea eta trasteleku. Aukera paregabekoa, prezio onean. 651 70 80 04.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Arantzazu kalean. Berri-berria. Garajearekin. Prezio onean. Deitu 608 54 40 44 zenbakira.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Olakua auzoan. Hiru logela, sukaldea, bainugela, egongela, trasteleku eta garaje itxia barne. Guztiz berritua. 657 72 25 70 edo 665 72 87 89.

**Oñati.** Zubiarri kalean eraikitzen ari diren etxean duplexa salgai 1. eta 2. solairuak. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egongela handia, garajea eta trasteleku. Dena igogailuarekin lotuta. Eguzki energia termikoa. Deitu 670 85 85 41 telefono zenbakira.

**Oñati.** Zubillaga auzoan etxebizitza salgai. 79m<sup>2</sup>. Hiru logela, sukaldea, sala, komun eta ganbara guztiz berritua. 39 milioi, negoziagarriak. 635 71 41 39.

**Elgeta.** 105 m<sup>2</sup>. Laugarren solairua. Lau logela, bi komun, sukaldea, egongela, trasteleku eta ganbara. Dena jantzita. Igogailua dauka. Deitu 657 77 67 91 edo 669 66 82 24 zenbakira.

**Elgeta.** Etxebizitza ia berria salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela-jangela eta bi bainugela. 205.000 euro. Deitu 664 79 64 97 telefono zenbakira.

**Soraluze.** Hiru logela, bi komun eta trasteleku dituen etxebizitza salgai. Sukalde-jangela eta egongela, dena bat da. Lau balkoi eta terraza dauka eta arropa barruan eskegitzeko aukera. 258.435 euro, negoziagarriak. Deitu 616 17 94 01 telefono zenbakira.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** 100 metro koadroko etxebizitza Bolun. Guztiz jantzita. Hiru logela, bi komun, sukalde-jangela, egongela, sarrera eta trasteleku. 607 41 14 44.

**Bergara.** Oso egoera onean dagoen etxebizitza daukat alokatzeko. Deitu 20:00etatik aurrera. 626 00 96 32.

**Hendaia.** Uztail eta abuzturako apartamentua errentan. Erresidencia batean kokatua, igeurlekuarekin eta parking pribatuarekin. Hondartzatik gertu. Inaxio. 670 41 08 58.

**Chiclana-Costa Sancti Petri (Cadiz).** Apartamentua errentan La Barrosa hondartzatik gertu. Deitu 616 14 65 54 edo 678 78 39 10 telefono zenbakietara.

**Torremolinos (Malaga).** Aste Santuan eta Bergarako jaietan apartamentua emango nuke errentan. Bi logela, eta guztiz jantzita. Hondartzatik 150 metro. Prezio onean. Deitu 657 01 18 16 zenbakira.

## IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 22 EURO ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 30 EURO. GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## OÑATI

**Sukaldaria behar da. Ordutegi eta baldintza onak.**  
 943 27 61 07  
 943 42 30 07

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Emakume arduratsua batek logela behar du. Presazkoa da. Hobe erdigunean bada. 666 21 88 95.

**Bergara.** Etxea errentan hartuko nuke Bergaran. Deitu 665 75 52 11 telefonora.

**Debagoiena edo Soraluze.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 617 88 20 93.

## 105. ETXEA OSATU

**Bergara.** Gela ematen da errentan. Sukalde erabiltzeko esku-bidearekin. Bolun. 260 euro. 670 85 86 68.

**Gaszte langilea** logela bila Arrasate edo inguruan. Deitu 630 43 72 96 telefonora.

## 2/ GARAJEAK

## 201. SALDU

**Garaje-trasteleku** txikia saldu edo alokatzen da Bergarako Zurradero kalean. 5.500 euro. 5.80x1.80. Motorra gordetzeko egokia. 678 43 31 07.

**Aretxabaleta.** Garajea salgai Loramendin. 10.000 euro. 656 77 64 64.

**Arrasate.** Garajea salgai Jauregibarria kalean. 943 08 29 81.

**Oñati.** 17 m<sup>2</sup>-ko garaje itxia salgai Olakua auzoan. Deitu 943 08 18 13 edo 677 42 57 94 telefono zenbakietara.

## 203. ERRENTAN EMAN

**Antzuola.** Garaje itxia emango nuke errentan. 650 55 44 98.

**Aretxabaleta.** Garaje itxia ematen dut errentan. Andramari auzunean dago. 943 77 12 81.

## BERGARA

**Egun osoz lan egiteko zerbitzaria behar da.**  
 659 05 63 82

**Arrasate.** Unibertsitate ondoan garaje itxita errentan ematen da. 667 07 14 17.

## 3/ LOKALAK

## 301. SALDU

**Arrasate.** Lokala salgai Anboto kalean. 61 metro koadro. 656 73 34 84 edo 945 44 50 15.

## 303. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** 80 m<sup>2</sup>ko lokala ematen dut errentan. Berriztatua. 450 euro hilero. 645 00 80 55.

**Oñati.** Bidebarrieta kalean garaje bat alokatzen da. Deitu 695 75 85 26 zenbakira.

## 304. ERRENTAN HARTU

**Bergara-Arrasate.** Musika talde batek lokala alokatu edo partekatuko luke. 618 02 03 00.

**Bergara.** Bergaran taberna bat hartuko nuke errentan. Jantzita egon behar du. 697 20 78 24.

**Bergara.** Taberna edo jatetxea errentan hartuko nuke. Deitu 665 75 52 11 zenbakira.

## 4/ LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Emakumea behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 696 79 43 89.

## 402. ESKAERAK

**Bergara.** Emakume bat gertu umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak orduka egiteko. 606 64 16 09.

**Bergara.** Erizain laguntzaile titulua duen neska euskalduna zaharrak eta umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Deitu 625 19 08 63 zenbakira.

**Bergara.** Mutil arduratsua atarrieto garbitasun lanak egiteko gertu. Lan txukuna eta profesionala bermatzen du. 696 38 10 07 edo 649 63 23 24.

**Bergaran** umeak edo nagusiak zaintzeko gertu dagoen emakumea naiz. Horrez gain, garbiketa lanak ere egingo nituzke. 606 64 16 09.

**Debagoiena.** Atariak garbituko nituzke. Lan txukuna eta serioa ziurtatzen dut. 696 38 10 07.

**Debagoiena.** Baserrietan mantentze-lanak egin edo baso, pinudi eta lursailak garbitzen lan egingo nuke. 678 88 05 64 edo 678 53 82 11.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu umeak zaindu edo garbitasun lanak egiteko: etxeak, tabernak, bulegoak... 696 11 01 94.

**Debagoiena.** Mutil bat edozein lan egiteko prest. 671 92 79 85.

**Debagoiena.** Paperak dituen emakumea garbitasun lanak edo pertsonak zaintzeko gertu. 609 76 72 69.

**Debagoiena.** Paperak dituen mutil gaztea gertu eraikuntza alorrean lan egiteko. Deitu 617 85 32 72 zenbakira.

**Emakumea** edozein lan egiteko prest. Batez ere garbiketan eta nagusiak zaintzen. Deitu 666 21 88 95 telefonora.

**Margolari** edo iturgin laguntzaile lanetan aritzeko lan bila nabil. 610 82 02 17.

**Ostalaritzan** lan egingo nuke sukaldari edo zerbitzari. Baita nagusiak zaintzen ere. Berehalanean hasteko prest. Deitu 666 75 73 21 zenbakira.

**Sukaldaria** eskaintzen da lan egiteko. 677 64 84 82.

**Bergara.** Emakume esperientziaduna gertu pertsona eda-detuak zaintzeko. 673 64 53 43 edo 629 75 00 30.

**Bergaran.** Emakumea behar da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. 652 75 79 71.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu umeak zain-

du edo garbitasun lanak egiteko: etxeak, tabernak, bulegoak... Deitu 696 11 01 94 edo 943 77 16 73 telefonotara.

**Oñati.** Emakume arduratsua eta esperientziaduna lanerako gertu. Etxeak, elkarrekin... garbituko nituzke. 635 71 12 88.

## 6/ MOTORRA

## 601. SALDU

**BMW 325 Ci.** 146.000 km. 16.000 euro. 606 24 21 21.

**Citroen ZX** 1.9i Volcane autoa salgai. 130 ZP. ABS, direkzio lagundua, kristal-igogailu elektriko, aire girotua eta itxitura zentralizatua. 900 euro. Deitu 686 91 45 37 zenbakira.

**Daevo.** Hiru ate. Egoera onean. 3.000 euro. 688 62 98 03.

**Golf GTI Serie II** salgai. 1990ekoa. 165.000 km. Egoera onean. 1.200 euro. Deitu 653 71 44 31 telefono zenbakira.

**Opel Astra** Caravan 1.7 TD autoa salgai. Matrikula: SS-AT. 2.000 euro. 690 36 86 66.

**Opel Meriva** salgai. 2004koa. Gasolinazkoa. Egoera oso onean. 9.500 euro. 670 26 45 03.

**Opel Vectra** autoa salgai. Egoera onean. 2.400 euro, negoziatzeko prest. 658 73 40 21.

**Peugeot 106 XT** autoa salgai. 649 32 92 94.

**Renault Laguna** 2.2 salgai. 1997koa. Kontsumo txikia du. Egoera onean. 1.800 euro. 677 93 83 19.

**Yamaha 426** motorra salgai. 2001ekoa. Egoera onean dago. 2.000 euro. 615 00 84 49.

**Yamaha Aerox** Ultimate 49 cc motorra salgai. Beltza eta gorria da. Egoera onean. 606 08 09 17.

**Honda CRV** 1998, 128cv, 5p. oso egoera onean. 6500€. 665 75 17 67.

**Yamaha** Majestic Limited 125 motor beltza salgai. Ekainera arte Yamahagarantziarekin. Kilometro gutxi dauka. Beti garajea. 2.000 euro. 619 52 75 87.

## 8/ DENETARIK

## 801. SALDU

**Epiphone SG** gitarra elektriko salgai, maleta gogorarekin, afinagailuarekin eta Marshall amplifikadorearekin. Dena 250 euro. 692 13 48 56.

**Administrazio** laguntzaile lanposturako oposaketak prestatzeko apunteak salgai. Gai guz-

tiak eta testak egiteko CDA. 2008koak. 636 05 36 18.

**Segurtasun aukia.** Autoan umeak eramateko segurtasun aukia salgai. 656 78 64 64.

**Errepideko bizikleta** salgai. Aluminiozkoa. Oso egoera onean. Karbonozko urkila. Osagarriak: Ultegra. 550 euro. Deitu 635 71 94 66 telefonora.

**Garajea ate berria** salgai. Prezio bikainean. Neurriak: 3,16x3 m. Gainekoa: 0,50m. Automatismoa jaratzeko prest. Fabrikatzailea: Puertas Nueva Castilla. 605 75 96 11.

**Jaunartzea** egiteko murradun alkandora eta jaka urdin iluna salgai. 656 78 64 64.

**Karro-denda** salgai. Alpen-Kreuzer. Sukalde-denda independentearekin. Bi logela bikoitz, mahai-jantokia 4-6 pertsonarentzako, abantzea eguzkitarako biserearekin eta sukaldea. Ondo zainduta eta egoera onean, beti garajea gordeta. 1.800 euro. 615 72 47 43.

**Karabana** salgai. Zazpi metrokoa. Kalefakzioa eta ur berogailua, komun, duxa eta sukalde osoa kanpoan, Mutrikuo Santa Elena kanpenean jarrita. 652 75 03 61.

**Mahai obalatua** salgai. Neurria: 1,36x92. Luzagarriekin. Asier. 617 17 15 88.

**Pultometroa** salgai. S410 modelo, CD-ROMa barne. Merkea eta egoera onean. Deitu 685 76 44 77 telefonora.

**Tabernaiko tresneria.** Hamar bandeko labea, 36 diametro-dun xafalak oebakitzaila industrial, Fagor garbigailua eta mahai eta aukiak saltzen ditut. 649 84 67 09.

**Teleskopioa** daukat salgai. Astrolon markakoa. 402 potentzia. 656 78 64 64.

## 806. GALDU

**Bergara.** Ezkontzako urte koloreko eraztuna galdu nuen. Gizonetako izena eta 99-025 data du idatzita. Deitu 627 64 91 58 telefono zenbakira.

**Betaurrekoak.** Arrasaten, erdialde eta ospitale artean graduatutako betaurrekoak galdu ditut. Itxura zaharra dute: beltzak dira, eta borobilak. Deitu 678 30 42 02 zenbakira.

**Betaurreko** graduatuak galdu nituen martxoaren erdialdean Arrasateko Urbe auzoan. Estututako betaurrekoak galdu ditut. Itxura zaharra dute: beltzak dira, eta borobilak. Deitu 678 30 42 02 zenbakira.

**Umeen betaurrekoak** galdu ditut Arrasaten. Norbait aurkitu baditu deitu mesedez. Deitu 658 73 91 07 telefonora.

## 807. AURKITU

**Belarritakoa** aurkitu nuen, otsailaren 26an, Bergarako osasun etxearen eta taxi geltokiaren artean. Emak



## hildakoak

- **Mari Luz Ezenarro Arostegi.** Bergaran, martxoaren 15an.
- **Sebastian Gonzalez Fernandez.** Bergaran, martxoaren 16an. 66 urte.
- **Esteban Letamendi Agirre.** Oñatin, martxoaren 19an. 77 urte.
- **Angelita Arizmendi Azpiazu.** Bergaran, martxoaren 20an. 90 urte.
- **Nikasio Puertas Mayordomo.** Bergaran, martxoaren 21an. 74 urte.
- **Gloria Oiarzabal Otegui.** Oñatin, martxoaren 21an. 92 urte.
- **Loren Ormaetxea Nieva.** Bergaran, martxoaren 22an. 79 urte.
- **Enrike Arozena Lizeaga (frailea).** Oñatin, martxoaren 24an. 82 urte.
- **Doroteo Samanes Mateo.** Bergaran, martxoaren 26an. 83 urte.

ESKER ONA

### Juste Amenabar Gallastegi

Bergaran hil zen 2008ko martxoaren 9an, 95 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak  
bidali dizkiguzuenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2008ko martxoaren 28an.

3. URTEURRENA

### Aritz Azpiazu Bengoa

*Hiru urte ez dira pasa berehalakoan  
zure irribarrea sentitzen dugu  
oraindik gure ondoan  
bizi garen artean beti  
egongo zara gure gogoan.*



Etxekoak.  
Oñatin, 2008ko martxoaren 25ean.

Babeslea:

OROIOLORE Hileta eta Beilatoki zerbitzuak  
Amillaga Auzoa, 27. 20570 Bergara  
Tel.: 617 442 155 - 943 76 94 73 - Faxa: 943 76 94 76  
maribi@oroilore.com



Bidaia ezin hobea  
Bidaia ezin hobea



1. URTEURRENA

### Modesta Azurmendi Uriarte

Lehen urteurrenako meza  
domekan, martxoaren 30ean,  
11:50etan  
Antzuolako Errukizko Amaren parrokan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

1. URTEURRENA

### Justina Iribecampos Aranzabal

Jose Andres Iribecampos Arocenaren alarguna

Lehen urteurrenako meza  
domekan, martxoaren 30ean,  
12:00etan,  
Elgetako Jasokundearen Andra  
Mari parrokan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:  
**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkari batara, eguazten eguerdia baino lehen:

### Arrasate

Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 71 25 11. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.

### Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

### Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

### Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

### Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

### Elgeta

Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98

### Antzuola:

Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

### Eskelaren prezioa: 100 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta astelehenero GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **120** euro.

### ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedunak: 90 euro

Prezio berezia: egubakoitzeko eta GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **110** euro.

### Goienkaria: astero, 50.000 irakurle. (CIES)






**bila-bila 7**



**hitz gezidunak**

		Berri-emailea	t	Barazki mota	t	Burmuina	t
		* Irudiko animalia		Zaborrak		Hizkuntza zaharra	
			↳		t		t
		Latz	↳				
		Lasai					
Inudea	t	Berutzen jarri	↳				
Tuberkulu mota		Arraunen euskarri	t				
	↳				Indioa	↳	
					Bokala		
Eromena	↳						
Hondamena							
	↳				Bokala	↳	Infusio mota
					Otx!		
Mezaren hasiera	↳		Ikas eta Ari	↳		t	Kontsonantea
Etxe aberea			Bokala				50
	↳		t		Bilo	↳	t

GOIENKARIA

Jeroglifikoak: Besapean

7	5	4							
9	4	2							
	9		7	8					
	3				1				
		6	2		9				
					5	4	7		
6	2	1							
	4		3						

L	E	I	L	E					
V	A	L	E	R	A				
V	A	L	E	R	A				
V	A	L	E	R	A				
N	A								
I	N								
U	T	A							
R	A								
R	A								
V	A								
L	E								
G									

**sudokua**

	7			5		4			
						7	2	8	
9	4	2							
		9		7	8				
		3				1			
			6	2		9			
						5	4	7	
6	2	1							
		4		3					1

**hieroglifoa**


Non darama pistola?

**S  
A  
B  
B**

**hizki salda**

Eskoriatzako 7 elizateak

Z	A	R	I	M	U	T	Z	R
B	R	A	U	P	R	E	B	X
A	E	G	E	L	L	A	O	B
E	T	M	A	Z	M	E	L	A
M	A	R	I	N	A	N	I	E
Z	T	S	X	E	R	M	B	R
A	P	O	T	Z	A	G	A	B
S	O	R	A	E	P	Z	R	E
M	E	N	D	I	O	L	A	X



**bono fotoa**



**Nola deitzen da Oñatiko mugen barruan kokatzen den urtegi hau?**

Argazkia eta galdera > Iñigo Biain



Super BM emandako  
**50 euroko erosketa-txartela**  
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....  
IZEN-DEITURAK.....  
TELEFONOA .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO  
Goienako edozein egoitzara

**Danone natillak**  
4ko packa

**1,65 €**

Hiru eramanda, bi ordaindu

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

Xabi Leundarendako  
izan da erosketa-txartela. Zorionak!

Galderaren erantzun zuzena: 1629an.



Aurrezki Mistoa | EUSKADIKO KUTXA

Eramazu

**mix** bat

ZURE **INBERTSIOETARAKO**  
KONBINAZIORIK ONENA

3.000 €-tik gora

INBERTSIOAREN  
ERDIA, 6 HILABETEKO  
EPE FINKOAN

**%7**  
ko  
TAE

Interes nominala: % 6,882  
Interesak mugaegunean ordainduko dira

ETA BESTE ERDIA,  
2 URTE ETA 2 HILABETERAKO  
BERMATUTAKO FONDO BATEAN

**%14\***

\* BBVAren, Santanderren eta Telefonicareen akzioek balioa irabazten badute epealdi horretan • BBVAren, Santanderren eta Telefonicareen akzioek balioa irabazten badute epealdi horretan • Alderatzeko egunak: Hasierakoa, 2008ko martxoaren 31ko eta apirilaren 1eko eta 2ko batez besteko prezio ponderatua • FBukaerakoa, 2010eko maiatzaren 21eko, 24ko eta 25eko batez besteko prezio ponderatua • Fondoaren mugaeguna: 2010/05/31 Alderatzeko egunak: Hasierakoa, 2008ko martxoaren 31ko eta apirilaren 1eko eta 2ko batez besteko prezio ponderatua • FBukaerakoa, 2010eko maiatzaren 21eko, 24ko eta 25eko batez besteko prezio ponderatua • Fondoaren mugaeguna: 2010/05/31

Eskaintza hau **nominamulti**-ren titularrei soilik zuzenduta dago

\* Eskaintza martxoaren 31ra arte egongo da indarrean.

Au











## berriak

&gt; PROGRAMAZIOA

**Albistegiek ohiko ordutegia izango dute datorren astetik**

Aste Santuan eta Pazko astean ohiko programazioa eten du Goiena Telebistak. Datorren astetik aurrera, baina, berriz ere bueltatuko da *Berriak* saioa ohiko ordutegia izatera. Hala, eguerdian 14:45ean eta iluntzean 19:45ean izango dira albistegien zuzenekoak. Egurdiko albistegia, ohikoa den moduan, Goiatz Arana erredaktore-buruak aurkeztuko du eta iluntzekoa, Larraitx Zeberio kazetariak.

&gt; PROGRAMAZIOA

**Mahai politikoaren txanda datorren martitzenean**

Ohiko programazioa eskainiko du Goiena Telebistak berriz ere, Aste Santuaren ostean. Hala, Julen Iriondo-ren eskutik, *Berbaire* saioan entzun ahaliko dira politika alorreko ahotsak.

Datorren martitzenean mahai politikoaren txanda da eta GOITBko platoon izango dira Ander Rodriguez, Pello Urizar, Andoni Gartzia eta Oxel Erostarbe. Hori 21:47an izango da.

&gt; ARRASATE IRRATIA

**Zentsura mozioaren emaitza eta Udalaren etorkizuna**

Azken egunotan moduan, datorren astean ere politika eta Udal Gobernuaren etorkizuna izango da Arrasateko albisteen artean protagonistetako bat. Besteak beste, martitzenean jakinaraziko dute alderdi politiko gehienek PSE-EEren zentsura mozioarekin bat egiten duten edo ez. Ezin bestela izan, eta Arrasate Irratian ere albiste horri jarraipen zehatza egingo diote gure lankideek.

&gt; ARRASATE IRRATIA

**Kulturarekin lotura duten oparien zozketa, ostiralero**

Aste Santu ostean ere opariz beteta dator Arrasate Irratia. Udalarekin elkarlanean, asteburuetan Amaia Udal Antzokian dauden ekitaldietara joateko sarrerak zozkatzen jarraituko dute. 3.60 aretoarekin elkarlanean, berriz, areto horretan izaten diren kontzertuetara joateko sarrerak ere zozkatzen jarraituko dute eta Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin elkarlanean, musika CD eta liburuan zozkatzen jarraituko dute.

'ZAHARRAK BERRI' &gt; EGUAZTENA, 20:15

# Oihana Elortzak aurkeztuko du 'Zaharrak berri' saioa

Oihana Elortza oñatiarrak aurkeztuko du 'Zaharrak berri' saioa datozen hilabeteotan

GOIENKARIA &gt; ARRASATE

Aitziber Aranburuzabala ordezkaturiko du Oihana Elortza oñatiarrak datozen hilabeteotan *Zaharrak berri* saioan. Dakizuen moduan, gure nagusiei zuzendutako saioa da *Zaharrak berri*; asteroko erreportajeaz gain, tertuliak eta Amaia Diaz de Monasterioren dietistak elikagaien gainean ematen dituen aholkuak dira protagonista saioak irauten duen 30 minutuetan.

Oihana Elortza ezaguna da Goiena Telebistan; guztiok ezagutuko duzue garai baten *Ilunpean* saioa aurkeztu zuelako.

OIHANA ELORTZA *Zaharrak berri* saioa aurkezte berria.

GOIENKARIA

'EUSKALDUNAK HIZKETAN' &gt; MARTITZENA, 21:47

## 'Euskaldunak hizketan' saio berria estreinatuko du GOITBk martitzenean

GOIENKARIA &gt; ARRASATE

Tarte honetan behin baino gehiagotan aipatu izan dugu Tokiko Telebisten Elkarteko zazpi telebistek *Euskaldunak Hizketan* deritzon saioa ekoizten zihardutela. Bada, amaitu dira ekoizpen lanak eta datorren

martitzenean, apirilaren 1an, estreinatuko du Goiena Telebistak. Esandako moduan, Tokiko Telebisten Elkartea osatzen duten zazpi telebistek ekoiztu dituzte saioak: GOITBk, Goierri Telebistak, Erlo Telebistak, 28 Kanalak, Oizmendi Tele-

bistak, Ttipi-Ttapak eta Xaloak, hain justu. *Euskaldunak hizketan* saio berrian, pertsona nagusi euskaldunekin egindako elkarrizketak dira protagonista. Askotariko gaiak ukituko dituzte, betiere, lehenagoko ohiturak oinarri hartuta. Telebista bakoitzak bost elkarrizketa egin ditu, eta, beraz, guztira, 35 ahots desberdin jaso dituzte. Hainbat tokitako esperientziak direla kontuan izanik, aberastasuna egongo da tokian tokiko ohituretan, eta baita euskalkie dagokionez ere. Produkzio ostekoa Arteman-ek egin du.

## telebegi

Aitor Arregi

### '1, el brikdans, 2 el krusaito'...

**E**z Obama ez eta Bardem. Azken egunetako izenik aipatuena Chiquilicuatre da. *Chiki-chiki*-a gure etxeetan sartu da. Fenomeno hau dela-eta lau gauzaxo etorri zaizkit burura, agian kantuan 4 zerbakiak (1. Brikdans. 2. Krusaito. 3. Mikeljason. 4. Robocop) duen garrantziaz inspiraturik.

1. Buenafuente-ren trebetasuna. TVEko audientziaren zati bat berarengana ekartzea lortu du bere taldekidea TVEko saio batean sartzean. Aldi berean, gaurko telebistaren argazki aparta atera du, edozein tontakeria egin edo esateagatik famatu egin direnak parodiaturik. 2. Eurovision-ek azkeneko urteetan izan duen eboluzioa. Lehiaketa serio bat izatetik europar frikien kongresu bat bilakatu da eta horrek, interesa berpiztu du. Irlanda txotxongilo batek ordezkaturiko omen du. 3. Chiquilicuatre antzeztan duen aktorearen burutik zer pasako da? Nazio bat ordezkatu, ez dakit zenbat milioiren aurrean, berarena ez den diziplina batean... surrealista eta itzela aldi berean. 4. Alemaniar edo ingeles baten aurpegia ikustea gustatuko litzaidake Chikilicuatre tupea eta tonbolako gitarrarekin kantatzen hasten denean.

## arrasate irrata

FM 107.7

**Zapatua**

10:00 Asteko gainbegiratu. Xabier Silveira bertsolaria, *Ilunpean* saioan; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta, tertulia...) *Zaharrak berri* saioan, eta sexologia kontuak, besteak beste.

**Domeka**

10:00 Asteko gainbegiratu.

**Astelehenerik egubakoitzera**

10:00-12:00 Igo Autobusera  
Albistegia  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)  
Ilunpean  
Teknoberriak  
Igo Euriborrera!  
Kantaka  
Zaharrak Berri  
Astearen errepasoa  
Zozketak  
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com, goiena.net))  
11:55 Arrasateko albisteak, labur.  
12:05 Euskadi Irratiko albistegia  
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Igo Autobusera! (errep.)  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 28**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Horry 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Animalia. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 San Adriango kondairak 15:45 Gaurkoak. 15:47 Musikantoi. 16:15 Ur eta lur. 16:45 Albisteak. 17:15 Horry 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Euskal artzainak Ameriketara 18:45 Albisteak. 19:15 Ikusmira. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Horry. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Gertutui: turismoa 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Musikantoi. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Klip 28. 00:15 Emisio amaiera.

**Zapatua, 29**

08:00 Emisio hasiera 08:05 Marrazki bizidunak: Horry, eta Trikitraka trikitron. 11:00 Teknopolis 11:30 Ikusten. 12:00 Astekoak. 12:15 Klip. 12:30 Gertutik 13:00 Eltze beroa 13:30 Erreportajea. 14:00 Gabiriako rallya 14:30 Hondartzako motxila. 15:00 Kantari. 16:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Ikusten. 19:30 Klip@. 20:00 Ur eta lur. 20:30 San Adriango kondairak. 21:00 Euskal artzainak. 21:30 Erreportajea ttipi ttpa. 22:00 Erreportajea. 22:30 Ilunpean. 23:00 Musikantoi. 23:30 Jazmina. 00:00 Emisio amaiera.

**Domeka, 30**

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak, Horry eta Trikitraka trikitron. 11:00 Kantari. 12:00 Ur eta lur. 12:30 San Adriango kondairak. 13:00 Euskal artzainak. 13:30 Jazmina. 14:00 Animalia. 14:30 Eltze beroa. 15:00 Musikantoi. 15:30 Erreportajea. 14:00 Ilunpean. 14:30 Erreportajea ttipi ttpa. 15:00 Ur eta lur. 15:30 Eltze beroa. 16:00 Gertutik. 16:30 Marrazki bizidunak. 19:00 Jaz gauak. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Ur eta lur 20:30 Erreportajea ttipi ttpa. 21:00 Hondartzako motxila. 21:30 Animalia. 22:00 Astekoak. 22:15 Gertutik 22:45 Erreportajea. 23:15 Teknopolis. 23:45 Ilunpean. 00:15 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera

**Astelehena, 31**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Horry 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea-Ttipi Ttpa. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Ilunpean 15:45 Gaurkoak. 15:47 San Adriango kondairak. 16:15 Gabiriako rallya. 16:45 Berriak. 17:15 Horry 17:45 Gaurkoak. 17:47 Teknopolis. 18:15 Ikusten. 18:45 Berriak. 19:15 Gertutik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Horry. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea. 22:15 Kirolari. 22:45 Berriak. 23:15 Harmailatik. 22:45 Gaurkoak. 23:30 28 Klipa. 00:15 Emisio amaiera.

**Martitzena, 1**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Horry. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:15 Harmailatik. 14:45 Berriak. 15:15 Gertutik. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Kirolari. 16:15 Eltze beroa 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 28 Klipa. 18:15 Musikantoi. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak: Horry. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire 22:15 Euskaldunak hizketan. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusmira. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Erreportajea. 00:15 Emisio amaiera.

**Eguaztena, 2**


13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Horry 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Euskaldunak hizketan. 16:15 Teknopolis. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Gertutik. 18:15 Harmailatik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Berriak. 20:15 Zaharrak berri. 20:45 Berriak. 21:15 Gertutik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Euskal artzainak. 22:15 Ur eta lur. 22:45 Berriak. 23:15 Teknopolis. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Jaz gauak. 00:15 Emisio amaiera

**Eguena, 3**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zaharrak berri. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Marrazki bizidunak. 14:15 Euskal artzainak. 14:45 Berriak. 15:15 Ikusmira. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ur eta Lur. 16:17 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Kirolari. 18:45 Berriak. 19:15 Erreportajea 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Musikantoi. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusten. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Teknopolis. 00:15 Emisio amaiera




Goienkaria **33.825** irakurle




## GOIENKARIA: askogatik, irakurriena\*

El Diario Vasco **17.765** irakurle




Gara **5.060** irakurle



Berria **2.310** irakurle




El País **1.430** irakurle



Marca **1.265** irakurle




Mundo Deportivo **715** irakurle



El Correo **605** irakurle



Deia **275** irakurle



- GOIENKARIA da Debagoiengan gehien irakurtzen den hedabidea.
- Bigarren hedabidea baino bi bider gehiago irakurtzen da.
- Debagoiendarren %60,5ek astero irakurtzen du GOIENKARIA.

**Eskerrik asko, irakurle.**

# Goienkaria



# Martxoak 28-Apirilak 3

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

## Bertsolaritza



OÑATI

### > V. Oñatiko Bertsolari Txapelketako irabazlea bihar erabakiko da

Bihar, zapatua, jokatu da Oñatiko Bertsolari Txapelketako finala, Arrano elkartearen, 18:00etan. Joseba Lasagabaster, Ander Lizarralde, Joseba Igartua Urze, Xabier Paskual, Beñat Alberdi eta Endika Ruiz ibiliko dira lehen.

## Antzerkia



ARRASATE

### > 'Gixonak' antzezlan egingo du antzerkizaleen talde batek etzi, domeka

Ondarroako Helduen Antzerki taldeak *Gixonak* lana egingo du. Tonu ironiko, zuzen eta samurrean idatzitako gizonen gaineko hiru testutan oinarrituta dago. Emakume Txokoak antolatuta. Etzi da, Amaia antzokian, 19:30ean.

## Lehiaketa



BERGARA

### > Mendekosteetako zapirako marrazkia aukeratzeko lehiaketa, Jardunek

Jaietako zapirako marrazkia aukeratzeko lehiaketa deitu du Jardun euskara elkarteak. Marrazkiarekin batera, euskararen erabilera bultzatzen duen lelo bat jarri beharko da. Argibide gehiago, Jardunen (943 76 36 61).

4an, egubakoitza. Rock klasi-koa bluesarekin edo rock garaikidearekin bateratzen dute taldekoek.

Aitzorrotz kultura taldeak antolatu du emanaldi hori.

Apirilaren 4an, Inkernu tabernan, 22:30ean.

## Erakusketak

BERGARA

### > Cele Otañoren erakusketa osatuena ikusteko aukera

Cele Otaño Bergaran hilobiratu dagoen artistaren erakusketa dago Aroztegi aretoan. Karikatidak, olioizko margoak, grabatuak eta kolonaurreko zeramikak dira. Domeka da erakusketa bisitatzeko azkeneko eguna.

Datorren egubakoitzean, apirilak 4, beste erakusketa bat inauguratuko dute: Fernando Azkargorta margolari bergararren lanak egongo dira apirilaren 4tik 20ra bitartean.

Gaur, egubakoitza: 18:00-20:30; bihar, zapatua: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; etzi, domeka: 12:00-14:00.

BERGARA

### > Kute Erdabideren margolanak daude Nahikari tabernan

Kute Erdabide 14 lan ipini ditu erakusgai Nahikari tabernan. Akwarelak dira, eta Euskal Herriko txokoak hartu ditu gaitzat. Ricardo Azkargotarekin dihardu ikasten. Beart Bergarako arte elkartearekin hainbat taldeko erakusketatan parte hartu du, eta honakoa da bere lehenengo bakarkako erakusketa.

Masterreka kaleko Nahikari tabernan.

DONOSTIA

### > Manu Muniategiandikoetxearen erakusketa

Manu Muniategiandikoetxea bergararren *Behar gorria*. *Primavera azul* delako erakusketa bisitatzeko aukera dago. Art Basel Miami Beach delako azokarako 2004an egindako proiektua, Burgosko Kutxaren arte zentzoko bakarkako erakusketa eta 2007ko Iruñeko Baluartean oraingo hamarkadako artista espainiarren taldeko erakusketaren oinarri.

Koldo Mitxelenako erakusketa aretoan, honako orduetara: martitzenetik zapatara, 10:30-14:00 eta 16:00-20:30; astelehen, domeka eta jaiegunetan, itxita.

OÑATI

### > Diego Moiaua oñatiarraren erakusketa ikusteko parada

Diego Moiaua margolari oñatiarrak bere lan batzuen erakusketa ipini du kultura etxean. Zabalik dago apirilaren 16ra bitartean.

Bisita ordutegia: egunero, 18:30etik 20:30era bitartean.

## Antzerkia

OÑATI, ESKORIATZA

### > Ikusi Makusi antzerki taldeak emanaldia egingo du

Pake Leku erretiratuen elkarteak Ikusi Makusi taldeak *Bidaia bat egingo dugu* delako antzezlan egingo du bihar, zapatua, Oñatin; datorren egubakoitzean, hilak 4, Eskoriatzan egingo dute, hori gaztelaniaz.

Oñatin, Santa Ana antzokian, 22:00etan; Eskoriatzan, unibertsitatean, 19:00etan.

ESKORIATZA

### > Umeendako 'Sumatuz...' ikuskizuna egingo dute

*Sumatuz...* delako ikuskizuna antolatu du Arizmendi ikastolak. 0-2 urte arteko umeei zuzenduta dago. Herritar guztioi zabalik dago. Ordu erdiko ikuskizuna da.

Egubakoitzean, apirilak 4, Jose Arana gunean, 18:00etan.

ARRASATE

### > Inprobisazio emanaldia egongo da Iamari kafetegian

Kike Matilla Valladolideko umorezko aktoreak inprobisazio emanaldia egingo du Kontzezino kaleko Iamari kafetegian.

Datorren egubakoitzean, apirilak 4, Ikatastrofen Teatro antzerki taldeak *4 razones para ser Jenny Monzón* delako antzezlan egingo du; gazte batzuek leku-aldaketa bitxi baten aurrean zer egiten duten azalduko dute.

Gaur, egubakoitza, gauerdian.

ELGETA

### > 'Sexo gratis' antzezlanerako sarrera eros daiteke

*Sexo gratis* delako antzezlan egingo du Kunka konpainiak Espaloia antzokian. Talde horrek ekoizten duen bigarren

antzezlan da; aurrekoa, *Meando fuera del tiesto* delakoa, taldearen aurkezpena izan zen. Honakoa Josean Miguelek eta Eloy Beatok idatzitakoa da, eta taula gainean sexu betetako 80 minutu dira. Komedia naturalista antzezten duten bost aktorek *voyeurismo*-ra gonbidatzen duen zuzeneko egingo dute. Antzezlan horretarako sarrerak eros daitezke Espaloian, 11 eurotan bazkideek eta 14 eurotan gainerakoek.

Antzezlan apirilaren 4an, egubakoitza, izango da, 22:30ean.

OÑATI

### > 'Grönholm metodoa' antzezlanerako sarrerak salgai daude

*Grönholm metodoa* delako antzezlan egingo du Txalo antzerki taldeak apirilaren 5ean. Sarrerak salgai daude dagoeneko kultura etxean, 10 eurotan.

Itziar Ituño, Asier Hormaza, Ramon Agirre eta Joseba Apaolaza dira aktoreak. Multinazional batean, exekutibo plaza bat betetzeko azken lau hautagaiak gela batean bildu dituzte, hautaketa prozesuko azken probak egin ditzaten. Lehen ikusian kosta egiten da sinestea lanpostuari berari dagozkion probak direnik, hain dira absurduak denak.

Emanaldia apirilaren 5ean izango da, Santa Ana antzokian, 22:30ean.

## Musika

ARRASATE

### > Zea Mays eta Anger taldeen kontzertua egongo da

Zea Mays eta Anger taldeek musika emanaldia egingo dute apirilaren 4an, datorren egubakoitzean. Zea Mays

bilbotarrek *Morphina* delako diskoa aurkeztuko dute, euren bosgarren lana.

3.60 aretoan, 23:00etan.

BERGARA

### > Royal Canal taldeak kontzertua egingo du bihar, zapatua

Bergarako eskubalo taldeak antolatuta, Royal Canal taldearen kontzertua egongo da. *Soldados* delako mini-LPa gertatu dute, sei abestirekin, eta 250 ale aterako dituzte. Mermaid taldeko kide ohiek osatzen dute. Bestalde, Electric Riders eta Bergarako Folsom Four taldeek joko dute.

Bihar, gaztetxean, 22:30ean.

ESKORIATZA

### > 'Garage rock'-a egingo du Los Ajustadores taldeak

Arabako Los Ajustadores taldeak *garage rock* estiloko emanaldia egingo du apirilaren

PROPOSAMENA

ARRASATE

### > Haur Liburuaren eta Liburuaren Eguneko ospakizunak

Arrasateko Liburute-giak honako ekintzak antolatu ditu: Lur Korta ipuin kontalariaren emanaldia (apirilak 1, 3 eta 8, goizez), *Ipuin Lapurra* ikuskizuna, Ginol Taldearekin (apirilak 2, 18:00), Mugarri Estaliak: hitza, irudia eta musika delako erakusketa (apirilak 4-27) eta poesia irakurketa (apirilak 4 eta 23) eta Literatura Solasaldiak, euskaraz eta gaztelaniaz.

Ekintza guztiak Kulturaten egingo dituzte.





ELGETA

> **Emili Cadiñanosen eskulanak ikusteko aukera dago**

Emili Cadiñanosek eskulan erakusketa ikusgai dago Espaloia kafe antzokian. Martxoan bukatzen da erakusketa.

**Lehiaketak**

BERGARA

> **Mendekoste jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa**

Bergarako Mendekoste jaiak laster iritsiko dira. Hala, jaietako programaren azala egiteko lehiaketa martxan jarri du Udaleko Kultura zerbitzuak.

Kartelak Bergarako kultura etxean aurkeztu beharko dira, apirilaren 7ko 13:00ak baino lehen. 24 x 34 cm-ko neurria izango dute kartelak; teknika librea da, baina *Pentekoste jaiak 2008 Bergara* testua derrigorrez agertu beharko da. Lehiaketa honetan Bergaran bizi edo erroldatutako edozein pertsonak har dezake parte.

Argibide guztiak [www.bergara.net](http://www.bergara.net) webgunean daude.

Lanak aurkezteko epea apirilaren 7an bukatzen da.

DEBAGOIENA

> **Ei Gazte! logotipo lehiaketa deitu du Eusko Ikaskuntzak**

Eusko Ikaskuntzako Gazteria sailaren logotipoa diseinatzeko lehiaketa deitu dute. 16-30 urte bitartekoek parte har dezakete. Maiatzaren 15a da lanak bidaltzeko azken eguna, eta 1.500 euroko saria emango dute.

Argibideak, [www.eusko-ikaskuntza.org](http://www.eusko-ikaskuntza.org) webgunean.

**Bestelakoak**

ARRASATE, ARAMAIO

> **'High School' musikala ikustera joango dira Iturripekoak**

*High School* musikala egingo dute apirilaren 4an Bilbon, Arriaga antzokian, eta berau ikustera joateko autobusa antolatuko du Iturripe elkarteak, lagun kopuru nahikoa egonez gero. 8 euro da eta autobusa Aramaiotik irtengo da 16:45ean; Arrasaten eta Bergaran geldituko da.

Bestetik, egun berean, Gaztela-Leongo Orkestra Sinfonikoak emanaldia egingo du Euskaldunan, eta hura ikusteko aukera ere badago. Argibideetarako, deitu 620 55 99 79 telefonora.

Martxoaren 31 da izena emateko azkeneko eguna.

ESKORIATZA

> **Liburu azoka egingo dute, eta liburuak eraman daitezke**

*Bat ekarri, bi eruen* delako liburu azoka egingo du Udalak apirilaren 19an, eta horretarako, norberak gura ez dituen liburuak ematea eskatzen dute. Ondo egon behar dute, eta ez dituzte testuliburuak hartuko. Herrikan kanpokoek ere parte har dezakete.

Eskoriatzako liburutegira eraman behar dira aleok.



**Juno \*\***

Zuzendaria: Jason Reitman.  
Aktoreak: Jennifer Garner, J.K. Simmons, Allison Janney.  
AEB, 2007.  
92 min. 13 urtetik gorakoendako.

Azken urteetan, Oscar sarietarte uzten dute zinema independentearentzako: joan den urtean, *Pequeña miss Sunshine* komedia ederra izan zen, eta aurten, *Juno*. Filmak izendapen garrantzitsuak zituen: aktore onenari (Ellen Page), film onenari... eta azkenean, lortutako saria jatorrizko gidoi onenarena izan da. Eta batzuetan, horrenbesteko esker ona lortzea engainagarria izan daiteke: *Juno* komedia atsegina bada ere, ez da film handia.

*Juno*-k nerabe baten haurdunaldia kontatzen digu: haurdun dagoela jakiten duenean, gurasoei eta haurraren aitari esaten die-nean, haurra beste bikote bati ematea erabakitzen duenean... Argumentu horrekin, zapatuko arratsaldeetan telebistetan ematen dituzten telesailak bururatzen zaizkigu; baina ez. *Juno*-k dramatik ihes egiten du, eta, zerbait berria egiteko asmoz, komediara hurbiltzen da. Eta hemen datza filmaren alde positiboa eta baita hain lortua ez dagoen aldea. Halako gai batera ikuspegi desberdin batekin hurbiltzea oso ondo dago, baina, aldi berean, batez ere filmaren lehen zatian, denbora guztian orijinala, dibertigarra eta piper-tsua izan nahi izatea zertxobait gogaikarria gertatzen da, eta kontatutakoari naturaltasuna kentzen dio. Eta alderantziz, filmaren bigarren zatian, pertsonaien benetako sentimenduetara hurbiltzen denean, esate baterako, nerabearen eta ama nahi izan duen emakumearen arteko harremanak ukitzen dituen edo nerabeak mutil-lagunarekin dituen harremanak kontatzen dituenean, istorioa eta pertsonaiak gertuagoak egiten zaizkigu.

Orokorrean, *Juno*-ren alde sentimentalak alde umoristikoa baino hobeto funtzionatzen du.

Antonio Zabala

**Zinema**

**ARAMAIO KULTURA ETXEA**

Lagundu!, arraina naiz  
Domeka: 17:00.

**ARRASATE AMAIA ANTZOKIA**

Los crímenes de Oxford  
Zapatua: 19:30.  
Astelena: 20:30

Nocturna (euskaraz)  
Zapatua: 17:00.

Nasija (laburra)

Das Fräulein  
Eguena: 20:30.

**BERGARA GAZTETXEA**

Camino a Guantánamo  
Domeka: 18:00.

**ELGETA ESPALOIA ANTZOKIA**

Juego sucio  
Eguaztena: 21:30.

Asterix menhirkada  
Domeka: 17:30.

**OÑATI KULTURA ETXEA**

Pozos de ambición  
Egubakoitza: 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelena: 19:30.

**EIBAR UNZAGA**

No es país para viejos  
Egubakoitza: 19:30, 22:15.  
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

**GASTEIZ GURIDI**

Love sick  
17:30, 20:00, 22:30.

Seda  
17:30, 20:00, 22:30.

Al otro lado  
17:30, 20:00, 22:30.

Cometas en el cielo  
17:30, 20:00, 22:30.

Buda explotó de vergüenza  
17:00, 18:45.

Oro negro  
17:00, 18:45.

Lo mejor de mí  
20:30, 22:30.

Los falsificadores  
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**

Cerrando el círculo  
22:30.

Juno  
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

27 vestidos  
19:45, 22:30.

Mi monstruo y yo  
17:00.

Pozos de ambición  
19:15, 22:00.

10.000  
17:00.

Horton  
17:00, 18:45, 20:30.

No es país para viejos  
17:30, 20:00, 22:30.

Despierto  
17:30, 20:00, 22:30.

Papá por sorpresa  
17:30, 20:00, 22:30.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

10.000  
12:15, 17:00, 18:00, 19:15, 20:15, 21:30, 22:30, 23:45, 00:45.

Casi 300  
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

La noche es nuestra  
12:15, 15:40, 17:55, 20:10, 22:25, 00:40.

En el punto de mira  
19:55, 21:55, 23:55.

Las hermanas Bolena  
22:05, 00:15.

Jumper  
12:15, 15:55, 17:55.

No es país para viejos  
19:45, 22:05, 00:25.

27 vestidos  
20:20, 22:30, 00:40.

Franklin (infancia)  
12:15, 16:20.

Las crónicas de Spiderwick  
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

Despierto  
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

Juno  
12:15, 15:45, 17:45.

Astérix en los Juegos Olímpicos  
12:15, 15:55, 18:05.

The eye  
12:15, 15:50, 17:50.

Papá por sorpresa  
12:15, 15:35, 17:50, 20:05, 22:20, 00:35.

La guerra de Charlie Wilson  
19:50, 21:50, 23:50.

Alvin y las ardillas  
12:15, 16:25.

Mi monstruo y yo  
12:15, 16:10, 18:20.

Como la vida misma  
20:35, 22:35, 00:35.

Seda  
18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.  
Eguerdiko saioak, domekan.

Astelena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO BOULEVARD**

10.000  
16:30, 17:15, 19:15, 20:00, 22:20.

Mi monstruo y yo  
18:10.

En el punto de mira  
16:10, 18:10, 20:10, 22:10.

27 vestidos  
15:50, 18:05.

Las hermanas Bolena  
20:30, 22:45.

Horton  
16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

Casi 300  
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

La noche es nuestra  
17:00, 19:30, 22:15, 01:00.

Papá por sorpresa  
15:50, 18:05, 20:20, 22:35, 01:00.

Llamada perdida  
16:15, 18:20, 20:20, 22:25, 00:45.

No es país para viejos  
22:00.

Las crónicas de Spiderwick  
16:00, 18:10, 20:25, 22:30, 00:45.

The eye  
20:30, 22:30, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.  
Eguerdiko saioak, domekan.

Astelena, ikuslearen eguna.

**nire aukera**



Igor Arrese  
Alzu ehiza eta arrantza denda Oñati

**"Ni neu ere ibiltzen naiz arrantzan"**

Denetarik egiten dute aste bukaeran: egubakoitzean, lagunekin trago bat hartzea irteten naiz eta, aukera baldin badago, antzerkera, kontzerturen batera, zinemara... joaten naiz. Zapatu goizean, dendan egoten naiz, baina arratsaldea libre daukat, eta futbol partiduak izaten ditut; beteranoe-tan jokatzeko. Bestela, neska-lagunarekin edo lagunekin irteten dut. Bi astean behin ere, Zumarragan down syndromea duten batzuekin ibiltzen naiz boluntario. Domekan, mendira joatea gustatzen zait, edo bestelako kirolak egitea.

**Zu zeu bazara ehiztaria edo arrantzalea?**

Bai, arrantzan egiten dut, Oñatin bertan edo Aramaion; batzuetan, Segurara eta Ataunera ere joaten naiz. Hemen, Oñatin, badago zaletasuna; Bergaran ere bai.

**Urteroko arrantza txapelketarekin hasi zarete?**

Oraindik ez; maiatz inguruan izaten da, eta aurrerago jarriko gara horrekin.

**Eguraldiaren eraginik igartzeko duzu denda?**

Bai, asko igartzeko da arrantzarako. Eguntako eguraldi txarrek, adibidez, zaila da; egitekotan, zizarearekin arrantzatuta behar da; euliarekin, gaitza da.

**Futbolaz gain, bestelako kirolak egiten dituzu. Zeintzuk, bada?**

Antxintxika, lasterka, egitea gustatzen zait, eta lasterketaren bat dagoenean, parte hartzen dut. Horrez gain, kirolak ikustea ere gustuko dut, denetarik kirolak: futbola, atletismoa, txirrindularitza...

**Eta antzerki bat gomendatzekotan, zalea zarenez gero, zein?**

Yllana taldea asko gustatzen zait, eta sarri etortzen da Oñatira eta Elgetara ere bai. Trapu Zaharra taldea ere gustuko dut.

Eskasa: \* Balekoa: \*\* Ona: \*\*\* Oso ona: \*\*\*\* Bikaina: \*\*\*\*\*

**Las hermanas Bolena \*\*\***

Erresuma Batua-AEB, 2007.  
Zuzendaria: Justin Chadwick.  
Aktoreak: Natalie Portman, Scarlett Johansson, Eric Bana.  
115 min. 18 urtetik gorakoendako.  
Bolena ahizpak, Ana eta Maria, euren familiaren askoguraren biktima dira, eta euren artean lehiatuko dira Enrique VIII.a erregearengatik.

**No es país para viejos \*\*\***

AEB, 2007. Zuzendariak: Joel eta Ethan Coen. Aktoreak: Tommy Lee Jones, Javier Bardem.  
122 min. 18 urtetik gorakoendako.  
Llewellyn Moss-ek kamioi txiki bat aurkitzen du. Barruan, heroina kargamentu bat eta bi milioi dolar daude.

**10.000**

Zelanda Berria-AEB, 2007.  
Zuzendaria: Roland Emmerich.  
Aktoreak: Camilla Belle, Steven Strait, Cliff Curtis.  
109 min. 7 urtetik gorakoendako.  
D'Leh ehiztari gazteak mendiko

tribu baten aurkitu du pasioa. Gerrako jauntxo batzuek bere herria suntsitu eta maitea bahitu dute.

**27 vestidos**

AEB, 2007. Zuzendaria: Anne Fletcher. Aktoreak: Katherine Heigl, James Marsden.  
107 min. Denondako.  
Jane emakume idealista eta erromantikoa da. Hainbat ezkontzatan izan da, baina berea inoiz iritsiko ez dela ematen du...

**Buda explotó por vergüenza \*\*\***

Iran, 2007. Zuzendaria: Hana Makmalbaf. Aktoreak: Nikbakht Noruz, Abdolali Hoseinali.  
81 min. Denondako.  
Bakhtay neskatila afganiarra da eta 6 urte ditu. Bizilagunen semeak alfabetoak irakurtzen ditu, eta eskolara joatera bultzatzen du Bakhtay.

**Llamada perdida**

AEB-Japonia-Erresuma Batua-Alemania, 2008. Zuzendaria: Eric

Valette. Aktoreak: Shannyn Sosamonn, Edward Burns.  
87 min. 18 urtetik gorakoendako.  
Lagun talde batek mezu beldurgarri bat jasotzen du sakelako telefonon: euren heriotzako soinua. Jasotzen dutenak hil egiten dira.

**Seda \*\***

Kanada-Frantzia-Italia-Erresuma Batua-Japonia, 2007. Zuzendaria: François Girard. Aktoreak: Michael Pitt, Keira Knightley.  
110 min. 7 urtetik gorakoendako.  
Protagonista Herve Joncour da, XIX. mendeko frantses bat, zetarren merkataria. Japoniara bidaiatzen du, eta harreman bat hasten du emakume misteriozko batekin.

**En el punto de mira**

AEB, 2007. Zuzendaria: Michael Davis. Aktoreak: Clive Owen, Monica Bellucci.  
86 min. 13 urtetik gorakoendako.  
Smith jauna munduko gizon gogorrena da. Halako baten, ume jaioberri bat zaintzea agintzen diote, eta hil nahi dutenengandik babestea.



# 'Parcour'-aren jarratzaileak gure ibarrean

**MUGIMENDUAREN ARTEA** David Belle da hirigunean mugimendu askea helburu duen diziplinaren aita

**ENTRENAMENDUAK** 'Parcour'-a egiteko, Aretxabaletako kiroldegian entrenatzen dituzte saltoak

**JOKIN BEREZIARTUA > ARETXABALETAKO**  
*Parcour*-a, seguruenik, gutako askorendako ezezaguna izango den diziplina da. Frantseseko *parcour* hitzetik dator, eta euskaraz *ibilbidea* esan nahi du. David Belle da sortzailea eta aitarengandik armadan ikasitako diziplinetako bat hiriguneetara egokituz sortu zuen.

Labur azalduta, kalean aurki daitezkeen oztopoak –hesi, ibilgailu, horma... – ahalik eta azkarren eta era originalenean gainditzean datza. *Parcour*-a praktikatzan duten profesionalak ez dute zaleztasuna kirol fisiko huts moduan ikusten eta *parcour*-a bizitza beste era batera ikusteko filosofia da haiendako.

Bestalde, *parcour* profesionalak hiru printzipio nagusi dituzte: kaleko jendea ez oztopatzea, euren bizitza arriskuan ez jartzea eta elkarren artean ez lehiatzea.

**'PARCOUR'-A DEBAGOIENEAN**

Bada, arraroa iruditu arren, gure ibarrean diziplina hori praktikatzen duenik. Gaztetxoak izan arren, zaleztasuna serio hartzen dutela esan daiteke, salto eta mugimenduak entrenatu eta entseatu ondoren, grabatu eta Interneteko Youtube webgunean eskegitzen dituzte-eta.

Eskoriatzakoak eta Aretxabaletakoak dira gure ibarreko *parcour* zaleak. Gaztetxoak dira, baina ez dute salto arriskutsuak egi-

teko beldurrik. Talde moduan funtzionatzen dute, batzuek saltoak egiten dituzte eta kide bat bideokamerarekin grabatzea arduratzen da.

*Parcour*-a egiten orain dela hiru hilabete eskas hasi ziren arren, bideoak talde moduan sinatzen dituzte dagoeneko: *PEA 08* izenarekin, hain zuzen ere (*Parcour* Eskoriatza Aretxabaleta 2008).

Hasiberrien artean ulertzeko den moduan, kaskarreko bat baino gehiago hartu dutela aitortu digute.

Bestalde, logikoa denez, *parcour*-a egitera kalera irteten direnean jendea harritu egiten dela adierazi digute.



BELDURRIK EZ *Parcour* zale gaztetxoek salto ikusgarria egiteko gertu. J. BEREZIARTUA

**ahobero**

"Geldialdia garagardo bat edanez egiteko moduan izan nintzen"

Lewis Hamilton > Auto gidaria

Malaysian esan zituen hitzok 1Formulako gidariak bere taldearen aurka, gorpila ipintzeko denbora luzeegia behar izan zutelako. Tragorik gabe ere arin dantzatu zuen mingaina, arinegi beharbada. Gainera, ez luke aspaldi ikasia behar alkohola edanez gero ez dela gidatu behar?

**iturri onetik**

**Yogako kongresua egingo dute apirilaren 25ean, 26an eta 27an Arantzazun**

*Bakea guztia da* lelopean, Espainiako V. yoga kongresua izango da apirilaren 25ean, 26an eta 27an Arantzazun, hainbat yoga eskolak antolatuta. Hiru egunean hitzaldiak, tailerrak, kontzertuak, filmak eta mahai-inguruak izango dira. *Yoga* hitza batasunaren eta elkartasunaren adierazle izanik, Arantzazun egoitza duen Baketik fundazioko Jonan Fernandezek hitzaldia egingo du sarrera ekitaldian.

**piperrautsa**

Mikel Irizar > [www.goiena.net/blogak/piperrautsa](http://www.goiena.net/blogak/piperrautsa)

**Azahar eguna**

**A**berri eguneko eguerdian ari naiz idazten, negu giroan hiru bilkura politiko ezberdin egiten ari diren unean. Negua ez dago egutegian –udaberrian sartuak baikara–, ezta bakarrik termometroan edo elur usainean. Une gorria, negukoa, bizi dute balizko aberriak eta abertzale antolatuek: hauteskunde emaitzak eta Calahorrakoa, azeleratu ala frenatu arteko zalantza, Lizarra versus Ajuria-Enea...

Hogeita hamar urteko aroa amaitzen ari da, alferrik eutsiko zaio bere horretan orain artekoari. Hor ez dago aurrerabiderik. Hobe hausnarketarako patxada hartu eta ibilbidea, mapak, tresnak edo etapak birpentsatzea; mesede, ohiko moldeak apurtu eta asmatzea denok irabazteko modua. Atsotitzak diogenaren kontra, politikan zaharrak ez baitira berri.

**ai, ene!**



**Koltxoidun farolak despistatuendako**

Erresuma Batuan hamar lagunetik batek jotzen du farola sakelakoarekin idazten dabilela; eskerak Londresen babestu dituzten.

<http://es.engadget.com>

**IKER**

**SUKALDEAK:**

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43  
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

